

Jabier Kaltzakorta Elortza
Euskaltzaindian sartzea

Markina-Xemeingo Udaletxea, 2014-XI-29

Euskera. 2014, 59, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Ongietorria

TXURRUKA, Juan Jose
Markina-Xemeingo alkatea

Ongi etorri danok. Euskaltzaindiko kide guztiak, udaletako ordezkariak, gainerako erakundeak, lagunak eta herrikideak.

Jabier Kaltzakorta Elorza herritarraren Euskaltzaindiko sarrera-ekitaldia ospatzeko batu gara hemen. Markina-Xemeinen. Jabierrek berak hementxe ospatu nahi izan daualako.

Eskerrik asko, horregatik, Jabier, Markina-Xemein, zure herria, aukera-tzeagatik ekitaldi hau ospatzeko.

Eskerrak baita be, urteetan euskararen alde eta herri literaturaren arloan egin dozun eta egiten diharduzun beharrarengatik. Harro gagoz lortu dozunagaz eta harro gagoz gaur hemen gu danok batu gaituzulako: zure lankideak, familiartekoak, lagunak, eta hainbat herritar.

Bihotz-bihotzez, zorionak. Bai zuri eta baita zure etxekoei be. Gaur batez be zeuon eguna dalako. Sentitu eta ospatzekoa.



Agurra

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Agintariak,
Markina-Xemeingo alkatea eta zinegotziak,
Euskaltzainak (oso, ohorezko, urgazleak),
Xabier Kaltzakortaren etxeoak,
Markinarrak eta Lea-Artibaikoak,
jaun-andreak,
egun on guztioi !

Gaur dator Euskaltzaindiaren magalera Xabier Kaltzakorta markinarra. Etorri ere, ondo hornituta dator, urte luzeetan eginiko lanak bermatzen duelako haren sona. Herri literatura izan du solasbide Xabier Kaltzakortak. Hala esanda, badirudi bestelako literatura motak zokondoan utzi dituela. Ez horixe! Literaturaren hegaletan barneratua, ikerlari fin eta trebearen eskua ikusten da bere lanetan, gure hizkuntza eta kulturaren altxorra azaleratzen baita borborka Xabierren idatzietan. Idatziak ez eze, ahozkoak ere izan ditu Kaltzakortak ikergai eta aztertoki. Aspalditik konturatu zen Euskaltzaindia horren balioaz eta Herri-literaturaren batzordean partaidetza luze-zabala du euskaltzain oso berriak.

Langintza horretan jarraitzera eta beste batzuetan ere ekitera (ekin eta jarrai) deitua da gaur Xabier Kaltzakorta euskararen Akademian. Ziur nago fruitu oparoak ekarriko dizkiola gure Akademiari eta euskalgintzari, hitz batez esateko, euskal gizarte osoari.

Euskera. 2014, 59, 1. 19-20. Bilbo
ISSN 0210-1564

Eskerrak, beraz, hona hurreratu zareten guztiei eta batez ere, Markina-Xemeingo Udalari eta Markina-Xemeingo herritarrei eta gogoratu dezagun Xabier Kaltzakortak Euskaltzaindiaren eta euskararen alde egingo duen zina. Horixe izan dadila gure gaurko ekitaldiaren lekukotza eta oroigarri!

Ahozko literatura hizpide: Humboldtten bidaia Euskal Herrian barrena

KALTZAKORTA, Jabier
Euskaltzain osoa
Sarrera-hitzaldia

Egun on, jaun-andreok:

Ez da erraza izaten inoiz egin gabeko zeregin batean jardutea. Sarrera-hitzaldia, onenean ere, behin egiten da, eta guztiekikoa ahalik eta ondoena egin nahi izaten du hizlariak. Aurrera baino lehen, eskerrak eman nahi dizkizuet, bihotz-bihotzez, hona etorri zareten guztioi.

Protokoloak eta are adiskidetasunak ere eskatzen du euskaltzain baten ordeko sartzan denak beraren berri ematea. Jose Luis Lizundia Askondo adiskidea euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1966. urteko azaroaren 25ean. Handik bi urtera, 1969ko urtarrilaren 22an, Baionan, Euskaltzaindiko idazkariorde, eta euskaltzain oso 2003 urteko ekainaren 27an. 2004. urteaz gero diruzaina eta Zuzendaritzako kide izan da. 1979. urtetik aurrera Onomastikako batzordeko kide izan da eta Exonomastikako batzordeko buru. Jagon Saileko eta beste batzorde askotako partaide ere izan da eta hainbat lan egin ditu batzorde horietan. Enetzat ohore handia da beraren lekuan izendatu izana.

Markina Bizkaiko euskera klasikoaren habia, sorlekua da. Markinan bizi izan ziren Juan Antonio Mogel eta beraren bi iloba Juan Jose eta Bizenta. Juan Antonio Mogel gu gauden jauregitik, Mugartegitarren handi-etxetik, berrogeita hamarren bat pausora bizi izan zen, Guen kalean. Prai Bartolome Santa Teresakoak Karmengo komentuan, jauregi honetatik hogeiren bat pausora, idatzi zituen bere obrak. Markinara etorri eta bertan idatzi zituen obra asko Jose Antonio Uriartek ere.

Euskera. 2014, 59, 1. 21-188. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ezagutzen dugun bertsolariaren lehenengo irudietako bat Mogelek *Peru Abarka* liburuko lehen autuan ematen digu. Peru Abarka eta Maisu Juan lagun egin eta ostatu batera doazenean, sabaitik kantatzen diharduten aita-
seme batzuen koplak entzuten dute. Koplak entzun eta bertatik hala dio Maisu Juan jakingurak:

M. J. *¿Nor ete da cantoria?*

P. Nic eztaquit; itanduko deitsagu nestatilliari ta esango deuscu?

PRAISCA. Aita seme batzuc jua dira sabaira, aita catu andijaz ta semia bere bai cerbaitacuan. Ló eguiteco asmoz igon dabee, baña emon deuta aguriac cantiari. Soñulari eder bat dozu ardaoz basa basa eginda bere.

M. J. Peru, esaidazu arren osteria versua, ta ateraco ditut papera eta tinteruba beti aldian darabildazan leguez, escribiduco dot aztu eztaquidan.

Aita-semeak sabaira igon dira eta aita *katu andijaz*, hau da, mozkor handiarekin eta semea ere antzera samar. Bertso kantari hasten direnean aita-semeak Maisu Juanek aldean daramatzen luma eta papera hartzen ditu. Bertsoak entzundakoan hauxe dio Maisu Juanek.

Verso asco iracurri ditut neure aldijan erdaldunen liburubetan; baña ez verba gitxitan gauza geijago esan gura dabenic.

Maisu Juanek esaten dituen hitz horiek bertsoen laudorio eta gorantzan egindako hitzak ditugu. Bertsolariaren lehen aipamena ez ezik, bertsolarien bertsoen –kasu honetan koplak– laudorioa ere badugu.

Gatozen, orain, bertsolarietan bertsolarienetakoa izan zen Txirritaren aipamen txiki bat egitera.

1936. urtea bere hasiera-hasieratik urte trinkoa izan zen Jose Manuel Lujanbio «Txirrita» bertsolariarentzat. Aurreko urtean, 1935. urteko abenduan, eliminatoriak jokatuak ziren eta San Sebastian bezperan, urtarrilaren hemeretziaren, ospatu zen Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, bertsolarien txapelketa nagusiko finala. Txirrita ordurako astundua eta zahartua zegoen. Astundua, ehun eta berrogeita hamar kilotik gora zelako, eta, zahartua, sorbaldeetan ia hirurogeita hamasei urteko zama nozitzen zuelako.

Manuel Olaizola Uztapidek kontatzen duenez, erreumaren gaitzak ere pausoa astiro botatzera behartzen zuen gure bertsolaria. Neurritz gaineko pisuak eta zahartzaroko ajeak hartaraturik, bi makilaren laguntzaz mugitzen zen Txirrita. Bi makilaren laguntzaz baliaturik Donostia hiri dotorera bertsoetako finala jokatzera agertu zen, gainerako joan-etorrietarako, erabat sortua eta baldartua zegoenez gero, gurdi batean eramaten zuten batera eta bestera. Urteek ibilpidea moteldu bazioten ere, umore ona zeukan eta beti bezain azkar eta egokia zen bere bertso-etorrian. 1936 urteko urtarrileko bertsolarien txapelketa nagusian txapela berak atera zuen.

Txapelketa nagusitik bi hilabetera, 1936ko martxoaren hogeita bian, Euzko Gaztediak antolaturik, Erreterian egin zioten omenaldia. Bi bastoi-rekin ibiltzen zen bertsolari edadetuari makila bat eman zioten opari. Beraren erantzuna zorrotza izan zen:

*Bi bastoi abek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko.*

Txirritaren munduz munduko ibilia handik lasterrera bukatuko zen. Omenaldi egunetik hilabete eta erdi baino lehen beraren mundualdia bukatuko zen. Goizuetara bertsoetara joan eta gaizkitu zen, handik etxera ekarri eta azken hatsa bota zuen Altzako Gazteluene baserrian, ekainaren hiruan, arratsaldeko lauretan. Txirritaren zerraldoa bizkarrean eraman zuenetako bat, Salvador Zapirain, *Ataño*k kontatzen duenez, bere anaia zaharrena izan zen, eta aldapan, txandaka, izugarritzko karga etortzen omen zitzaion.

Hirurogeita hamar bat urte zituela, 1930. urtean, *Txirritaren testamentua* bertso-sailean, bera hil eta beste laurogei urtean ere beraren aipamenak izango zirela dio. Txirritak ez zekien idazten. Notarioaren aurrean egiazko testamentua egiteko sinadurarik ere ez zuen egin, ez zekielako bere izena paperean jartzen. Eskuz egindako letrarik ez zekien irakurtzen. Moldezko letrak irakurtzeko gauza zen, baina oso gutxitan egiten omen zuen. Txirrita izan zen, bestalde, bertsolari zaharren artean bertso paper gehien argitaratu zutenetakoa; eta, hala ere, ez dago dudarik hil zenean berekin eraman zuela hilobira biblioteka oso bat. Txirritak kantatutako bertsoak papereratu balira, biblioteka eder bat osatzeko adina liburu izango genituzke: beroarena kenduta, erraz bostehun aletik gorako liburutegi bat.

Orain arte aipatu ditugun Txirritaren berri gehienak Antonio Zavalak bere liburuetan bilduak dira. Liburu horiek *Auspoa* bilduman daude. *Auspoa* jaio zenean, lehenengo liburuan berean, Ramon Artolaren *Sagardoaren graziya eta beste bertso asko* alean, azpiko aldean *Auspoa liburutegia* irakurtzen da. Lehen liburu honen ondoren beste hirurehun zenbaki etorriko ziren. Txirritak berekin hilobira liburutegi bat eraman zuen bezala, Antonio Zavalak hil zenean egiazko liburutegi bat utzi zuen gure artean. Ez dut ezagutzen gure artean hirurehundik gora euskarazko liburu argitaratu dituenik. Eta ez dago dudarik, era berean, aberastasun honekin nolako mesedea egin zigun A. Zavalak. Txirrita taberna-gizon edo parranderoa omen zen, alfer eta ez dakit zer, baina beste modu batera ere ikus litezke gauzak: euskaldun artista handi bat zen, talentu handikoa. A. Zavalaren hitzetan honelaxe laburbilduko genuke Txirritaren izana:

Txirrita bezalako gizonak kalte baño mesede geyago egiten dute askozaz mundu triste honetan.

Hitzaldi honen hasieran, berariaz, Txirrita eta Antonio Zavala aipatu ditut. Batak zein besteak euskaldunoi mesede galanta egin digutelako, eta batak zein besteak ahozko literaturarekin lotura estua dutelako.

Hitzaldi honetan ahozko literaturan barrena bidaia txiki bat egingo dugu eta bidaia-lagun nagusia Wilhem Humboldt bidaiari prusiarrak izango dugu. Humboldt bidaiari prusiarrak orain dela berrehun urteko Euskal Herria eta euskalarien zenbait lan ezagutzeko aukera emango digu.

1. Parisetik Baionara eta Baionatik Donibane Lohizunera

Kontu ezaguna denez, Wilhelm von Humboldt bi bidaia egin zituen Euskal Herrira: lehena, 1799-1800an, eta, bigarrena, 1801ean. Lehen bidaia emazte, bi seme eta Gropius pintatzailearekin egin zuen eta batez ere Espainian barrena egindakoa izan zen. Espainiatik barrenako bidaia horretan Euskal Herria goitik behera zeharkatu zuen egun oso gutxitan. Baionatik sartu eta Donibane Lohizunera joan zen; gero, Tolosa, Bergara, Mondragoe eta Gasteiz zeharkatu zituen Burgosen barrena Espainiako hegoalderantz Cádizera iritsi arte. Behin Cádizen zegoela, eskuinetara jo eta Alacante-

tik gora, Mediterraneoko itsasaldetik gora, Barzelonara, Mataro, Figuera zeharkatu eta Perpiñanera joan zen.

Bigarren bidaia lehena bukatu eta urtebetera egin zuen. Bigarren hau Bockelmann adiskidearekin egin zuen. 1801eko apirilaren 28an sartu zen Baionan eta ekainaren 2an itzuli zen berriro Baionara. Apirileko hondar egunak, maiatz osoa eta ekaineko lehen egunak egin zituen, beraz, Euskal Herrian. Euskaldunen gainean atzerritar batek inoiz idatzi dituen hitz amultsu eta ederrenetakoak egin zituen Humboldtnek bere bigarren bidaia honetako egunerokoan. Bidaiari prusiarrak bere egunerokoaren hasieran dioenez, mendi tantaien artean, sartaldeko Pirinioetako bi isurki ederretan ezkututzen den herria osatzen dugu euskaldunok. Mendeetan barrena gorde den hizkuntza eta ohiturak dira gureak.

Paristik Baionarako bidaia bederatzi egunean egingo du Humboldtnek. Loire ibaiko ibar emankorrak ziztuan zeharkatu zituen, Blois, Amboise, Tours, Poitiers eta Angulemako murru behiala famatu eta gerora ahantziei begirada iheskor bat eskaini zien. Ez dugu ahantzi behar erromantikoa dela burutik behatzera gure bidaiaria eta erromantikoen espiritua bizi-bizi duela. Garai zaharren mira eta mina dute erromantikoek eta murru behiala famatuei egozten dien begirada iheskorra hobeto ulertzen dugu bidaia-liburua irakurtzean. Hiru egun gelditu zen Bordalen, eta landetako lur elkor eta gutxi landuetan barrena Baionara iritsi zen. Asmo argia zuen: Frantzia bizkor zeharkatu eta Euskal Herrian barrena urratsez urrats ibili. Baiona utzi ondoren Biarritzera joan zen eta hondartza baionesez beterik ikusi zuen. Miarritzeko hiritik itzuli bat egin eta itsasertzean zehar egin zuen bere ibilia. Itsasbeheran arrantzan ari ziren gizon, emakume eta mutikoei erreparatu zien. Hegazti-habien lapurretan ari zen gizon bati ere erreparatu zion. Euskal Herriaren iparraldean emakumeak lan latz egiten duela dio bidaiari prusiarrak. Are gehiago: ez duela inon ikusi emakumerik hain lan neketsuetan. Hegoaldean laian aritzen direla makurturik lur elkor eta gogorrari zokilak kentzen. Bilbon, ontzien deskargan, ibaitik biltegira burdina-barra handiak eramane ohi zituzten buru gainean. Gure bidaiariak are sutegetian ere ikusiko ditu emakumeak ingude gainean sendoro mailua dantzatzen dutela. Donibane Lohizuneko bidean sardina-saltzaile askorekin gurutzatuko da gure bidaiaria.

Bidaiari prusiarrak dioenez, mugalde bietako euskal emakumeak langileak, ekinak, bizimodurakoak ziren. Gaztelako emakumeek, erresumaren

barnealdean eta hegoaldeko lurraldeetan, ordea, bizitza alferkerian eman ohi zuten.

Alemanian sortu zen Erromantizismoak bere emaitzak izango ditu Alemanian berean eta Europako beste herri batzuetan. Literatura idatziari gagozkiola, idazle bretoi gazte batek, René de Chateaubriandek, Parisen, 1801. urtean, *Atala* izenburuko liburu bat emango du argitara. Frantzian izan zen lehen fruitu goiztiarra dugu (Uslar Pietri: 1979). Gerora, are gure artean ere, saio eta ipuin bat baino gehiago eragin dituen Aveyrongo Viktor ume basatiaren gaineko lehen informea argitaratuko du 1801ean Jean Itardek: *De l'éducation d'un homme sauvage ou des premiers développemens physiques et moraux du jeune sauvage de l'Aveyron*.

Herri-literaturari gagozkiola, Erromantizismoaren eraginez hasi ziren Europan herri-ipuin, herri-elezahar eta herri-kantuak biltzen. Gurean, Francisque Michelen *Le Pays Basque* liburuan herri-kantuen bilduma eder bat dator. Donibane Lohizuneko berri ematen dugula, ezin utzi alde batera, beraz, *Le Pays Basque* lanean, 424-425 or., dakarren pasarte hau:

«Plus nombreuses encore sont les chansons composées dans le but de stigmatiser le vice et de flétrir le scandale. A celles que j'ai données, j'aurais pu ajouter un dialogue qui a dû prendre naissance dans le environs de Saint-Jean-de-Luz. Il est relatif à la femme d'un marin, peu vertueuse à ce qu'il paraît et commence ainsi»:

*Andere ederra, gora zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Frantzian
Houra handic jin dateken artian
Ezcutari nahi nuzia etchian?*

Francisque Michelek gutxitan uzten ditu herri-kantuak bukatu gabe. Kantuaren hondarrean elkarriketa bat (*un dialogue*) eskainiko duela esan arren, bakarriketa bat aurkitzen dugu. Oraingo honetan, lehen ahapaldia bakarrik ematen du eta ahoan ezta dugula gelditzen gara irakurleok. Zorionez, kantu hau osatzeko bidea izan dugu. Osatzeko modu bidezko eta legezkoena erabili dugu: J. B. Arxüren kaier batetik, alegia. Kaiera¹ 1840. urtean

¹ Hauxe da izenburua: *Chants populaires du Pays Basque recueillis par J. B. et P. Archu 1840*.

datatzen da, prusiarraren bidaiatik berrogei urtera. Kontu jakina da Francisque Michelek bere lan mardula egiteko J. B. Arxü zuberotarraren kantubildumak baliatu zituela. Hona hemen Arxüren eskuidatziko 41 zenbakian *Dialogue* izenburupean agertzen den bezalaxe:

–Andere ederra, gora zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Franzian;
Houra handic jin dateken artian
Eskutari nahi nuzia etchian?

–Ene senharra izanic gatic franzian
Hauzoac hounic utzi dauzkit aldian,
Hauzoac hounic utzi dauzkit aldian.
Eskutari beharric ez tut etchian.

–Izatu nuzu Espainian, Franzian,
Anglaterran eta Eropa guzian,
Andere ederrac ikhoussitut aldian:
Zure pareric eztaite izan mundian.


–Eskutaria, ederki zira minzatu;
Zure etzateco etchian badut ostatu;
Ohe ederrian lo ere eghinen duzu
Ene aldian, zuc plazer baduzu.

–Andere ederra, hori da klarki minzatzia,
Zure senharra, ni baino hobia,
Zazpi ourthez eman izan daut oghia,
Zortzi gherrenian bere azpico zaldia.

–Arramuiaren hostoaren pherdia!
Ezpeitu galzen behin ere koloria.
Erran duzadac, othoi, eni eghia,
Hi othe izanez ene lehen semia.

–Mariñelac itsasoa trabesatzen,
Ourthe hortan manobra hanitz eghiten
Kosta hegian sablia denian fimitzen,
Erranen dauzut heia zure semia ninzen.

Cette chanson a dû prendre naissance dans les environs de St. Jean de Luz. Elle a pour objet la femme d'un marinier, laquelle était, à ce qu'il paraît, peut vertueuse. Amour, tu perdis croire et tu fais souvent oublier la fidélité conjugale.



Goraxeago esan dugunez, kantuaren hondarrean datorren frantseseko azalpen hau Arxürena berarena dugu. Francisque Michelek, beraz, Arxüren kantuak ez ezik, azalpenak ere kopiaturik bereak balira bezala ematen zituen. Gure kasu honetan zerbait erantsi eta aldatu du, baina funtsaren funtsa besterena da.

Arxüren kantua *Anderea gorarik* balada dugu. Balada eredu honen aldeara gehienek elkarren antz handia duten arren, Arxüren eredu hau da eza gutzen dugun berezientakoa.

2. Donibane Lohizunetik Donostiara

Donibane Lohizunetik Donostiara etorri zen gure bidaiari prusiarra. Donostian sartu baino lehen Gipuzkoa lurraldearen deskripzioa egingo du. Gipuzkoak bere euskalkia duela dio eta ohar harrigarri bat egingo du. Gipuzkoan egiten den euskara Bizkaikoa baino atseginagoa da, baina ez Lapurdikoa bezain goxoa. Ohar hau, uste dugunez, bestek esana izango zen. Lapurdiko euskara zerbait entzuna izango zuen, baina artean Gipuzkoakoa zein Bizkaikoa entzun gabe izango zituen.

Gipuzkoa aipatu dugunez gero, iruzkin ditzadan kopia zaharren zenbait alderdi. *Euskal Pizkunde* garaian, 1936. urteko anaiarteko gerra baino lehen, gipuzkoar argi bi, Manuel Lekuona eta Jose Ariztimuño *Aitzol*, ahozko literaturaren ikerle eta sustatzaile handiak izan ziren. Gerra aurreko garaitsu hartan, lehen aldiz, kopia zaharren garrantzia eta balioa azpimarratu zuten lehen ikerleak izan ziren. Odon Apraizek (*Apraiz*: 1928), Lekuonak Bergarako Euskal Ikasketen Bosgarren Kongresuan (Lekuona: 1930) eta Aitzolek 1933 urtean (Ariztimuño: 1933) kopia zaharren era bateko eta besteko balioez idatzi zuten². Kopia zaharraren teknika eta abarrez geroago mintzatuko naiz, hitzaldi honen bukaera aldera. Orain hiru jakintsu horien arrastoan, eske-kopia zahar batzuen alderdi bat edo beste iruzkinduko dut hitzaldi honetan.

Euskaraz ditugun testu iharturik interesgarrienetakoak eske-kopia zaharrak dira (Satrustegi: 2003). Eske-kopia hauek Euskal Herri osoan kantatzen ziren. Hasi Bizkaiko bazterretatik eta Zuberoako Larraine herrirainoko eremu guztian. Kopia zahar hauek azterkizun interesgarria ematen dute saihets askotatik. Dakardan, esaterako, Santa eskean kantatzen diren koplari ezagun eta dokumentatuenetako bat. Azkuek, Altzolan, Gipuzkoan, kopia hau bildu zuen:

*Zeru altuan izarra,
Landaberean lizarra;
etxe-ugazaba jaunak
urregorrix du bizarra.*

² Urteei gagozkiela, hiruren artean lehena Odon Apraiz arabarra izan zen. Kopia zaharretan baino gehiago maitasunezko olerkietako irudia aztertu zuen; hala ere hiru kopia zahar dakartza 606 orrialdean.

Koplarik ezagunenetako bat dugu hau, etxeko jaunaren nota edo gorai-pamena. Kopla honek segida jakin bat izan ohi zuen. Jar ditzadan kopla biak, adibidea hobeto ikusteko:

*Orrako or goian izarra,
errekaldian lizarra:
etxe ontako nagusi jaunak
urregorritzko bizarra.*

*Urre gorritzko bizarra eta
zilar zurizko espalda:
errial bikozi egiña dauka
elizarako galtzada.*

Hona kopla honetako lehen misterioetako bat. Bigarren kopla honek nagusi jaunak duen *zilar zurizko espalda* zer ote da? Manuel Lekuonak honela erantzungo luke (Lekuona: 1965):

Zillar zurizko sorbalda orrek ba' du zer-ikusi, zalantzarik gabe, Erdiaroko Zaldunen altzairuzko *armadurarekin*; altzairuaren ordezt «zillar» diola ezik, loxintxaren loxintxa bearrez nonbait.

M. Lekuonak ematen duen argitasun interesgarri hau Juan Karlos Gerrak emana zuen lehenago (Gerra: 1922):

El vocablo zalduna=caballero añade en euskera el concepto castellano de generosidad y nobleza en el porte, el de juventud aplicándose especialmente al heredero doncel de una casa antigua. La he visto traducido por «caballerito» para expresar la idea de la mocedad, y también por «hijo», como en las canciones de cuestación, que, después de ponderar la magnificencia del Etxe-Jaun con sus barbas doradas y su espalda de plata (remembranza de la armadura), dicen:
Etxeko zaldun noblia/ bera ezin da obia.

Manuel Lekuonak ezagutzen ote zuen Juan Karlos Gerraren iritzia? Bali-teke ezagutzea, baina, zenbaitetan gertatzen den bezala, baliteke nor bere aldetik ere iritzi berera iristea.

Kopla hau berau edo beronen oso antzekoak toberetan ere kantatzen ziren. Toberak, denok dakigunez, neska-mutilak ezkontzeko eliz deiak egi-

ten ziren egunean ospatzen ziren. Tobera edo toberak neskatilari egiten zitzaion serenatari esaten zitzaion. Toberak jotzen zirenean laudoriozko koplak zaharrak kantatzen ziren. Hona Labaiengo Concepción Grajiarenak Aita Donostiari bidalitako bi (A. Donostia: 1924):

*Gora dago izarra,
errekaldian lizarra;
gaur fedatu den nobio jaunak
urregorrizko bizarra.*

*Urra gorrizko bizarra,
urre labratuz bizkarra,
ezkute lorez egiñik dauke
elizerako galtzada.*

Testu honetan nekez ulertzen ditugun kontu bat baino gehiago aurki litezke. Lehenik eta behin, *gaur fedatu den nobio jauna* aipatzen da, senargaia-ri zuzendua baitago. Euskaraz ezagutzen diren testurik zaharrenetan *fedatu* aditzaren arrastokoa izan behar zuen «fedea eman» kolokazioa aurkitzen dugu (Irigarai: 1933). Gizonaren oraingo janzkia, aurreko adibidean zilar zurizkoa zen bezalaxe, urrezkoa da. Kontu ilunagoa da zer ote den *ezkute lorez* delakoa jakitea. Misterio hori zulatzeke aurreko bi koplek azkenak ematen digu giltza: diru motaren bat izan behar du. Gure ustean, beraz, *ezkute lorez* delakoa «ezkutu lodiz» baten desitxuraketa da. Baina goazen berriro gizonak soinean daraman gerra-janzki hori koplak gehiagotan ikustera. Etxeko jaunak soinean daraman koraza hori modu batera baino gehiagotara ere eman izan da. Manuel Lekuonaren arreba batek, Miren Pilar Lekuonak, 1928-1931 urte bitartean 166 koplako bilduma bikaina osatu zuen. Bildu zuen nagusi jaunaren nota edo goraipamena hauxe da:

*Ardiak dabilza larrez,
belarrez ase bearrez;
etxe ontako nagusi jaunak
bular-arteak zilarrez.*

Kopla horretan, aurrekoetan ikusi dugun *zilar zurizko espalda* edo *urre labratuz bizkarra* bezalaxe, gizonaren koraza ikusten dut. Oraingo honetan erreferentzia atzealdea izan beharrean –*espalda*, *bizkarra* hitzetan ematen

dena– bularraldeari egiten zaio erreferentzia: *bular-arteak zilarrez*. Baina kontu hau bitxi baino bitxiago egiten bazaigu ere, gure koplak zaharretan gizonak ez ezik, emakumeak ere eraman dezake soinean koraza. Hona aita Donostiarri Concepción Grajirena Labaiengoak eman zion koplak (Donostia: 1924):

*Mendiak bete belarrez,
begi ertzetan nigarrez.
gaur fedatu den nobi-andreak
bular artiak zilarrez.*

Emakumearen burdinezko janzki edo korazaren aipamena eredu gehiagotan ere aurkitu dut. Lapurdin, esaterako, eske-kopla zaharren bilduma gutxi aurkitzen dira. Inauterietako eske-kopla sorta laburrak aurkitzen dira gehienetan. Aitzolen bilduman sorta polit hau dator:

I

Heldu gira³ urrundik,
gauba bidian emanik,
gauba bidian emanik eta
santeria entzunik.

II

Landan eder gereta,
Baxenabarren⁴ Heleta;
zerbait merezi⁵ ginduke
handik hunat jin eta.

III

Ametzak eder azala,
aritz gaztiak⁶ bezala;
zure etxeko andre za[ha]rra
etxe huntan bada zure beharra.

³ Jatorrizko dokumentuan *Eldu gira*.

⁴ Jatorrizko dokumentuan *Bachembarren*.

⁵ Jatorrizko dokumentuan *mereki*.

⁶ Jatorrizko dokumentuan *gaiztiak*.

IV

Hortxe zaude jarririk,
koloria⁷ gorririk,
guri zerbaiten emateko
jaiki behar⁸ zira hortik⁹.

V

Goazen, goazen, hemendik,
hemen ez duk tzingarrik¹⁰;
etxe huntako gazi-kutxan¹¹
saguak umeak egiten tik.

VI

Landan eder ilharra¹²,
haren azpian belharra¹³;
etxe huntako etxe alabak¹⁴
bular-artia zilharra¹⁵.

Sail honetako hirugarren koplak gurean gutxi dokumentatzen da. Koplak zaharraren teknikakoa da eta esaera zahar ere bihurtu da lehen erdia edo irudia esaera zahar baten lehen erdia da¹⁶. Larramendik bere hiztegian, *vie-jo* hitzean (lehen tomoa, 373 or.), esaera hau dakar:

⁷ Jatorrizko dokumentuan *coloria*.

⁸ Hirugarren ahapaldian *beharra* badakar ere, oraingo ahapaldi honetan *behar* dator.

⁹ Jatorrizko dokumentuan *ortik*.

¹⁰ Jatorrizko dokumentuan *tzuigarrik*.

¹¹ Jatorrizko dokumentuan *gazi cutchan*.

¹² Jatorrizko dokumentuan *ilarra*.

¹³ Jatorrizko dokumentuan *belarra*.

¹⁴ Jatorrizko dokumentuan *etxeio alabai*.

¹⁵ Jatorrizko dokumentuan *zilarra*.

¹⁶ Aitzolen *Colamus carmina nostra* bilduman Irungo Eguberrietako kopletan ere badator. Hone-laxe da 18. koplak: *Ametzak eder azala/ aitz gaztiak bezela./ Etxe ontako etxeandria,/ etxe ontan bada zure bearra*.

Dice afsi un refran, *aritzàc azalá, ametzác bezala: zarrac ecin dagui-que*¹⁷ *gazteac bezala*: Y quiere decir, que el quexijo especie de roble, y el roble echan, ò tienen corteza femejante, pero que los viejos no pueden hazer lo que los mozos.

Hitzaldi honetan argitaratuko dudan Añibarroren lehen esaera-bildumako 94 paremian ere agertuko da: Arechac azala, ametzac bezala: zarrac ecin daguique gazteac bezala. *El roble y el quejigo tienen corteza semejante, pero los viejos no pueden hacer lo que los mozos.*

Baina ez gaitezen haritik galdu eta har dezagun kontutan azken koplako *bular-artia zilharra*. Kopla honetan, ikusi ditugun aurreko kopletan bezalaxe, etxeko alabak *bular-artia* du zilarra. Iparraldeko inauterietako kopla zaharren erreskada bost koplakoa izan ohi da. Aita Donostiak, esaterako, Itsasun, Lapurdin, hona aldatu ditudan lehen bost koplak bildu zituen (Donostia: 1918), seigarrena, ordea, ez. Azkuek ere bildu zituen Aitzolen saileko sei koplak, baina azken kopla ez da guztiz berdina. Hona hemen:

Landan eder ilharra,
haren pean belharra;
etxe huntako etxekanderia
zer emazte xilharra.

Jose Ariztimuñoren inauterietako eske koplakoko azken aleak ezuste zoragarri bat agertzen du, etxeko alabak *bular-artea* zilarrez izatea, hain zuzen. Goragoko adibide guztietan aztertzen ari garen kopla Inauterietakoa da. Irunen bildutako eske-kopletan, ordea, Eguerrietako kopla bezala dator. Aitzolen bilduman Iruneko Eguerrietako kopla-sailean aldaera hau dator:

Zelaian eder ilarra,
Arren orpoan belarra;
Etxe ontako etxeko andriak
Burlar artia zilarra.

Orain arteko adibideetako hitz hoskide berak eta kopla ere antzekoa da. Hitz hoskideak *il(h)arra*, *bel(h)arra* eta *zil(h)arra/xil(h)arra* dira. Inauterietako kopla-errenkada hau Santi Onaindiak *Milla Euskal-Olerki Eder* lanean

¹⁷ Hiztegian oker idatzia dago: *daguiqae*.

99 zenbakian eman zuen. Ignazio Berakoetxeak Santi Onaindiaren MEOE lanari egindako kritikan Inauterietako koplak ezagunetz gainera beste ezezagun bat eman zuen argitara (Baraiazarra: 2008):

Borthak eder leiharrez,
borthal-atzia intxaurrez;
etxe huntako etxek'anderiak
bulhar-artia zilharrez¹⁸.

Kopla hau Ignazio Berakoetxearen azalpen batekin dator: «Sallaberry-k onako beste aapaldi au ere ba dakar, jasotzea merezi zukena». Ignazio Berakoetxearentzat ahapaldi interesgarria zen, beraz, gorago idatzitakoa. Ignazio Berakoetxeak koplak hau Salaberri zuberotarraren paperetatik transkribatu zuen. Paper horiek galdutzat eman behar dira, ez baitira aurkitzen mauletarraren funts edo ondarean. Salaberri bildutako koplako irudi eta hitz hoshideak desberdinak dira. Orain arteko kopletan ikusi ez dugun irudia dator: *Borthak eder leiharrez/ borthal-atzia intxaurrez*. Oldozkuna, ordea, ezagunagoa da: *etxe huntako etxekanderiak bulharartia zilharrez*. Salaberriren koplak non bildua zen ez dakigu, Zuberoako kantak ezezik Baxenafarroakoak ere biltzen baitzituen. Aita Donostiak 1938ko GH aldizkariko musika-gehigarrian koplak bera argitara zuen. Aita Donostiaren aldaera, ordea, ez da Zuberoakoa Nafarroa Behereko Iholdikoa baizik. Aita Donostiak bere lanean iturria garbi adierazten du: Jesus Elosegik bidali zion Jon Oñatibiak bildu zuen Iholdiko Inauterietako bost koplako sail bat¹⁹.

Aezkoan ere Azkueren eta L. Akesoloren testigantzen arabera, eske-kopla zaharrak kantatzen ziren. Aezkoan notatzen edo gorapatzen zena ez zen ez nagusi jauna ez mutil ezkonberria, herriko bikario jauna baizik. Aezkoan usadio zaharreko koplak kantatzen ziren Eguberrietan. Eguberrietako koplak zaharrak bildu zituen lehena, guk dakigula, Azkue izan zen. Aezkoako koplak bilduma bi lekutan argitara zuen, bere kantutegian erronda-kantuen

¹⁸ Karmel aldizkariko artikuluan *Borthak eder leiharrez* dator. *Borthak* delakoa huts garbia denez gero, artikulugilearekin hitz egin eta jatorrizko dokumentuan *Borthak eder leiharrez* dela adierazi dit.

¹⁹ Aita Donostiaren artxiboan aurkitzen da Jesus Elosegiren eskutitza. Jesus Elosegik 1938ko urriaren 16an idatzi zion. Aita Donostiak, beraz, karta hartu bezain laster argitara zuen koplak sailtxoa.

sailean, 981. zenbakian, eta, 1927an, Aezkoako bilketa-materialekin egindako lan monografikoan. Hona zer bildu zuen, Garaioan, Katalina Juanpe-rezen ezpainetatik (Azkue: 1927):

*Sugea dabil bularrez,
bere bizi bearrez;
orra bada ta bikario jaun orrek
bular-arte a zilarrez
bular-arte a zilarrez eta
bi begiak urre-botonez.*

Hona aldatu dugun Aezkoako ale hau gorago jarri ditudan koplak tan-kerakoa da. Ohargarria da hiru koplak hauetako irudia guztiz desberdina dela. Lehenean, *ardiak dabilza larrez/ belarrez ase beharrez*; bigarrean, *mendiak bete belarrez, begi ertzetan nigarrez*; hirugarrenean, *sugea dabil bularrez,/ bere bizi bearrez*. Beherago hirugarren honen aldaera bat ere eskainiko dugu: *sugea dabil negarrez/ erioaren beldurrez*. Irudi eder eta misterioitsu hauek bigarren parte edo pentsamendu oso antzekoa izango dute denek: *norbaitek –dela gizon edo emakumea– bular-arte(a) zilarrez*. Bigarren koplako *Mendiak bete belarrez/begi ertzetan nigarrez* irudia amodiozko kanta ezagun baten hasiera dugu eta behiala artikulu monografiko bat eskaini genion. Hiru-lau irudi desberdin dituen koplak eder honek Azkueren eremuan jarraipena du kateamendu polit baten bitartez: *bular-arte a zilarrez eta, (---)*. Jarraipen edo kateamendu honetan, bestalde, beste galdera bat sortzen zaigu. Zer ote da *bi begiak urre-botonez* hori? Galdera honek ez du erantzun samurra. *Urre-botoia* landare baten izena da «botón de oro, ranúnculo». Silvain Pouvreauk ere ba omen dakar *urte botoia*. Zer esan nahi du, ordea? Erantzun presta izan arren, ez da guztiz gogo betegarria. M. Lekuonak idatzi zuenez, koplak zaharretan urte-zilarrak agertu ohi dira. Ohikoa dugu urtearen ondoren zilarra aipatzea, eta alderantziz. Urte-zilarrak aipatzen dituzten koplak gotikoak dira, Oiartzungo maisuaren esanetan. Begiak, ordea, urte-botonez izateak zer esan nahi du? Bestetan ere agertzen ote da? Gure artean argitaraturiko koplak bildumarik zaharrena Patri Urkizuk argitaratua da. Koplak sail hau Zugarramurdikoa da eta hogeita bi ale ditu. 1827. urtean argitara emandako liburu batean dago eskuz traskribatua koplak sail zaharra (Urkizu: 2009). Etxeko andrearen nota edo gorantza hauxe da:

*Hortzak dituzu zilarrez,
begiak urre botoinez,
gaur zurekin etziten denak
biar urrikirik ez.*

Kopla honetan ere, Azkuek Aezkoan bildutakoan bezalaxe, bi begiak urre botonez agertzen dira. Begiak urre botonez dituela esan baino lehen, hortzak zilarrez dituela ikusten dugu. Aezkoako *bular-arte*a zilarrez, Zugarramurdiko kopla sailean *hortzak dituzu zilarrez* bihurtzen da. Batean eta bestean bateratasun harrigarriak, beraz. Gure galderen erantzunerako, bestalde, badira kopla hauen aldaera gehiago. Lino Akesolo karmeldarrak, 1943. urte inguru-tsuatan, Aezkoara bidaia bat egin zuen Eguberrietan eta han entzundako kopla zahar, bizipen eta abarrekin artikulu zoragarri bat egin zuen: *Aezkoako eguberriak jarraitzen ote dute?* (Akesolo: 1973). Artikuluaren izenburuak berak, garbiro ikusten denez, zalantzan jartzen du Aezkoako koplaren transmisioa eta are bertako euskara ere. Kronika honetan ikusten denez, Akesolok Azkuek baino, gutxienez, hogeitau urte geroago egindako bidaian, Azkuek baino osoago ematen ditu koplak. Bestela esan, Azkuek kopla bat osorik eta segidaren erdia batu zuen. Akesolok bi kopla oso-osorik bildu zituen:

*Sugea dae bularrez,
bere bizi beharrez.
Orra bada (...) jaun noble orrek
bulararte zilarrez.*

*Bulararte zilarrez eta
begiak urre galonez,
begiak urre galonez eta
biloa laztan-belarrez.*

Akesolok testua ulergarriagoa egiteko zehaztasun bakar bat ematen du, *dae* adizkiak «doa» «dijoa» esan nahi duela. Azkueren bi koplari falta ziztzaion kopla erdia bihurki baten bidez egiten da: *begiak urre galonez eta biloa laztan-belarrez*. Azkueren Aezkoako erduan eta Urkizuren Zugarramurdikoan ez bezala, oraingoan begiak *urte galonez* daude. Oraingoan ere, bestalde, galdera berri bat egin genezake. Zer ote dira *urte galonak*?

Oraingo Aezkoako kopletan ere, bestetan bezalatsu, zilarrezko janzkera bat aurkitzen dugu. Delako janzki hau Azkuek modu lauso samarrean

«pechera» itzultzen du. Zer ote da, bestalde, Lino Akesoloren eredu osatuagoan aurkitzen dugun *laztan-belar* delakoa? Telesforo Aranzadik Lekeition bildu zuen «lastan-bedarra» *Picris hyeracioides* omen da. «Laztan-belar» hitzaren oso antzekoa *amodio-belarra* da. *Laztan-belarra* eta *amodio-belarra*, beraz, bat ote dira? *Amodio* eta *laztan* bat etortzen badira ere, *amodio-belarra* «*cacaulis latifolia*» (ahozko kantuetan, bestalde, uste baino gehiago dokumentatzen dena) eta *laztan-belarra* ez dira bat. Ez dakigu, bestalde, zertarako erabiltzen zen garai batean *laztan-belarra*. Ez dakigu, era berean, zergatik *laztan-belarra* jartzen zen ilean. Bi koplak hauek guztiz misterioitsuak egiten zaizkigu eta garai zaharretako oihartzun eta misterio zulatu ezina dakarkigute. Gure koplak bi hauek, edo oso antzekoak, bestetan ere aukitzen ditugu. Hona, Isidor Baztarrikak argitaratu zituen Ataungo Santa eske koplak sailean, 104-105. zenbakietan, bi koplak hauek (Bastarrika: 1982):

*Sugea dago negarrez,
erioaren bildurrez;
orra bada ta (izena) orren
musue laztan-belarrez.*

*Musue laztan-belarrez
bularterie zillarrez,
askok beretzat nai lokea baño
ama bereak eman ez.*

Ataungo eske-kopladian oso antzeko koplak aurkitzen dugu. Eredu berri honetan *sugea bularrez* ibili beharrean, *negarrez* eta *erioaren bildurrez* ari da. Orain arteko adibideak aztertzen baditugu, *sugea* eta *bularrez* hitzen artean *joan*, *ibili* edo *egon* aditzen forma jokatu aurkitzen dugu: *doa*, *dabil*, *dago*. Hitz horiek ezer guti eransten dute. Uste dugu koplak zaharretako irudi gehien hasiera bezala *sugea eder bularrez* edo *sugea eder negarrez* izango zela.

Ataungo bigarren koplak *laztan-belar* hitza ere aurkitzen dugu, baina ez aurrekoan bezala *biloan*, *musuan* baino. Aurreko koplak aurkitzen genuen misterioa ez dugu zulatu bi koplak hauekin, beste bat agertu baino. Hitzei gagozkiela, zer ote da *bularterie* delakoa? Galdera honi erantzuteko

jari ditzadan Azkuek Zumaiako Salvadora Zabalari bildutako bi koplak (EY IV-122):

*Lezok urre du erria,
Pasaiak Errenteria,
erostunean pasa diteke,
damea, zure gerria.*

*Erostunean gerria,
mardula bularteria,
neure ustean ez da faltako
zuretzat merkataria.*

Azkuek *erostunean* bi aldiz transkribatu arren, «eraztunean» izan behar zuela ongi asko zekien. Dударik ez dugu, bestalde, berriemaileak hala esango ziola eta itzulpena ere «sortija» hitzarekin egiten du. *Mardula bularteria* «rollizo el pecho» itzultzen du. Hemen, beraz, Azkuek ez du ikusten *bular-arte*a itzulpenean ikusten zuen «pechera» edo zerbaitez egindako janzkia. *Bular-arte*a eta *bularteria/-gia*, beraz, bat dira gure ahozko kopleto adibideetan. Pena da, beraz, Duvoisinek bere hiztegian S. Pouvreuren *bulhar-arteria* hitzaren testigantza inolako adibiderik gabe ematea.

Goraxeago ikusi ditugun kopletan, Aezkoa zein Ataungoetan, *sugea dae bularrez* edo *sugea dabil bularrez* edo *sugea dago nigarrez* imajina aurkitu dugu. Imajina hori edo oso antzekoa, ordea, ez dugu bakarrik eske-kopletan aurkitzen. «Lohibarreko alhabaren khantorea» amodiozko kantuan ere *sugia eijer nigarrez, bere begi ñabarrez* irudia aurkitzen dugu. Hona kantua Chandra kaierean datorren bezala:

1

*Goity eta beheiti banabilasu ni bethy
Libertixen nis ounesky ene gaste laguneky
ene gaste laguneky, nahiagoriq Çourekky*

2

*Prima eijera nousira baliman leihouan beharja
Urhez eta diamantex betheriq disut sakola
betheriq disut sakola idokadaçu leyhousa*

3

*Aren ciauury eneky eneky eta segrekya
gaourko gai hountan nahi deresout nihaureq botha idoky
nihaureq bortha idoky libertixeko çoureyq*

4

*Sugia eyjer nigarez bere begi gñabarez
Lojibareko neskacha hory ari duçu nigarez
ari duçu nigarez estela eskonturen beldurez*

Kantu honen azken ahapaldia honelaxe aldatuko genuke gaurko grafia:

*Sugia eijer nigar[r]ez, bere begi ñabar[r]ez,
Lojibar[r]eko neska[t]xa hori ari düzü nigar[r]ez,
ari düzü nigar[r]ez ez dela ezkontüren beldür[r]ez*

Ahapaldi honen irudiari gagozkiola, harrigarria da sugea eder izatea negarrez; eta are arrigarriagoa bere begi ñabarrez. Azkuek, Azkainen, ahapaldi horren antzerako beste bat bildu zuen. Azkaingo ahapaldian negarrez doan pataria ez da sugea, erbia baizik. Hona hemen (CPV, 451 zenbakia):

*Erbia doa lasterrez ihiztarien beldurrez;
herri humetako neska gazteak urturik daude nigarrez
[urturik daude nigarrez] ezkon eztaiten beldurrez.*

Ahapaldi horren antzekoa Xahoren kantutegian ere aurkitzen dugu. Lehen ahapaldia, oraingo eredu honetan, bigarren ahapaldi batez osatua dago.

*Erbia doua lasterrez ihizlariaren beldurrez
Hiri hountako nezkatchak gaztiak hourturik daude nigarrez
[hourturik daude nigarrez] eskoura ez dizten beldurez*

*Ené bihotça çouria da çouria nourená othé da
Nic béçain maïte citiénik Etçaiçu jiten borthala
[Etçaiçu jiten borthala] aghuer cité leyhora²⁰.*

²⁰ Kantu bera beste ahapaldi batzuekin kantutegi berean aurkitzen da: *Banabilazu ni bethi*. Hemen jarri dudan lehen ahapaldia beste eredu batzuetan ere aurkitzen da.

Orain gure lehen koplara itzulirik, joan gaitezen Zuberoara eta ohar gaitzen etxeko jaunari zuzendutako *eder zeruan izarra* hasiera duen koplara bera, edo aldaera oso antzekoa, kantatzen zela Zuberoako Larraine herrian, urtarileko azken larunbat arratsean edo Ganderailu bezperan (Urkizu: 1973):

*Hur onduetan lexarra,
zelü goretan izarra;
etxe hortako X hori
ürhez dizü bizarra.*

Gorago jarri dugun koplara «nagusi jaunaren» nota edo gorantza dugu. Koplara hori Euskal Herri osoan kantatuko zen arren, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Zuberoako tradizioan aurkitu dugu. Ezagutzen dugun orain arteko eske koplara-sail ederrena Isidor Bastarririk Ataungo eskuizkribu batetik transkribatu eta *Jaunaren deia* aldizkarian argitaratu da. Koplara sailik opa-roena eta zaharrena dela deritzogu saihets guztietatik begiraturik. Guztira 119 koplara dira eta denak tradizio zaharretik bilduak. Guk aztertzen dihardugun koplara etxeko jaunari zuzendua izan beharrean, nagusi gazteari edo zaldun zaharrari zuzendua da. Koplara saileko 27. zenbakia daramana da. Hona hemen:

*Ostri altuan izarra,
erreka aldean lizarra;
etxe ontako nagusi gazteak
urre gorrix du bizarra.*

Orain arte beste inon ikusi ez dugun sarrera du koplara honek: *Ostri altuan izarra*. Ditugun eredu gehienetan *zeru altuan izarra* edo *zeruan eder izarra* aurkitzen dugu; oraingo honetan, ordea, *ostri altuan izarra*. Badakigu zerua, izartegia, gure buruaz goitikoa, begiak gora luzatu eta ikusten dugun zeru-sabaia, ez hil ondoren ikusi eta gozatuko dugun hori, hitz-konposizioan *ost-/ortz-* dugula: ostarku, oskorri eta abar. Hitz solte bezala, ordea, ez dugu ezagutzen adibiderik. J. M. Barandiaranek ematen digun Ataungo testigantza zoragarri bat badugu, ordea (Barandiaran: 1954):

Ozkarbiari, toki batzuetan, *Ostri* deitzen diote. Antxen mugitzen dira izarrek eta sartzaldetik etzaterakoan «itxas gorrietan» sartzen dirala diñoe, lurpetik ibilbideari iarraitzeko.

On Joxemielek esaldi bakar honetan hitz baten testigantza eman beharrean birena ematen du, *ostri* eta *oskarbi* hitzena. Eta *oskarbi* hitza bete-betean duen beste kopla bat aurkitzen da Ataungo kopladian. Hona hemen 77 zenbakia duena:

*Gure errian ardoa merke,
kuartilloa zazpian;
zu bezalako mutillik ezta
oskarbiaren azpian.*

Kopla honetan *oskarbiaren azpian* delakoak «zeru garbiaren azpian» esan nahi du hitzez hitz. Zeruaren azpian ere izan daiteke.

Kopla zaharren inguruko iruzkin honetan zenbait kopla zaharretan aurki ditzakegun arkaismo eta misterioen iruzkin laburra egin nahi izan dut. Badiara askoz gehiago ere, jakina.

3. Gipuzkoatik, Mutriku eta Ondarroan barrena, Markinara

Badakigu Humboldt 1801eko maiatzaren lautik boatera Markinan izan zela. Humboldttek, Markinan, Juan Antonio Mogeekin bat egin zuen. Jakitun prusiarrak euskarari jakitun ziren euskaldunak ezagutzeko irrika handia zuen. Humboldttek 1801eko udaberrian Markina berri eta itxuraldatu bat ezagutu zuen. Zenbait urte aurrerago, kaleak harlauzaz galtzatu zituztenean, dotoretasun handia eman zioten hiriari. Euria egiten zuenean kaleetako lokaztegia ikaragarri gutxituko zen. Harresi barruko goiko sarreran, Goiko Portalean, iturri berri bat egina zuten 1788. urtean. Abeletxe baseeriko iturri buruko urak lurpean barrena herriraino ekartzea kostu handia zen orduan. Iturri berri hori hiria besarkatzen zuen harresiko goiko sarreran zegoenez gero, Goiko Portaleko Iturria izango da markinarren ezpainetan. Humboldt Markinara etorri zenean, Goiko Portaleko Iturriak hamairu urte besterik ez zuen. Iturriko zutabea, gainera, Mogelen beraren testuaren argibidea zuen (Arejita: 1993). Jendeak artean ondo gogoan izango zuen Domingo Aulestiarte harginak iturriko zutabe nagusia eraikitzen igaran zituen ehun egunak.

Ama gureari entzuna diot bere ama zenak esaten ziola, kale-etxeetara ura ekarri baino lehen, Goiko Portaleko Iturrira joaten zirela emakumeak aldra-

ka, ur eske, buruan edarra zutela. Buru gainean sorkia bigungarritzat hartu eta gainean edarra zutela emakume aldra handia biltzen omen zela iturri inguruan, txandan-txandan edarra betetzen zutela. Iturriko ur-hots gozoa emakumeen txilimala eztiarekin nahaste zoragarria baino zoragarriagoa izango zen. Humboldttek gaur begi-bistatik aldendu diren baserri-andreen asto-mandoak ere kalean ikusiko zituen esne eta abarren karrean.

Humboldttek gida eta maisu aparta aurkitu zuen Markinan. Jakitun prusiarrak hogeita hamairu urte zituen eta Mogelek berrogeita hamasei. Humboldtten guztizko garaikidea Prai Bartolome Santa Teresakoa zen (1768-1835), markinar peto-pettoa, Iturreta auzokoa. Prai Bartolome karmeldarra Markinako Karmengo komentuan zen garai hartan, baina artean idatzi gabe zituen bere euskarazko lanak. Mogelen bi ilobak, Juan Jose eta Bizenta, hogeita hamar urteko gazteak ziren. Juan Jose, Oñatin abadetza-ikasketak egiten ari zen; Bizenta, ordea, Markinan.

Juan Antonio Mogel eta Humboldt bi mundu arras desberdinetatik zetozen. Bata, Europa osoa astinduko zuen Erromantizismoaren lehen eragileetakoa zen; Mogel, ostera, mundu zaharrekoa, lege zaharreko ilustratu fededuna. Biek, bi mundutakoak izan arren, elkar ondo hartu zuten. Bata, atzerritar jakingosea zen, eta, bestea, maisu euskalduna. Mogelek urtebete lehenago, 1800ean, Iruñean, bere lehen liburua argitaratua zuen: *Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac*. Liburu hau Gipuzkoako euskararen idatzia zen, orduko euskalki literarioa giputza baitzen. P. Antonio Añibarrok, 1802an, Bizkaiko euskararen *Escu liburua* argitaratu zuen²¹. Liburu honen zabalkundea ikusirik eta markinarrek bultzaturik Mogelek, 1803an, *Confesiño ona* Bizkaiko euskararen eman zuen argitara²².

Ordurako Mogel ez ote zen hasia *Peru Abarka* idazten? Badakigu 1802ko otsailaren 26rako *Peru Abarka* bukatua zuela eta maiatzaren 5etik otsailaren 26ra hamar hilabete exkax daude. *Nekazale* edo *atxulariek* –orduan Markinan esaten zen bezala– arreta handia piztu zuten Prusiako jakitunarengan.

²¹ Liburuaren izenburu osoa *Escu liburua, eta berean eguneango cristiñau cereguñac* da.

²² Mogelen obraren izenburu osoa hauxe da: *Confesino Ona edo Ceimbat gauzac lagundu biar deuseen Confesiñuari ondo eguiña izateco. Ateraten dau argitara Bizcaico eusqueran...*

Euskaldun nekazariak erabiltzen zituzten behi edo zezen-laruzko oinetakoak harrigarriak ziren bidaiari atzerritar ohartuarentzat. Humboldttek bere bidaia-liburuan luze hitz egingo du abarken gainean. Izan ere, Mogelen lanik eza-gunenaren protagonista nagusia Peru Abarka da. Berez, jakina, *Peru Landetako* da, baina autuak eratzeko izen modura *Peru Abarka* jarriko du idazleak. Ez dugu ahortzi behar, bestalde, orduko baserritarrak, *nekazale* eta *atxulari* hitzez gainera, beste modu batera ere izendatzen zirela: *abarkadunak*.

Mogel eta Humboldt bi-biak ziren euskaltzaleak, euskara-maiteak, asaba zaharren hizkuntza bihotzetik maite zutenak. Euskararen edertasunak age-riago uzteko Humboldttek Josef Maria Murga markinarra autore latindar famatuak itzultzera bultzatuko du, baina Murgak itzuli beharrean Mogelek egingo du itzulpen-lana. Humboldttek Euskal Herrira egindako bidaiatik itzuli ondoren, 1801eko uztailaren 20an, klasiko latindarrak euskarara itzul-tzeko eskea egin zion (Garate: 1935):

Vous, Monsieur, Vous occupez trop peu de Votre langue nationale à ce qu'il m'a paru pour que j'aye pu oser demander quelques secours pour cette entreprise toujours assez difficile pour un étranger. Vous avez certainement des occupations plus importantes à suivre; cependant Vous m'obligeriez infiniment si Vous vouliez vouer quelques instans (sic) seulement à un petit travail qui néanmoins me serais bien précieux. Je désirerais donner un petit échantillon de la langue elle-même. Comme on n'a que de livres de dévotion je me pourrais le choisir que de là ou du Nouveau Testament. J'ai même déjà fait pour cet effet une version exacte, verbale et interlinéaire dans le genre dont Des Marais les dresse des auteurs anciens de quelques morceaux de ces livres. Mais de quel prix il serait d'avoir un seul chapitre ou de Tacite ou de Salluste ou de Tite-Live rendus dans Votre langue? Ne pourrais je point obtenir ce présent de Vous, Monsieur? N'allez pas me dire que Vous n'avez pas assez étudié Votre langue pour cela. Je sais par bien des personnes, qui me l'ont assuré souvent, que Vous la parlez aussi correctement que'élégamment. Ne me renvoyez pas à quelques autres personnes que je consultais sur Votre idiome en Bis-caye. Vous m'avez permis de Vous parler sincèrement, je puis donc Vous dire avec franchise que quelques respectables qui soient ces personnes, quelque profonde leur connaissance de Votre langue, il est

impossible qu'elles fassent une traduction avec la même énergie et la même élégance qu'homme nourri de la littérature ancienne et de la plus belle des nations modernes ainsi que Vous, Monsieur. Même le chapitre le plus court me serait extrêmement précieux et il serait un monument durable de Vos bontés pour moi.

Humboldttek Josef Mari Murgari egindako eskabide dotore honek ez zuen bultzatu klasiko latindarrak itzultzera. Josef Mari Murgak, 1801eko irailaren 24an, honelaxe erantzun zion jakitun prusiarrari:

Para dar a Vm. razón de los papeles que le envío, debo empezar por decir que no habiendo podido sus atentas expresiones hacerme desconocer mi insuficiencia, recurrí desde luego al señor Moguel para que traduxese los retazos que le pareciese de Salustio, T. Livio, Tacito y Ciceron, y yo por decir que hacia algo pensaba poner algunas notas, que era oficio mas propio de mi pereza. Hizo aquel amigo con la mejor voluntad lo que se le pedía y añadió un trozo de Q. Curcio, pero por razones que hubo para ello, usó del Dialecto Guipuzcoano *que yo apenas entiendo*; y fuera de esto eligió en todos los Autores citados arengas, que es donde la traducción, que Vm. quería literal quanto fuese posible, exige mayor libertad; y de esta se tomó tanta que a veces pareció a mi escrupulosa conciencia que no solamente ponía unas figuras por otras, sino aun que se apartaba del sentido. Asi me hallé con que su trabajo, aunque mui apreciable, y digno de remitirse a Vm. con elogio como lo hago, no era propio para los fines que Vm. deseaba, y hube de cansar de nuevo al mismo amigo, rogandole que me traduxera en ambos Dialectos Vizcaino y Guipuzcoano, y con la mayor exactitud que permitiera el genio de ellas, las dos historias de *Damocles*, el favorito de Siracusa, y del Maestro de los niños de Faliscos que por su sencillez recomienda y copia Rollin en el Tratado de los Estudios.

J. M. Murgaren eskutitz honetan garbi ikusten da berak egin behar zuen lana Mogeli erantsi ziola. Lehen itzulpena gipuzkerara izan arren, Murgak berak hobeki ulertzeko bizkaierara ere egiteko agindu zion.

Humboldt Markinan egon eta handik urte batera argitara zuen Mogelek *Versiones Bascongadas* liburuxka. Itzulpen horretan Humboldtten eraginez egindako lana dela zioen Mogelek:

Un noble y sabio Prusiano, llamado Varon de Humbolt se dedicó en Paris a la lectura del Arte y Diccionario Bascongados. Logró leer allí la version Bascongada del Nuevo Testamento, y algunas Obras de Oyenarto. Ha venido desde aquella Capital sin mas objeto que el tratar en estos Países con los mas versados en este idioma. Le he tratado, y quedè admirado de las luces que adquiriò, de las reflexiones que hacia, de la agudeza de sus preguntas; y como estaba instruido en las lenguas Hebrea, Griega, Alemana, y otras del Norte, se hacia luego cargo del artificio de la conjugacion, y de los primores de las inflexiones. Venia comisionado de alguna Sociedad de Sabios, que intentan descubrir las lenguas matrices, primitivas, ù originales. Va à publicar en breve alguna obra sobre este idioma despreciado por muchos Sabios Españoles, que debian confundirse con semejante exemplo. El Sabio Prusiano quiere demostrar que el idioma Bascongado es eloqüente, puro y fecundo. Por su suplica y influxo, he hecho las versiones de varias arengas, y oraciones selectas de Q. Curcio, Tito Libio. Tacito, Salustio, y tambien las de los dos exòrdios de las dos oraciones de Ciceron contra Catilina: todas piezas de la mayor elegancia.

Mogelek pasarte honetan zenbait berri jakingarri ematen baditu ere, ez du adierazten, ordea, zein izan zuen benetako bidea autore latindarrak euskarara itzultzeko. *Por su súplica e influxo* (hots, Humboldtten erreguz eta eraginez) egin zituela itzulpenak dioenean, ez du kontatzen lehenengo Humboldttek J. M. Murgari eskatu ziola eta Murgak ezintasuna ikusirik Mogeli berari.

Harrigarria da, bestalde, Humboldtten euskararenganako jarrera. Erdaldun jakitun askok, eta are euskaldunek berek, askotan baztertzen zuten hizkuntza zaharra goratzen du jakitun prusiarrak. Euskararen orduko egoera eskoletan negargarria zen. Euskaraz hitz egiteagatik umeak gogor zigortuak izan ohi ziren. Umeren batek euskarazko hitzen bat esanez gero, eraztun bat ematen zitzaion. Larunbatean eraztuna zuen azken umea gogorki zigortua izan ohi zen. Eratzunaren kontu krudela autore batek baino gehiagok aipatzen dute (Garate: 1976), baina ez, ene ustez, Mogelek bezain zorrotz (Mogel: 1891). Jakitun prusiarrak berak eratzunaren kontua aipatu gabe ez du utziko.

Baina noan berriro ere jakitun prusiarraren ahozko literatura-asmoetara. Humboldtentzat herri-ipuina eta herri-kantu nazionalak garrantzia handia zuten. Herri-jakintza zaharra biltzea helburu zuten erromantiko zaharrek. Bidaia-liburuan kontatzen zuenez, behin Bermeora iritsi ondoren, gure bidaiari prusiarrari, Izaro irlatxoa aurrean zuela, mandazain hiztun batek elezahar bat kontatu zion. Elezaharra entzun ondoren, Hero eta Leandroren istorio bera zela diosku Humboldtkek. Euskal Herrian egonaldi luzeagoa egin balu, holako istorioak bilduko zituela aitortu zuen gero. Ideia hau guretzat orain guztiz zentzuzkoa eta normala da, baina garai hartan guztiz berritzailea zen. Nola bildu herri-ipuina herritarren ahoetatik? Nola bildu elezaharrak, kasu honetan, kasurako, norengandik eta mandazain hiztun batengandik? Zeregin horretan Europa osoan Grimm anaiak hasi ziren 1806 urte inguruan, eta Humboldtten ideia eta testigantza Grimm anaienak baino lehenagokoak dira.

Humboldtkek Euskal Herrirako zituen asmoak, bere bidaia-liburuan ez ezik, 1817 urtean argitara emandako *Berichtigungen und Zusätze* lanean ere eman zituen:

Es war einer der hauptsächlichsten Zwecke meiner Reise durch Biscaya, die Spuren aufzusuchen, welche aus der ältesten Geschichte und dem ältesten Zustande des Volks etwa noch in alten Sagen oder National-Gesängen übrig geblieben seyn möchten. Ich fand mich aber bald gänzlich in der Hoffnung getäuscht, hiervon etwas Bedeutendes aufzufinden. In keinem Lande vielleicht ist es dem mißverstandenen Eifer der ersten christlichen Bewohner so sehr gelungen, alle Ueberreste des heidnischen Alterthums zu vernichten, als in diesem. Weder von der Verfassung, noch der Religion, noch den Sitten der alten Vasken kann man sich einen, nur irgend befriedigenden Begriff verschaffen, und kaum haben sich einige dürftige Spuren dieser älteren Zeit in der Sprache, den einheimischen Benennungen der Monathe und Wochentage, einigen wenigen (da der gröfsere Theil auch durch die Nahmen der Heiligen verdrängt ist) Eigennahmen, National-Tänzen, Volksmärchen u. s. f. erhalten. National-Liedern habe ich schlechterdings nur das folgende, leider höchst mangelhafte Fragment aufgefunden, dessen Alter selbst noch, aus mehr als einem Grunde zweifelhaft scheinen kann.

Pasarte hau, luzetxoa bada ere, guztiz interesgarria delako aldatu dut hona. Herri-literaturaren edo, zehatzago esan, ahozko literaturaren lehen bilketak, Alemanian, Erromantizismoaren eraginpean gauzatu ziren. Alemanian sortu zen Erromantizismoak Alemanian berean aurrena, eta gainerako Europako herrietan hurrena, izan zituen bere fruituak. Lekuan lekuko hizkuntzei garrantzia eman zitzairen Erromantizismoaren eraginez. Lekuan lekuko hizkuntzen artean Humboldtentzat euskarak berebiziko garrantzia zuen: euskarak, Europako hizkuntzarik zaharrena zen neurrian, zahartasunaren araberrako inportantzia zuen. Alemaniako *intelligentsia* osatzen zuten gizon aurreratu eta argituak –Europako lehen erromantikoek– ipuin zaharren eta kantu nazional zaharren bila abiatu ziren. Goraxeago aipatu ditudan Grimm anaiak *Schwarzwald* edo Alemaniako Oihan Beltzean barrena ipuin bila aritu ziren hainbat urtetan. Kantu zaharren bilako ahaleginean Jacob Grimmek Parisko Bibliothèque Nationaleko paper zaharrak ere arakatu zituen. XVIII. mende-bukaerako eta XIX. mende-hasierako lehen erromantiko hauek izan ziren herri-ipoin eta esaundak zein kantu nazional zaharrak biltzeko premia gorria ikusi zuten lehenak.

Ahozko literaturari nagokiola, Humboldtten pasarte honetan Alemanian sortu berri zen Erromantizismoaren ezaugarriarik oinarrizko eta baliotsuenak datoz. Euskal Herrian barrena (*Biscaya* dio zentzu zabal batean) garai zaharretako historia-arrastoak bilatzera etorri zen, esaunda eta kantu zaharren bila. Kristautasunak ezabatu gabeko jentilitate edo aintzinateko garai paganoetako herri-althorak bildu nahi zituen, direla kantu nazional zaharrak, direla herri-ipoinak. Zoritxarrez, ordea, garai zaharretako estadioko aztarnak hizkuntzan bakarrik gelditzen direla dio. Hilabeteetan eta asteko izenetan eta zenbait izen zaharretan izenik gehienak izen kristauek ordezkatu dituzte izen pagano zaharrak. Kantu zaharrez denaz bezainbatean, ordea, bakar bat aurkitu duela dio. Kantu hori non eta nondik aurkitu duen adierazteko honako pasarte hau dakar aurrekoaren ondoren:

Es wurde mir im Lande selbst mitgetheilt, und rührt aus einer in mehr als 14 Folio-Bänden bestehenden Manuscripten-Sammlung her, welche ein gewisser Juan Ibañez de Ibarquen machte, als er um das Jahr 1590, den Auftrag erhielt, die Archive von Simanca und von Vizcaya zu durchsuchen. Fünf dieser Bände befanden sich noch

zu meiner Zeit in dem Hause des Herrn Illugartegui in Marquina, und in einem derselben steht das gegenwärtige Bruchstück, Iburguen fand, wie er dabey anmerkt, diefs Lied aus einem alten, schon halb von Würmern zerfressenen Pergament, es war sehr lang, er begnügte sich aber, nur die hier folgenden 16 Strophen abzuschreiben, Der Ueberrest ging unstreitig nachher verloren.

Humboldték pasarte honetan dioenez, Juan Iñiguez Iburguenek 1590. urte aldera Simancas eta Bizkaiko artxiboak ikertzeko enkargua hartu zuen. Liburu edo tomo horietako bost Mugartegiren etxean daude (Humboldték *ILLugartegui* idazten du, hasierako M- hori gaizki irakurri edo transkribatu duelako), Markinan, eta horietako batean aurkitzen da kanta baten puska. Iburguenek pergamino zahar batean aurkitu zuen kantua eta delako pergaminoa harrek desegina edo pipiak jana dago. Kantu hori oso zaharra zen eta hamasei bertso edo estrofa kopiatu zituen bakarrik. Kantu oso baten puska bat baino ez zuen idatzi. Hortik ulertzen da gure bi pasarte hauen buruan datorren izenburua: *Fragment eines Altvaskischen Liedes*, euskaraz «euskal kantu zahar baten pusketa».

Pasarte honetan *Leloren kantua* transkribatzen du Humboldték. Ezkerrean euskarazko testua eta eskuinean itzulpen alemana. Delako *Leloren kantua* euskaldunek erromatarren kontra Augustoren denboran egindako gudu baten kantu zaharra omen da. *Leloren kantuaren* ondoren beste zenbait zehaztasun argigarri ematen ditu. Hona guri dagokigun interesgarrietakoa:

Ich bin bey der Uebersetzung dieses, in einigen Stellen sehr dunkeln Liedes dem Commentar eines Biscayischen Gelehrten gefolgt, und behalte di Erläuterungen der einzelnen Wörter meiner ausführlichen Schrift vor.

Humboldték argitaratu zuena 1817an testu luzeago baten laburpena izan zen. Testu hori, jakina, Iburguen-Cachopinen kronikan datorrena da (Urki-jo:1922). Kantuaren itzulpena egiteko bizkaitar jakintsu baten iruzkinari jarraitu dio (*Commentar eines Biscayischen Geleherten gefolgt*). Bizkaitar jakintzua Juan Antonio Mogel bera da. Obra honetan ez du Markinan bizi eta hil zen idazlearen izenik ematen, baina badakigu Juan Antonio Mogelek in egon zela Markinan *Die Vasken* bidaia-egunkarian Juan Mogel (hots, izen laburtua duela eta ez Juan Antonio, markinarrek ere hala, *(d)on Juan*, deituko zioete-

lako?) aipatzen duelako eta gorago aipatu dugun *Versiones* liburuxkan Mogelek berak aipatzen duelako jakitun prusiarra. *Leloren kantuari*en iruzkina harrigarria baino harrigarriagoa irudituko zaio bati baino gehiagori. Testuarien azalpena luzea da jatorrizko Iburguen-Cachopinen kronikan. Guk baka-rrik Uchin hitzari dagokiona jarriko dugu:

Als August die Cantabrer besiegte, zogen sie sich auf einen hohen Berg zurück, auf dem die Römer sie durch Abschneidung aller Lebensmittel zur Uebergabe zu zwingen suchten. Auf diesen Umstand spielt das Lied, das, so viel man sehen kann, vom Cantabrischen Kriege handelt, an. Der Cantabrische Feldherr hiefs Uchin, Diefs scheint aus dem Gedichte selbst hervor zu gehen, Iburguen bestätigt es auch, als eine ihm sonst bekannte Sache, und setzt hinzu, dafs dieser Uchin nach dem Frieden nach Italien überging, dafs er auch Urtino hiefs, und dafs von ihm das italienische Geschlecht der Urbinos abstammt. So verdächtig auch durch diesen letztern Umstand seine vielleicht nur zur Bestätigung dieser Etymologie erfundene Erzählung wird, so ist doch gewifs, dafs *Urbium* ein Vaskischer Name ist. Als Ortsname bedeutet er einen an zwey Wassern liegenden Ort, und es gibt in Alava noch jetzt ein Dorf *Urbina*. Unmittelbar nach dem Frieden scheinen die Cantabrer einen Anführer Lecobidi gehabt zu haben.

Ez dago dudarik Humboldt Iburguen-Cachopinen kronikako kanta bateko azalpen fantasiatsua jatorrizko kronikatik itzultzen ari dela. Honela laburbilduko genduke Humboldttek dioena. Augustok kantabreak azpiratu zituenan hauek mendi garaietara ihes egin eta erromatarrek errenditza behartu zituzten. Kantabreen buruzagia Utxin zen. Delako Utxin hau bakearen ondoren Italiara pasatu zen. Delako Utxin Urbino ere deitzen zen eta honengandik Urbinotarrak datozela dio.

Pasarte hau ekarri dugu arrazoi batengatik baino gehiagorengatik. Antonio Truebak, esaterako, berrogeita hamairu urte geroago, 1871. urtean, *El valle de Marquina* liburuxkan, honela zioen:

Al descomponer y analizar el nombre de Arrechinaga he creido entrever en él un nombre personal. Esta observación es muy curiosa y no la debo omitir, valga lo que valga. El señor Amador de los Rios sospecha, como ya he indicado, que el monumento de Arrechinaga

se levantara para glorificar a un héroe o tributar una especie de culto a una virtud, sospecha tanto más admisible cuanto que era costumbre en los pueblos que podemos llamar primitivos, el levantar monumentos de toscas piedras sobre la sepultura de sus héroes. El nombre personal que creí hallar en el nombre local de Arrechinaga es el de Echin o Uchin, y si realmente hubiéramos de tomar por este nombre el diptongo *echin* que he interpretado por cosa suspendida, la traducción de Arrechinaga sería *sitio donde están las piedras de Echin*. Ahora bien: quién era Echin o Uchin? Echin o Uchin era el valeroso caudillo de los cántabros vizcainos en la guerra que estos sostuvieron por espacio de cinco años con las hasta entonces invencibles legiones de Octaviano Augusto. En el *canto de Lelö* cuya historia y traducción textual publiqué no ha mucho en la *Ilustración Española*, se nombra a Uchin en el concepto de capitán o caudillo de Vizcaya²³.

Arretxinagako ermitako harriak eta Utxin kantabreen buruzagia lotuta daude Antonio Truebarentzat. Humboldt Markinan zegoela Arretxinagara joan eta ermitako harrien lehen deskripzioetako bere egunkarian egin arren, ez du sartuko *Die Vasken* liburuan.

Humboldt, 1801eko maiatzaren bostean, sarrera-hitzaldia irakurtzen ari naizen etxe honetara, Mugartegi jauregira, etorri zen. Gu gauden etxe honetara berera etorri zen bidaiari prusiarra. Hemen elkartu zen Juan Antonio Mogeekin eta orduko Mugartegiko jauregiko nagusiarekin. Hemen berean eman zion «Leloren kantua» eta azalpena. Orduan handi-etxe honetako jabea Pedro Valentin de Mugartegi zen eta etxe honetan gordetzen zuen Iburguen-Cachopinen kronika. Mogelen idatzi ezagunak arakutzen dituenak «Leloren kantu»aren azalpena aurkituko du bere *Apologian* (Mogel 1891)²⁴. Lan horretan kantuaren xehetasun eta zehaztasun guztiak eman zituen. Mogelek eman eta 1817 urtean jakitun prusiarrak liburuan argitara-

²³ Testu honetako ortografia eta puntuazioa gaurkoturik eman dut.

²⁴ Honelaxe dio *Euskalerriaren alde* aldizkarian, 300 or.: «El escribano que nos ha transmitido, y cujos manuscritos los he visto y paran en esta Villa de Marquina en poder de D. Pedro Valentin de Mugartegui, Padre de Provincia, literato, se llamaba Juan de Iburgüen, que no se atrevió á hacer la versión castellana, y como él mismo dice, le hicieron varios sugetos bien instruidos en ambos idiomas».

tu zuen kantu honek oihartzun handia izan zuen Euskal Herri barruan ez ezik, baita gure lurrez kanpoan ere. Felipe Arrese Beitiak, esaterako, XIX. mendean, «Gure bandera» bertso-konposizioa honelaxe hasi zuen:

*Anboto dakust triste, bai, triste,
Negarrez Oi̇z-mendia
Euskaldun goyak danak diñoste
Ilten da zarra guztia;
Ill zan ill Lelo, ill Lekobide,
Ill zan ill zan Jaun Zuria,
Ill ziran gure gizon andiak,
Iya ill Euskal-erria,
Alan expada esan daiala
Arbola orrek egia.*

Humboldték *Leloren kantua* argitaratu ondoren, atzerrian zein gurean, oihartzun handia izan zuen. Hirurogei urte baino lehen, 1871. urtean, Antonio Truebak ustezko *Utxin* bizkaitar buruzagi baten izenetik Arretxinagako hiru harri erraldoietan bizkaitar buruzagiaren hilobia zegoela ondorioztatu zuen. Ondorioztatze hau, jakina, gaur eguneko ikuspegitik legendisten asmazio garbi bat dugu.

4. Errodrigo Zarateko kantu epikoa eta transmisioa

Leloren kantua eta Humboldtén *Die Vasken* bidaia-liburua ekarri ditut berariaz neure hitzaldira. Mugartegi etxean gordetzen zen Iburguen-Cachopinen kronikan, ordea, bazen beste kantu askoz zaharrago eta benetakoago bat: Errodrigo Zaratekoren kantua²⁵. Kantu hori ez zuen Humboldték irakurri. Arrazoietak bi hauek izan litezke: ordurako ere Iburguen-Cachopi-

²⁵ Interesgarria da pertsona izenetan –ko lekuzko genitiboaren markaren ondoren ez dela artikulurik eranstean. *E(errodrigo) Zarateko* horrek ez du, beraz, artikulua onartzen. Era horretara, Errodrigo Zaratekok, Errodrigo Zaratekori, eta abar izango litzateke. Geroagoko adibideak ekarriz gero, Mogelen *Peru Abarka* lanean datorren *Peru Landetako* edo Aboitzen *Peru Dubako* bezala eraikia dago *E(errodrigo) Zarateko*. Ohargarria da *E[errodrigo] Zarateko* gisakoa dela kantu berean datorren *Juan Juane Abendañoko*. Komitatibo, sozietibo edo unitibo kasuan, beraz, *Jaun Juane Abendañocogaz* forma dator.

nen kronika-eskuizkribua egoera tamalgarrian, ia deseginda zegoelako, batetik, eta letra zaila zuelako, bestetik. Julen Arriolabengoak, prusiarraren bidaia-datatik ia berrehun urtera, 1996. urtean (Arriolabengoa: 1996), eman zuen Errodrigo Zaratekoren lehen transkripzioa. Transkripzio hori gerora apur bat osaturik hauxe da (Arriolabengoa: 2007):

- 1 *Arma escuduac on dira dardos,*
- 2 *pareric estabe canporacos,*
- 3 *çaratearrac galdu ei dabe Marquia-Çuya çeculaco.*
- 4 *E[rrodrigo] Çarateco, selan engana sindean*
- 5 *jaun Juane Abendañocogas gudua arçen sanean,*
- 6 *bi milla guiçon oi ditus bere lelengo deiean,*
- 7 *lau milla bere baleduque premia letorreanean,*
- 8 *Cortazarretarrac delanterea, Ibarguendarrac urrean,*
- 9 *Gastelan Samientuarric asco, es pareric arean,*
- 10 *jaun Asençio Guebaraco ganean darda ordean,*
- 11 *Billela ta Arteaga, anage onac urrean,*
- 12 *saldi suriac on [t... c... .. d...]rreanean,*
- 13 *onac arin, gog[oa] [fol. vto.] sendo, arerioaren asean.*
- 14 *Errodrigo Çarateco saldi urdinaen ganean,*
- 15 *bosteun caxcabel urregorriscu saldiac idureanean,*
- 16 *carrerae laster eroean Erbitegui ganean,*
- 17 *arerioac ur jarraica arrebearen semea,*
- 18 *ona chiçi, orço laster, Abendanochea.*
- 19 *–Arren, echosu orain osaba, bixooc justa gaitean.*
- 20 *–Echi eguidac orailloba, gau bixiric noean,*
- 21 *neure biçian enoaque Urquiçuren contrean,*
- 22 *omenaje eguingo joat biçia dodan artean,*
- 23 *bela vic sar naxaitec Billa Realgo torrean.*

Kantu hau saihets guztietatik da interesgarria. Historiaren alderditik aztertuz gero, zein batailari dagokio? Zein urtetakoak dira kantu honetan konstatzen diren ekintzak? Abendaño eta Zarate zein leinu edo familia ziren? Zein alderditakoak? Ibarguendarrak, kortazarretarrak eta urkizutarrak nor ziren? Kantuko lekuak, Erbitegi eta Billa Realgo torrea, non daude? Hizkuntzaren aldetik ere badaude, nola ez, hemen aipatuko ez ditugun mila kontu interesgarri.

Ahozko literaturari gagozkiola, ez dago dudarik kantu epiko hau egiazkoa dela. Kantuaren gertaeren ondoren –mende bat, bi edo are gehiagora erepertsona aditu batek ezin du honelako eresia ezerezetik sortu. Gure kantua ez da, beraz, ez apokrifoa, ez moldatua. Gure kantuak herri-kantu tradiziozkoa izan behar du, nahitaez. Kantua egiazkoa da eta egiazkotasun-frogak laster emango ditut. Markinan mugartegitarren etxean gordetzen zen Ibarguen-Cachopinen kronikako eredia, arestian aipatu dudana, ahoz aho kantatzen zen kantu baten aldaera bat zen. Aldaera askoren arteko bat, baina ez bakarra. Kantu epiko baten aldaera bat bakarra transkribatu eta gorde denez gero, aldaera bakarra ezagutzen dugu, ezinbestean. Izango ziren, nola ez, aldaera askotxo Bizkai osoan eta are beste lurralde batzuetan ere kantatuko zirenak.

Goraxeago jarri dudan testua ez da atzo goizekoa, ezta bartdanik honakoa: testua benetan zaharra da, bost mende eta erdi baino gehiagokoa. Errodrigo Zaratekoren kantu epikoak Erroitegiko guduko (1448-1468) gertaeren berri ematen du eta aldaera bakarra izatean ere zorionekoak gara. Hau bezalako kanta zaharren bila etorri zen Humboldt, eta, inor baino hurbilago egon bazen ere, ez zuen eskuratu. Kanta zahar honen egiazkotasun-frogak eta transmisioa aztertu baino lehen ohar gaitezen koplaz zaharraren teknika duen exordia datorrela kantaren buruan (Salaberri Muñoa: 2015). Lehen hiru zenbakietako biek irudi bat agertzen dute. *Arma-eskuduak on dira dar-doz* horrek egitura bera du harako beste sarrera harrigarri harekin:

*Sanda iliac atrac ditu zizarrez
Nola zizarrez da ala zendalez...²⁶*

Zentzuari gagozkiola, badu gure ustez antzekotasunik «Alostorrea» eta «Aldaztorrea» baladekin. «Alostorrea» baladan bele beltza²⁷ da zorigaitzaren albistari²⁸; «Aldaztorrea» baladan erroi zaharra da urruneko zoritxarra-

²⁶ Gorago aipatu dugun «Tradición viva y letra muerta» artikuluan, «Los cantares de Sandailia» puntuan, ikus beza, nahi izatera, irakurleak. Bere teoriaren indargarri gaur egun baditugu datu berriak ere.

²⁷ Bizkaiko euskararen *bela* (*baltz*) ezagutzen ditugun kasu guztietan, transkripzio zaharretan eta berriagoetan.

²⁸ Beleak eta erroiak dira, Larramendiren hiztegian agertzen direnez, «aztinantza txarreko hegaztiak». Ohartzekoa da batailaren izena ere toponimo batek ematen duela. *Erroitegi* (kantuan berean ere *Erbitegi* toponimoa ere badago, biak euskaldunen imaginarioan piztiak direla: erroi eta erbi).

ren albistari. Joan nadin, bada, konturik kontuzkoenera: egiazkotasun frogak eta transmisioa azter ditzadan. Lanketa horretarako pasarte bat bakarra aztertuko dut:

14 *Errodrigo Çarateco saldi urdinaen ganean,*

15 *bosteun caxcabel urregorrisco saldiac idurenean*

Pasarte harrigarria da alde askotatik. Errodrigo Zarateko jauna ez da nolanahi agertzen, zaldi urdin baten gainean baino. Zaldi urdina zaldi dotorea da eta dotorezia handiko jaun handi bat zaldi ondo apaindu baten gainean agertzeak edonoren gogoia jo dezake. Zaldi urdinak dituen apaingariak bostehun kaskabel urregorritzko lepotik (hots, *idurenean*) izatea da.

Merezi du pasarte miragarri honek izan duen transmisio are miragarriagoaz hitz egitea. Lerro hauetara ekarriko ditudan baino askoz adibide gehiago ekar litezke. Ekarriko ditudan adibideak beren buruz aski gora mintzo dira.

XV. mendeko Errodrigo Zarateko kantu epikoak izan duen transmisioa aztertzeko Erdi Aroko kanta baten hondarrak biltzen saiatuko naiz. Uste dut kantu honekin egiten dudana nekez egin daitekeela beste kantu batekin. Helburu horretarako 14-15 zenbakietako pasarteak izan duen iraupea aztertzen saiatuko naiz. Pasarte hori, harrigarria badirudi ere, batez ere Bizkaiko lo-kanta edo sehaska-kantetan gorde da. Has nadin on Manuel Lekuonak 1930ean *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian argitara zuen lo-kanta batekin. Hona nola dakarren inolako ukitu edo aldaerarik gabe (Lekuona: 1930):

*Gure umetxua datorrenian
Saldi urdiñaren ganian,
Bosteun kaskabel uré gorizko
Saldijek bere idunian;
Beste ainbeste eta gejago
Atzeko petrandelian²⁹.*

²⁹ Hasieran Oiartzungotzat dakar, baina hutsa *fé de erratas* sailean konpontzen du. Kanta hau «cuneras» sailean, 51-54 orrialdean dator. Lo-kanta honen doinua ez dator azkenean. Honelaxe dio artikulugileak: «no hemos podido dar con la melodía».

Kanta hau Elantxoben bildua da. Harrigarria da kantaren puska gehiena hitzez hitz bat etortzea Errodrigo Zaretekoen pasartearekin. Bat ez datorren kontu bakarretako bat kasuen marka dugu. Kantu epikoan *idurenean* ablatibo singularra (*idunerean* da *idun* hitzaren ablatibo singularra eta hortik metatesi bidez *idurenean*) dator eta lo-kantuan *idunian* inesibo singularra (Lakarra: 1984).

Errose Bustintzak, Kirikiñoren ilobak, Bilboko *Euzkadi* egunkariko euskal orrian, 1933ko ekainaren 21ean, Urkiola barrenean, Mañarin, umetako jolas eta kantuak jarri zituen artikulu zoragarri batean. Artikuluko kantu guztien artean bat dugu harrigarriena: neska-mutikoez neguko lehen elurraren etorrerari kantu batez egiten zioten abegi ona. Uda mineko kronika batean, neguko kontuak ez ezik, are umetako neguko lehen elurrari nola kantatzen zioten adierazten du. XX. mende hasieran, Mañariko neska-mutikoez lehen *elur malutak* ikusten zituztenean kantu hau kantatzen zuten:

*Edurra dator menditik,
Urkiola-ganetik,
amak opillak labatik,
attak ardaua zaragitik,
amamak okelia lapikotik,
attattak sagarrak kamaratik*³⁰.

Errose Bustintzak kantu honen ondoren azalpen argigarri bat dakar:

Negubak, lenengoz edur zurijagaz atxak apaintzen ebazanian, suntuonduan danok jezarrita kantu ori abesten geban.

Errose Bustintzak aurreko urtean, 1932an, eta oraingoan neguaren minminean (*Euzkadi*, abenduaren 29an), beste kronika batean honelaxe zioen:

Eguraldija.–Aldi ontarako eguraldi edertxo daukogu. Aspalditxuan, edurra uxo samar yabilku; mendi erpiñetan eztoigu ikusten eta Gabon-ostian ia zelakuak jausiko diran! Guk txikitan edurra jausten ikusten gebanian onan abestzen geban.

³⁰ Puntuazioa apurren bat aldatu dut. Jatorrizkoan garai hartako grafiarekin transkribatua dago, erre gangardunekin: *Eduŕa dator mendirik (...)*.

*Edurra dator menditik,
Urkiola-ganetik,
amak opillak labatik,
attak ardaua zaragitik,
amamak okelia lapikotik,
attattak sagarrak kamaratik.*

*Gure neskia ba-dator
zaldi urdiñen ganian,
edur-lumazko kapa zuriya
lepotik bera soñian.*

*Berreun koskabel urregorritzko
zaldijak bere idunian,
zidar utsezko perra zuriyaka
inkatzen dituz lurrian³¹.*

1932. urteko negu mineko kronikan datorren kantua; beraz, askoz osoagoa da 1933. urteko uda mineko kronika baino. Kantu honetako *zaldi urdiñen ganien* (...) / *berreun koskabel urregorritzko zaldijak bere idunian* / (...) bat dator Errodrigo Zaratekoren kantu segmentuarekin. Oraingo honetan zaldizko eder baten moduan itxuratzen da neguko lehen elurraldia. Errodrigo Zaratekoren urregorritzko kaskabelez gainera, zilar hutsezko ferrak izango ditu zaldiak. Kopla zaharretako adibideetan bezala, urre-zilarrak aurkitzen ditugu kantu honetan

Baina natorren berriro lo-kantetara eta eman ditzadan Arratiako Julian Yurre kaputxinoak (Yurre: 1968) Bizkaian barrena misio-egunetan bildutako lo-kanta bi. Hona hemen, lehena, berak dakarren bezala-bezalaxe:

*Obatxua lo doie,
neure umie lo doie;
neure umie lo doinean
zaldi urdinen ganien,
bosteun kaixkabel urre gorritzko
Zirunen petral ebien.*

³¹ Oraingoan ere puntuazioa apurren bat aldatu dut. Garai hartako idazkeran dago transkribatua testua: *urregorritzko, peña zuriyak*, eta abar. Ahozko euskararen bustidurak ere baditu *menditik* eta *zaragittik* ablatiboetan. Horiek *menditik* eta *zaragittik* bihurtu ditut.

Hona aldatu dudan eredu hau Muxikako Justa Elguren andreari bildua da 1957 urtean, misio-garaian. Julian Yurre kaputxinoak xehetasun zenbait ere ematen ditu³². Oraingo eredu honek antzekotasun handiak ditu Manuel Lekuonaren lo-kantarekin. Errodrigo Zaraterekin segmentu edo pasartearekin ere antzekotasun handia, begi-bistakoa denez. Badago, hala ere, desitxuraturik dagoen zerbait *zirunen petral ebien* zer ote da? Pentsatzekoa da *idunerean/idurenean* horren desitxuratzea dela *zirunen* delakoa. Garbiago ikusten dugu, bestalde, *petralerean* batetik sortzen den *petral ebien* desitxuratzea. Julian Yurreren bigarren testigantza hobe bat ere ekarriko dut hona. Bigarren hau askoz eredu eder eta garbiagoa da:

*Gure umetxu doyen orduen
zaldi urdiñen ganiñen,
bosteun kaskabel urregorritzko
zaldiyek idunerien;
beste ainbeste eta mille geyago
atzeko petralerien.*

Ez dago inolako dudarik askoz eredu hobea eta aratzagoa dela bigarren hau. Harrigarria badirudi ere, ablatibo zahar edo arkaikoaren morfema (jatorrian sing. *-(e)rean/* pluralean *-etarean*) ezin argiago agertzen zaigu *idun* eta *petral* hitzetan: *idun-erien* eta *petral-erien*. J. Yurre arratiarraren lehen ereduaren eta Lekuonarenean apurren bat ilun eta desitxuraturik geneukana, *petral ebien/ petrandelian*, oraingoan garbi dago: *petralerien*.

Hamabosgarren mendeko Erroitegiko guduko (1448-1468) kanta epiko bat, Errodrigo Zaraterekin kanta, puskatu edo listu denean lo-kanta bihurtu da. Kanta epiko horren lehen testigantza gudua izan eta mende batera transkribatu zen Iburguen-Cachopinen kronikan (1570-1620). Hona ekarri ditudan froga guztiek osotoro eta sendoro frogatzen dute gure kantaren benetasuna. Hizkuntzalariei ez ezik, herri-literaturazaleei ere miragarria irudituko zaie segmentu batek hain modu sendo eta finkoan iraun izana.

Kontu ezaguna da testu ihartuetan modu harrigarrian gorde ohi direla hitz eta esapide zaharrak (Mitxelena: 1971). Testu ihartuak esaera zahar,

³² *Zirunen*: idunez lez? *Idunen*: «en el cuello», *petral* «correa».

formula errimatu, bertso eta kantu zaharrez osatzen dira. Hona testu ihar-tuen gainean Mitxelenaren lanaren pasarte argigarria:

En una palabra, las posibles incomprendiones nacen de la diferencia radical de lo que se entiende por reconstrucción, restitución o restablecimiento en lingüística y en filología. Desde el experimento de Schleicher por lo menos, se sabe o se debería saber que un lingüista sólo alcanza a reconstruir elementos, formas o esquemas de lengua, en el sentido técnico de la palabra; jamás textos. Pero lo que el filólogo quiere, y muchas veces consigue, restablecer son precisamente textos. La utilidad que tales textos restablecidos pueden tener para la lingüística histórica es variable, pero, sobre todo en un caso como el nuestro en que los materiales relativamente antiguos escasean tanto, nunca será despreciable. Aun para un profano como yo, parece claro que el tenor literal se conserva mejor cuando el lenguaje del texto está ajustado a algún esquema formal (verso, fórmulas rimadas, etc.), pero el estudio mismo que se ha hecho de tales esquemas entre nosotros parece insuficiente. No es, sin embargo, excepcional que en la misma narración libre se conserven muestras de un estado de lengua anterior, incomprendidos acaso ya y más o menos deteriorados. Un ejemplo que debería ser clásico entre nosotros es el de la palabra *askazi*, «pariente», atestiguado directamente en dialectos orientales, con bastantes derivados, *ascazcunte* (o *askazkünte*) «parentesco» está ya en Belapeyre (1696), I, p. 63. Con todo la palabra ha aparecido muy lejos, en Ataun entre otros lugares, como puede verse en J. M. de Barandiarán, *Mitología vasca*, Madrid, 1960, p. 136, con bibliografía, en una acepción que acaso se acerque más al valor original del término. Bien es verdad que ocurre en una fórmula rimada.

Ahozko zenbait testutako hitzak elkarri lotuak egon ohi dira kate indartu bateko katebegiak bezala. Testu horiek genero batekoak baino gehiagokoak dira. Genero desberdinetan, batetik bestera aldatuz, sendo irauten dutela ikusi dugu atal honetako adibideetan.

Lekuonaren eta Julian Yurreren lo-kantetan agertzen ziren *petral eben/petrandelian* formetan morfema lexikoa bat bera dela garbi dago: *petral*. Morfema lexikoari eransten zaion deklinabide-morfema ere bat bera da eta de-

situraturik badator ere, *-ebien* eta *-ndelian* horietan, Mitxelenak dioen berreraikitze edo garbitze horretan *-rean* ikus daiteke garbiro.

Orain arte ikusi ez ditugun beste sail edo genero batzuk ikusiko ditugu hurrengo puntuetan.

5. XIX. mendeko Bizkaiko paremia-bildumak

XV. mendeko egiazko kantu epiko baten aztarnak XX. mendean bildutako lo-kantetan irau du. Goraxeago aipatu ditudan lo-kantek –Bizkaiko eremu osoan, batean eta bestean bilduak– kantu epiko zahar baten pusketarik ederrena eta gogoangarriena biltzen dute. Eta bildu, gainera, hitzez hitz, arkaismoak ere askotan zaintzen dituztela. Kantuetan ez ezik, esaera zahar askotxotan berdin gertatzen da. XVI. mendeko paremia-bilduma zaharretako paremiak XIX. mendean eta XX. mendeko paremia-bildumetan aurkituko ditugu. Mitxelenak dioen eskema formal finkatuak dituzte. Eskema formal finkatuak bertso eta formula errimatuetan ematen dira, batez ere: esaeretan, kantuetan eta are madarikazioetan ere. Jose Maria Satrustegik *testu ihartuak* deitzen zituen eskema formal finkatuak. Eta esaera zaharretan, edo modu zabalago batean hitz eginez, paremietan honelako asko daude.

Orain, puntu honetan, bilduma interesgarri zenbaiten gainean hitz egingo dut. *Paremia* hitz grekoa esaldi sententziatsua adierazteko erabili ohi da. Paremiografoa herri-esaldi sententziatsuak biltzen dituen da. Gure artean Esteban Garibai eta Arnaut Oihenart ditugu zaharrenak. Paremiologia edo atsotizlaria³³ paremiak aztertzen dituen da. Gure artean, esaterako, paremiografirik handienetakoak R. M. Azkue eta Damaso Intza izan dira. Paremiologorik handiena, ordea, Julio Urkixo izan zela deritzot.

Julia Sevilla irakasleak, Madrilen, *Paremia* aldizkari monografikoa zuzentzen du. Europako hizkuntzetako paremien gainean ez ezik, mundu osoko

³³ *Atsotitz* hitza, kontu jakina denez, Oihenarten asmakaria da. *Atsotizlari* hitza, ordea, Azkueren asmakaria da. *Euskalerrriaren Yakintza* lanean *paremiologo* hitzaren adiera ematen dio. Gonzalo Correas, esaterako, Azkueren luman atsotizlaria da.

paremien gaineko lan monografikoez osatzen da *Paremia* aldizkaria. Orain dela ia hogeitaz urte hasi nintzen aldizkari horretan euskal esaera zaharren gaineko azterketak egiten. Harrezkero paremien gaineko zenbait lan argitaratuak ditut eta beste hainbat eta hainbat erdi eginean edo bukatuak argia noiz ikusiko zain. Ene sarrera-hitzaldi honetan zilegi bekit, beraz, *paremia-bilduma* zenbaiten berri ematea.

Badaude egon Humboldt Euskal Herrira etorri zen garaitsuan bildutako *paremia-bilduma* interesgarri eta gutxi ezagutuak. Ezagunen artean ezagunena Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* liburuan datorrena da. Mogelek *Peru Abarka* liburuan bi *paremia-bilduma* txertatu zituen. Uste dut Mogelek asko estimatzen zituela esaera zaharrak, eta, halaxe, bitxiginak eratzunean diamantezko begia eransten duen antzora, erantsi zituen bere lanean bi *paremia-bilduma*. Bata, A. Oihenarten bildumatik hartua, eta, bestea, 65 *paremiakoa*, berak Bizkaian bildua. Bigarren bilduma horretako esaerak, besteak beste direla, Adolfo Arejitak eta Angel Zelaietak aztertu dituzte.

Testu ihartu eta transmisioaz ari garenez gero, zilegi bekit –beste nonbait egin badut ere– esaera bakar bat aztertzea. *Peru Abarka* liburuko lehen autuan, 120 orrialdean, esaera-zerrendarekin hasi baino lehen, elkarriketa hau dator:

Peru: Marija bichigiña, suba da oguigiña.

Maisu Juan: ¿Cer dinozu? Esaizu ostera.

Peru: Marija bichigiña, suba da oguigiña.

Maisu Juan: Baantzut cer dinozun; baiña ¿cer esan gura dau orrec?

Peru: Esan gura dau, oguija eztala ona bichi asco euqui arren, suba chaarra badauca. Au da, guizon edo andria bichiz edo soñoco apainduz azaleti aguertu arren, buru charrecua ta alperra bada, eztala guizon ta andra ona izango.

Maisu Juan: Eguija dinozu. Zuaz aurrera.

Marija bichigiña, suba da oguigiña esaera azalpen luze bat duela dago. Hala ere, nekez baino nekezago ulertzen da. *Marija bitxigiña, suba da oguigiña testu ihartu* bat dugu, lamiak protagonista dituen esaunda edo elezahar batean agertzen dena. Mogelek dakarren esaera horri argi berria ematen dio Luis Villasantek bere amaren herrian, Aulestin, bildu zuen elezahar batek (Villasante: 1959):

Angiz baiño goratxuago dago Olabarri baserria, eta Mari Jukiñe zan bertako andrie. Labako sue euki eban egun baten. Artie da bertan mendi guztixe. Artia izaten da egurrik onena su ederra egiteko; eta artuak su ona nai izaten dau. Marikiñek, bada, egur gitxi sartu eutsan labieri. Ogiak errez atara zituan, baiña artuak su gitxigaz inkau egin zirean ladrilluen, ta gero Marikiñek ezin artorik atara osorik pariegaz. Lamiñiek ordun bentanatik Marikiñeri esan eutsan: –Marikiñe, su ona bera don ogigiñe, ein bonaan, euko banan (egin bazendun, eukiko zendun). Da Marikiñe ernegauta, batetik artuek ezin atara, eta bestetik lamiñiek bentanatik burla, pariegaz juten yakon lamiñie eguen partera, ta ezkautau egiten yakon. Da barriro Marikiñe artuek ataraten. Da lamiñiek be barriro: Marikiñe, su ona bera don artogiñe. Da azkarian bata burlezka ta bestie ernegauta amaitu eben laba aldixori.

Narrazio honetan behin eta askotan esaldi bera errepikatzen da: *Mari-kiñe, su ona bera don ogigiñe* edo *Marikiñe, su ona bera don artogiñe*. Esaldi hori lamia batek etxeko andre ganoragabe bati esana da. Labean artoa erreko bada, noraezekoa da su ona egitea. Horixe da mezu nagusia. Su gutxirekin ez dago ogirik erretzerik eta hain gutxi artoa. Esaldi hori indartzeko *ogigiñe* edo *artogiñe* hitzekin hoskide den emakume izen bat behar da. Mogelek bildu zuen esaldian *Marija bitxigiña* da. Villasantek bildu zuen elezaharrean *Marikiñe*. Mogelek Markinaldean 1802 baino lehen bildu zuen esaldia osoago bildu zuen Luis Villasantek 1959 urtean, Aulestin, Markinatik hamar bat kilometrora.

Orain aipatuko ditudan Bizkaiko esaera zaharren bildumak XIX. mende hasierakoak –hots, 1801eko Humboldtten bigarren bidaia ingurutsukoak–edo lehenagokoak dira. Pablo Astarloarenak, Otxandioko bilduma edo Is-pasterko bilduma XVIII. mende bukaerakoak edo XIX. mende hasiera-hasierakoak dira. Añibarroren bildumaren azterrena ateratzen zailagoa da

5.1. Pablo Astarloaren esaera–bilduma

Humboldtten bidaia-liburuan gehien aipatzen den euskalaria Pablo Pedro Astarloa (1752-1806) da. Astarloatar idazleak bi izan ziren, Pedro Jose Patricio eta Pablo Pedro. Lehena, fraile frantziskotarra eta euskal idazle ugaria

izan zen; bigarrena, apaiza izan zen eta lanik ezagunenak gaztelaniaz idatzi zituen. Astarloatarrek durangarrak direla aipatu da behin eta berriro, eta, egia izan arren, uste zen baino askoz markinarragoak izan ziren.

Jose Maria Uriartek (Uriarte: 2001) eman dituen datuen arabera, askoz hobeki ezagutzen dugu Pablo Astarloaren biografia. Astarloatar idazleek ama markinara zuten, eta aita hil zitzaizenean, 1754. urtean, familia osoa Markinara aldatu zen. Pablo Astarloa, beraz, bi urte zituenetik aurrera, Markinara etorri eta Markinan bizi izan zen, *Oruetakua* etxean. Garai hartan Markina hiri harresitua zen eta harresiak hiru sarrera zituen, goiko sarrera, Goiko Portala, hiria Bilborako bidearekin lotzen zuena, eta beheko sarrera biak, bata sortaldekoa eta bestea sartaldekoa. Sortalderako sarrera honetatik Ondarroara bidea hartzen zen. Harresi-sarrera honen aurrez aurre, harresitik kanpora, herri-arraindegi neoklasiko dotorearen aurrez aurre aurkitzen da Oruetakoa etxea, gure umetako markinarrek postetxea ezagutu genuen etxe honetako bebarruan.

Pablo Astarloaren bizitza eta hizkuntza-ideiak ondo aztertutakoak izan dira (Laka: 1989). Gure ibilaldi honetan Astarloaren paremia-bilduma polit bat eskaini nahi dut, uste baitut ez dela behar bezain ezaguna.


Bizkaiko Foru Liburutegian, MSS-82 eskuizkribu-zenbakian, Pablo Pedro Astarloaren eskuizkribua aurkitzen da. Izenburua hau da: *Recolección de adagios bascongados Colocados según el orden alfabético de Sus Letras iniciales*. Esaera zaharrak 76 orrialde dituen dokumentu batean idatzirik daude. Orrialde asko hutsik aurkitzen dira, zoritxarrez. Dokumentu horretako paremiak ordena alfabetikoan (edo abezekiro, Iztuetak idatzi ohi zuen bezala) sailkatuak daude. Esaeren iruzkina errazago gerta dakidan zenbakitu egingo ditut.

Pablo Astarloaren bildumako paremiak guztiz jatorrak dira. 1800 inguruan edo lehenago Markinaldean jende xeheak erabiltzen zituen esaerak dira, herri-herrikoak. Jatorrizko dokumentuan agertzen diren bezalaxe transkribatuko ditut³⁴:

³⁴ Paremia guztiak dauden-daudenean jarriko ditut. Zerbait esaerak azkenean puntua dute eta beste zenbaitek ez. Irizpidea berdindu eta den-denei jarriko diet puntua. Jatorrizko dokumentuan esaera zaharrek ez dute zenbakirik.

A

1. Ama guria bein Elexara, bertan eperdijaz altarara.
2. Ardi Chicarra beti bildotz.
3. Aurtengo Chacurrac, igazcuen urcazaille.
4. Areche oquera, beti macur.
5. Acerijari ulia juan, baña anza ez.
6. Anzarren umiac ura, laztan.
7. Anzarren umia, ichassora.
8. Ao ichijan euliric ez.
9. Alperrac beti jaijegun.
10. Alperrac birritan biarra.
11. Aldana gauzaric oneena.
12. Aldana baño obaric, eztago munduan gauzaric.
13. Aldana ichasuan dan arrainic oneena.
14. Assia buruban, ibili munduban.
15. Alper da Marija maquilatu, bardin berez biardu.
16. Agura zorua beti mutil.



B

17. Bejjac ona dau larria, obiagua jaubia.

CH


18. Chacur gossiac, oguija amez.
19. Chacur zaarra, ardi utz.
20. Charri garbiguria.

D

21. Doillorra beti prestubez
22. Danian dana, eta abenduban arbijac

E

23. Eguija, erregarrija.
24. Eldu zan Miruba Sibilijan, an bere Miruba zirudijan.
25. Eldu-zan Miruba Sibilijan, an bere buztana iperdijan.
26. Errementarijen echian, zotza burdunci.
27. Eztau otsuac, bereric jaaten.
28. Essalia, enzula.
29. Este Chicarra, laster bete.
30. Eztaucanac, aarraussi.
31. Echiac urte laburra.



G

- 32. Gossago belooc garitan.
- 33. Gabeco biarra, eguneco lotsaari.
- 34. Guzurra ninzan mendijan, ni baino leen zan errijan.

I

- 35. Idijac oiñon biarran, burdijac oiñon.
- 36. Inoren beijac orruac andi.
- 37. Inchirri min baguia, sasijan galdu.
- 38. Ilda zorruak errotara.

L

- 39. Lapurra, lapurren bildur.
- 40. Luurra bigunago, aarra barrurago.
- 41. Lagunac lagun-zaquidaz ocaran barrijac daquidaz.

M

- 42. Mutil onac buruban zauri, gaiztuac bernazaquijan.

O

- 43. Ona dau beijac laarria, obiagua jabia.
- 44. Otsein barrijac galbaiaz ura, zaarrac edarriaz bere ez.
- 45. Otsuac eztau bereric jaaten.

U

- 46. Urac gustiac ichassora.

Z

- 47. Zaijetan ciogui, urunetan ero.

Ez dago dudarik hona aldatu ditudan paremiekin bizkai-euskarako bildumarik politenetakoa osatzen dutela. Esaera hauetako asko beste iturri batzuetan ere bildurik aurkitzen dira. Esaera hauetako harmonia bokalikoari dagokionez, ez dago dudarik Markinaldekoagoak direla Durangokoak baino: J. A. Moglek eta Prai Bartolomek darabilten Markinaldeko euskararen ezaugarriak bat datoz.

Ezin interesgarriagoak dira, bestalde, bilduma honetako hitzetan aurkitzen ditugun bokal geminatuak edo bituak. Bokal bituak, esaterako, dardarkariaren aurrean aurkitzen dira: *Luurra, aarra, laarria* (43. esaeran hala agertzen da, baina 17.ean *larria*). Konposizio zaharrari dagozkion adibideak erean badira: *aarrausi, lotsaari*³⁵. Aditz-izenean (*jaaten*, esaterako) eta konparazio-graduan ere bai (*oneena*).

Atsotiztegi edo paremia-bilduma hau gutxi ezagutzen dela esan dut. Bakar-bakarrik Vicente Aranaren 1888. urteko lan batean transkribaturik ikusi baitut (Arana: 1888). Lan honetako transkripzioak, batetik, ez dira fidagarriak, askotan transkribatzaileak gaizki irakurriaz batera jatorrizko ortografia aldatzen duelako; bestetik, ezin jakin da zeintzuk diren Astarloak bildutako paremiak, beste batzuekin nahaste datozelako. Beste esaerak Vicente Aranek Bizkaian batuak dira. Honelaxe dio berak:

De los refranes que se apuntan más abajo, los unos son tomados de la colección formada, por el benemérito vascófilo durangués, D. Pablo Pedro de Astarlo, y los demás han sido recogidos en las comarcas de Marquina y Ochandiano, y otras de Vizcaya.

Astarloak bildutako esaerak Larramendiren hiztegian zein Añibarroren bildumetan zein Otxandioko eskuizkribuan ere aurki daitezke. Bildu zen ingurua kontutan harturik, Mogelen bildumako aleekin aurkitu dut antzekotasunik handiena. Hona Astarloaren eta Mogelen esaera berak elkarren ondoan.

Ast. 3. *Aurtengo Chacurrac, igazcuen urcazaille*. Mog. 38. *Igazco chacurra, aurtenguaren urcatzalle*.

³⁵ Kontu hauetarako oraindik ere funtsezkoa da Mitxelenaren FHV liburua. Bokal bituei dago-kienez, pasarte batean baino gehiagotan aztertzen du. Hona pasarteetako bat (FHV, bigarren edizioa 111 or.): «Algunas variedades conservan, al menos parcialmente, lo que no está claro si debe interpretarse fonológicamente como cantidad larga o bien como geminación de las vocales: las largas o geminadas proceden en ocasiones del encuentro de vocales que originariamente tenían distinto timbre. La zona más conservadora a este respecto parece ser o haber sido la parte más oriental el área vizcaína: Marquina y Durango (cf. Capanaga, los dos Astarloas, Moguel, Fr. Bartolomé), y el vizc. De Guipúzcoa y en particular el de Oñate (cf. Garibay, RS, ms. Oñate)».

Ast. 5. *Acerijari ulia juan, baña anza ez.* Mog. 26. *Aceri zaarrari ulia juan, baña antza ez.*

Ast. 18. *Chacur gossiac, ogija ames.* Mog. 20. *Chacur gosiac, ogija ames.*

Ast. 21. *Doillorra beti prestubex.* Mog. 42. *Dollorra beti prestubex gogorra.*

Ast. 33. *Gabeco biarra, eguneco lotsaari.* Mog. 54. *Gabeco biarra, egunera-co lotsaari.*

Ast. 34. *Guzurra ninzan mendijan, ni baino leen zan errijan.* Mog. 48. *Guzurra esan neban mendijan, neu baño lenago zan errijan.*

Ast. 44. *Otsein barrijac galbaiaz ura, zaarrac edarriaz bere ez.* Mog. 25. *Otsein barrijac galbaiaz ura, zaarrari edarriaz bere lecuric emon ez gura.*

Ast. 45. *Otsuac eztau bereric jaaten.* Mog. 13. *Otsuac otsuari gachic ez, ta lapurrari lapurrac laztan.*

Ast. 47. *Zaijetan ciogui, urunetan ero.* Mog. *Zaijetan ciogui, urunetan ero.*

Pablo Astarloaren bilduma hau aberatsa eta iruzkingarria bada ere alde askotatik, iruzkin bat edo beste bakarrik egingo dut:

Ast. 6. *Anzarren umiac ura, laztan horretan Antzarraren umiak ura laztan dau* esan nahi du, hots, antzarraren umeak ura maite du. *Laztan ukan* aditza RS bilduman ez ezik, Pedro Astarloaren *Urteco domeeca* lanean ere sarri aurkitzen dugu.

Ast. 20. *Charri garbiguria* horretan ez ote dago okerrik? Ez ote da *charrija, garbiguria?* Modu honetara bi hitzeko esaera izango genuke gainerako beste hiru hauetan bezalaxe: 23. *Eguija, erregarrija* 28. *Essalia, enzula* eta 30. *Ez-taucanac, aarraussi.* Azterkizun dudan *Txerria, garbigura* horretan zikina dena, zenbaitetan, garbizalea edo garbigurakoa dela adieraziko luke.

Ast. 11. *Aldana gauzaric oneena.* 12. *Aldana baño obaric, extago munduan gauzaric.* 13. *Aldana ichasuan dan arrainic oneena.* Hona hemen elkarren segidan datozen hiru esaera harrigarri. Hiru esaeretan *aldana* aurkitzen dugu. *Aldana* delakoa *ahal dana* lexikalizaturik da, hots, «egin ahal dena», «ahalegina». Hiru esaeretan, jakina, hirugarrenean ikusten da lexikalizariora

mudurik garbi eta indartsuenean³⁶. Esaera hau apurren bat desberdin Seber Altubek ere bere aitari Mondragoen bildu zion: 61. *Aldanian aldana itxasoko arrañik onena*. Damaso Intzak Beramendin, Ultzaman, bildu eta 1926an *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen: *Aldena, itxasoan den arrayik oberena* eta azalpen hau eman zion: «Quien hace lo que puede siempre avanza». 1929. urtean Baleriano Mokoroak Zaldibian egindako hitzaldi batean (*Euskal Esnalea* 1929, 156 or.) honelaxe dio:

(...) *bestetik berriz zuek danok askotan entzungo zenuten antzera, arrantzaleak itsasoan arrapatzen duten arrairik onena aldana izaten dala; ni ere jakin zazute bada guztiok aldana egitera natorrela.*

Baleriano Mokoroaren hitzaldian datorrenez, beraz, esaera zabaldu samarra zegoen. Hogeigarren mendeko hogeiko hamarkadako bi testigantza hauek *Retana* hiztegitik hartu dute gainerako hiztegitileek. Altuberena hogeigarren mende hasierakoa da eta Astarloaren hiruak 1806 urtea baino lehenagokoak dira.

Ast. 22. *Danian dana, eta abenduban arbijac*. Esaera honen lehen zatia *danian dana*, bere laburrean, esaera zaharra da. RS 97. *Danean dana* «Cuando lo hay lo hay».

Ast. 24. *Eldu zan Miruba Sibilian, an bere Miruba zirudijan* eta Ast. 25. *Eldu-zan Miruba Sibilian, an bere buztana iperdijan* Otxandioko eskuizkribuan ere aurkitzen dugu: 23. *Eldu zan miquea Sibilian, an bere bustena eperdian*. *¿Adónde irá el buey que no are?* eta Añibarroren lehen bilduman ere aurkitzen dugu: Añ. 109. *Eldu zan miquea Sibilian, an beré bustena eperdian*. *¿Adónde irá el buey que no are?* Gure bilduman hegazia, ordea, *mikea* izan beharrean *mirua* da. Astarloaren bi aleetako lehenak, 24. zenbakia due-nak, aberastasun berri bat eransten dio esaera zaharrari.

Ast. 28. *Essalia, enzula*. Hamaseigarren mendeko RS bilduman ere berdin-berdin aurkitzen da: RS 446. *Esalea, enzula*.

³⁶ Ez dut uste holako lexikalizazioak gure artean ondo aztertuak daudenik. Damaso Intzak biltzen duen *Or konpon! Orkonponek etxea galdu omen zuen* esaeran ere *orkonpon* lexikalizaturik eta are personifikaturik ere aurkitzen dugu.

Ast. 32. *Gossago belooc garitan* esaera egingo zaio ulergaitzena bati baino gehiagori. Pablo Astarloaren bilduma honetako gainerako esaerak askoz ulergarriagoak dira, baina honek zer esan nahi ote du? Etxean ama gureari bakarrik entzuna diot esaera hau. Esaera hau ez dut uste beste inon jasoa dagoenik. Neska-mutil gazteak gazteegi hasten zirenean harremanetan, normalean baino gazteagorik, orduan esaten zen. Nik entzun dudan moduan honelaxe litzateke: *gox dabiz belak garitten*.

Ast. 34. *Guzurra ninzan mendijan* irakurtzen dugu, Mogelenean *guzurra esan neban*. Astarloaren paremian *ninzan* horrek *nesan/nensan* esan nahi du, hots, *esan* aditzaren forma jokatua «esan nuen» esangurarekin. Diodanaren indargarri ekar dezadan Lope Isastiren paremia bat. L. Isastiren bildumako 44. paremian hauxe irakurtzen dugu: *Guezurra nesan Guetarian, ni ychean ta ura atarian*. Mentira dixen en Guetaria, yo en casa y ella a la puerta.

Ast. 35. *Idijac oiñon biarrian, burdijac oiñon*. Esaera honetan *oiñon* aditz zaharra aurkitzen dugu. RS bilduman hiru aldiz aurkitzen da. RS 19. *Cantari gextoac oiñon*. RS 179. *Onec oiñon ta ni ejilic egon*. Hirugarren adibidea gure esaeraren oso antzekoa da. RS 305. *Ydiac oiñon bidean, gurdjac*.

Ast. 36. *Inoren beijac orruac andi* esaerak beste era batera izan beharko luke: *Inoren beijac erruac andi*. Mogelek 24. *Auzoco beijac, errua luce*. Esaera hau gehienetan *erro* hitzean oinarriturik egon ohi da eta ez *orroa* hitzean.

Ast. 42. *Mutil onac buruban zauri, gaixtuac bernazaquijan*. Esaera hau guztiz harrigarria da. 1596 urteko RS bilduman ere berdin-berdin dator: 42. *mutil onac buruan zauri, gaxtoac bernazaquian*. «El bué moço la herida en la cabeça, y el malo en la pantorilla». Hamaseigarren mende bukaeran bildu zen esaera zaharrak berdin-berdin jarraitzen zuen hemeretzigarren mende bukaeran ere. Esaera honen lehen zatia geroago ikusiko dugun Ispasterko bilduman ere badator: Isp 82. *Mutil onac buruban zaurija*.

Ast. 44. *Otsuac extau bereric jaaten*. Astarloak bildutako esaera hau hurbil dago RS 345. *Osoac vere araguirean jan ez euan aletik*.

Ast. 44. *Otsein barrijac galbaiax ura, zaarrac edarriax bere ez*. Esaera honen lehen zatia hurbil dago RS. 62 *Gabiarioz barriac galbaeaz hura* esaeratik. Harrigarria da, beraz, testu ihartuen hitzak elkarri zein era indartsuan josirik

dauden egiaztatzea. Gorago ikusi dugunez, Mogelek *Peru Abarka* lanean bildu zuen esaeratik ere hurbil dago: Mog. 25. *Otsein barrijac galbaiaz ura, zaarrari edarriaz bere lecuric emon ez gura.*

46. *Urac gustiac ichassora.* RS 214. *Ysasoac errecaac, yturriac ta ybayac yrunsi* esaera hurbil dago Astarloak bildu zuenetik.

Astarloaren esaera-bildumako hainbat alek 1596ko bildumako aleekin antzekotasun handia dute. Ezagutzen diren XVIII-XIX. mendeetako esaera-bilduma guztien artean zahar kutsu handieneko esaerak biltzen dituen bilduma da, inolako dudarik gabe.

Badakigu Humboldt esaerazalea zela. Oihenarten esaerak aztertuak zituen Euskal Herrira egindako bidaia baino lehen. Prusiarraren bidaia liburuan ere aipatzen da esaera bat edo beste. Berak ere, bestalde, esaera zahar batzuk bildu zituen. Gure bidaiari prusiarrak ez ote zituen Juan Antonio Mogel eta Pablo Astarloa esaera zaharrak biltzera bultzatu?

5.2. Otxandioko eskuizkribuko bilduma

Bada gure artean eskuizkribu harrigarri bezain misterioitsu bat «Otxandioko eskuizkribua» edo «Manuscrito de Ochandiano» izenez ezaguna. Izen bitxi hori Azkuek berak emana da, eta iturri aberatsa izan zuen 1905-6ko bere hiztegi nagusia osabetetzeko zein *Euskalerraren Yakintzako* esaera zaharren atala hornitzeko. «Otxandioko eskuizkribua» izena Azkueri Otxandioko apaiz batek eman ziolako datorkio. Azkueren hiztegian zein *Euskalerraren Yakintza* lanean erruz aipatzen da gure eskuizkribua. Aipamena era batera baino gehiagotan egiten da: «ms-Otx», «B-ms» (B, Ms. Otx., Dic). Delako eskuizkribuan ez da agertzen egilearen edo traskribatzailearen izenik, eta Azkuek uste zuen Juan Mateo Zabalarena zela, hiztegioko sarreran hauxe baitio:

La obra que figura con la abreviatura de «Ms-Ots» no es otro Vocabulario anónimo (debido, creo, al P. Zabala), que me lo regaló el Sr. Cura de Otsandiano.

Eskuizkribuaren autoretza Jaun Mateo Zabalarari egozteak ikertzaile zuhurraren uste apala dirudi. Apaltasun beraz jokatu zuen Azkuek idazle beraren

alegia-eskuizkribua Parisko Bibliothèque National delakoan aurkitu eta hiztegi-sarrerara idatzi zuenean:

Estando en París el mes de enero de 1904, en vísperas de comenzar la publicación de esta obra, tuve la fortuna de encontrar en la Biblioteca Nacional los siguientes mss; una colección anónima de fábulas, producción seguramente de la castiza pluma del ya citado Fr. Juan Mateo de Zabala, autor del *Verbo regular vascongado*.


Azkuek zuen ustea Julio Urkixok bermatu zuen eta RIEV bere aldizkari-ko lehen alean, 1907an, argitaratu zituen Zabalaren alegiak (Zabala: 1907)³⁷. Argi ikusi dugunez, Azkuek bere ustea hiztegian azaldu eta hurrengo urtean ziurtatu zuen alegien jabetasuna, baina Otxandioko eskuizkribuak ez zuen zorte bera izan. Gure ustez, batetik, Otxandioko eskuizkribuko letrak ez dirudi Juan Mateo Zabalarena denik; eta, bestetik, eskuizkribuan (*Zabala*) aipatzen bada, nola aipa dezake eskuizkribuaren egileak modu horretara bere burua? Eskuizkribuetan, bestalde, beste kontu bat ere kontuan hartzekoa da: obraren egiletza eta eskuizkribuaren kopia norena den.

1905-1906 urteko Azkueren hiztegi-sarreran aurkitzen den Otxandioko eskuizkribuaren aipamena jarri dugu goraxeago. Mende erdi geroagora gure eskuizkribuaren paramenaz galdetu zuen L. Villasantek bere literatura-historian, 270. pasartean (Villasante: 1961):


El mismo Azkue, en el prólogo al Diccionario, pág. XIV, habla de un vocabulario que le regaló el cura de Ochandiano y que cree es obra del P. Zabala. No sabemos el actual paradero de este vocabulario. Ni si este vocabulario coincidirá con la Colección de Voces y Frases Bascongadas, oídas en las misiones de Vizcaya, que por 1828 envió el P. Zabala al citado Lécluse.

³⁷ Aitatasuna finkatzeko pasarterik seinagarriena hauxe da: «En los escritos jocosos de chistes, fábulas, cuentos, etc. se puede usar con más libertad y frecuencia (hitanoaz ari da), y siempre que se haga con tino, serán más agradables y graciosos. Nuestra fabulista, D. Vicenta Antonia de Moguel ha hecho algún uso de él en nueve de sus fábulas: ojalá que le hubiera dado toda la amplitud de que es capaz el asunto, que así hubieran tenido dichas fábulas un aire mayor de chiste y gracia. Yo tengo formada una pequeña colección de doce fábulas ajenas, y veinte y tanta más, en las que he procurado dar a este tratamiento la extensión que le corresponde según las reglas que llevo ya fijadas».

Fray J. Ruiz de Larrinagak (Ruiz de Larrinaga: 1924) Mateo Zabalaren eskuizkribu argitaragabeen berri emana zuenez gero, txalogarria iruditzen zait Villasantek «Colección de Voces y Frases Bascongadas, oídas en las Misiones de Vizcaya» eskuizkribua eta «Otxandioko eskuizkribua» bat bera ote diren galdetzea. Villasanteren literatura-liburua argitaratu eta urte batera Nikolas Alzolak Julio Urkixoren funtsean, Gipuzkoako Diputazioko liburutegian, «Otxandioko eskuizkribua» aurkitu zuen (Alzola: 1962)³⁸. Mitxelena N. Alzola-ren aurkikuntza hau bermatuz beste lan bat idatzi zuen (Mitxelena: 1962).



³⁸ Eskuidatziaren signatura ere ematen du 4736. Gaur egun signatura hau J. U. 473600000 dugu.



Hona hemen gure bi eskuizkribuen gako. Zorionez, Gipuzkoako Diputazioako liburutegian bi eskuidatzi daude izenburuz eta edukiz antzekoak. Bata, «Voces y frases vascongadas oídas en el señorío de Vizcaya» dugu, 357 orrialdekoa, 4 plegukoa eta (0,22 x 0,15 m) neurriduna. Hauxe da «Otxandioko eskuizkribua». Eskuizkribuak larruzko azala du eta bizkarrean «El Manuscrito de Otxandiano» jartzen du. Eskuizkribuaren atalak gaztelaniaz daude. Eskuizkribuaren lehen atalaren izenburua «Voces y frases vascongadas oídas en el señorío de Vizcaya» denez gero, izenburu hori berori jarri dute katalogatzaileek izenburu nagusitzat. Gure ustea da eskuizkribu hau Zabalaren eskuizkribu batetik Iztuetak egindako kopia dela, hor sumatzen dugun letra Iztuetarena baita eta ez Zabalarena.

Beste eskuizkribua, «Colección de voces y frases bascongadas, hecha en los pueblos del Señorío de Vizcaya» da. Otxandioko eskuizkribuaren izenburua oso antzekoa bada ere, ez da guztiz bera. Villasantek aipatzen duen «Colección de Voces y Frases Bascongadas, oídas en las Misiones de Vizcaya» Lécluseren kartaren irakurtze oker batetik dator³⁹. Bigarren eskuizkribu hau Otxandiokoa baino askoz txikiagoa da, 16 plegukoa, hots, (0,11 x 0,8 m) neurrikoa. Otxandioko eskuizkribua, beraz, bigarren hau baino lau aldiz handiagoa da. Ruiz de Larrinagak ere ematen du bigarren eskuizkribuaren neurri hori, eta seguru baino seguruagoa da, Léclusek Zabalari idatzi zion gutunetik hartua baitago. Eskuizkribu hau Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian gordetzen da. Katalogatzaileek jarri dioten izenburua «Voces y frases selectas sacadas de autores vizcainos» da. Signatura: 091 BON doc-20.

Zein alde dago eskuizkribu batetik bestera? «Otxandioko eskuizkribua» handia da eta ondo zaindua dago. Letra handi, txukun eta irakurgarria du, bestalde. «Colección de Voces Frases Bascongadas, hecha en los pueblos de Vizcaya» eskuizkribua oso txikia da, Otxandiokoaren laurdena, gorago esan dugunez. Bigarren eskuizkribu hau laburduraz josia da, eta letra txikiegia duenez gero, irakurtzina da askotan. Léclusek 1828ko abenduaren 13an latinez idatzitako kartan dioenez, atzera bihurtu zion Zabalari letra zail (txikiegia, berez) eta laburdura asko zituelako (Larrinaga: 1924)⁴⁰.

Bi eskuizkribuak, bestalde, edukiz antzekoak dira. Bi eskuizkribuetan atal bera ere aurkitzen da, zenbaitetan. Bi eskuizkribuetatik Otxandiokoa geroagokoa da, inolako zalantzarik gabe. Ispasterko esaera-bilduma, esaterako, bi eskuizkribuetan dator. Bilduma zaharra Léclusek eskuartean izan zuena da, eta, berria, Otxandiokoa. Atal honetan Otxandioko eskuizkribuko paremia edo esaera zaharrak aldatu eta iruzkinduko ditut. Esaera zaharrak bi atale-

³⁹ Halaxe irakurtzen dugu guk Lécluseren 1828ko abenduaren 13ko kartan.

⁴⁰ Honela itzultzen ditu Larrinagak 1828ko Lécluseren bi pasarte: «(...)le dice haber recibido por mediación de Mendizábal los dos libritos titulados «Colección de Voces y Frases Bascongadas, hecha en los pueblos de Vizcaya», (un tomo algo grueso en 16.^o y «Gramática Bascongada del P. Añibarro, (un tomo regular en 8.^o) (...) Pero que sentía no poder sacar de la *Colección* el provecho que era de esperar, por las muchas abreviaturas y letra difícil de leer que tenía; por lo que estaba en devolvérsela en la primera ocasión.»

tan daude *Refranes o cuasi refranes sacados de varios autores y oídos en el uso común* (orrialdeak 76tik 80ra) eta *Otros refranes esaquerac* (orrialdeak 80tik 84ra). Hitzaldi honetara paremia garbiak aldatuko ditut, esamoldeak (izenburuan dioen *cuasi refranes* direlakoak) bestealdi baterako utziko ditut. Euskarazko paremiak jatorrizko eskuizkribuan dauden-daudenean utzi⁴¹ eta lana errazteko zenbakituko ditut. Hona zerrenda:

1. Usuac joan, sareac zabaldu, *cuando se hace algo más tarde de lo que debiera.* (Axular). *después de muerto el asno, la cebada al rabo.*
2. Bataren gachaz besteac ona./76
3. Lecuan lecuac ardiac, baltzac eta zuriac, gurean guztiz andiac, *se dice al que exagera mucho.*
4. Auntzac iñesi eguiten deutsanari, aquerrac bere eguin daroaco, *a quien huye la cabra suele también huir el cabrón.*
5. Gure auzoan beiac erroac andiac, orroe galantac.
6. Naguintzat eta alperrentzat egun guztiaz dira fiestac (Axular).
7. Jocuac ezta errenta, id. (Axular).
8. Urteco euriac urtean yausi bear dabe./77
9. Lauciriren pagua ta lau maraien trapua, *poco mal y bien atado.*
10. Bei chiquerra beti bigenchea, *se dice de la persona que por su poca corpulencia indica menos edad de la que tiene.*
11. Embidie balitz escabie, ascori aguertuco lichaque.
12. Azquen gaisto eguingo doc choria, gaztetaric eguiten eypadoc abia (Axular)./78
13. Guizonari berbatic eta idiari adarretic, *cornu⁴² bos capitur, verbo ligatur homo.*
14. Errementariaren etsean⁴³, zotza⁴⁴ bartzun, *en casa del herrero cuchillo de madero.*

⁴¹ Gaztelaniazkoen ortografia dagoen-dagoenean utziko badugu ere, gaztelaniazkoak gaurkotzea erabaki dugu. Batari eta besteari galdetu ondoren irizpide hori aukeratu dugu.

Ez du titulu osoa jartzen, latinezko kartan, ikus 317or., «Colección de voces y frases bascongadas hecha en los pueblos del Señorío de Bizcaya. (Un tomo algo grueso en 16^o).

⁴² Ez da argi ikusten hitz hau. Latinezko esaera, ordea, argia da: *cornu bos capitur, verbo ligatur homo.*

⁴³ Halaxe dator eta ez dugu aldatu. Kontu jakina da Bizkaiko zenbait lekutan (Gernikaldean eta inguruetan) etse esan ohi dutela.

⁴⁴ Jatorrizko testuan *sotza* dator.

15. Celangoa dan bicitzea, alangoa da eriotzea, *como se vive se muere* (Añibarro). Celan bicitzea, alan eriotzea, celan bici alan il (Axular). Bicitzea langoa eriotzea izan doa (Zabala). /79
15. Bearrac bear eraguin.
16. Luqui cumea, luqui, *saepe solet filius similis esse patri*.
17. Astoac esan leio mandoari, quen aquit ortic belarri, *ait latno*⁴⁵, *etc. dijo la sarten, etc.*

otros refranes

esaquerc

18. Estudiante de sasiric sasi, asco jan ta guchi icasi.
19. Bauco nori irudi, atalac lapicoari, *quien à los suyos parece nada desmerece*. /80
20. Peru ona baya belu, *tarde nació Pedro para cabrero*.
21. Maria geuria⁴⁶ goruetan bear eztan orduetan.
22. Vizcaitarra jan da otz, Arabarra jan da poz.
23. Eldu zan miquea Sibilian, an bere bustena eperdian. *¿Adónde irá el buey que no are?*
24. Ecinac eztau legueric, *necessitas caret lege*.
25. Edale ona capa zarduna, *bajo de una mala capa un buen bebedor* (Oihenart)⁴⁷.
26. Zaietan ciogui, urunetan ero, (*asi pone Dn Juan Antonio Moguel, pero en Arratia se dice del modo siguiente*) Zaietan zoin, urunetan ero, *cuidadoso en el salvado, y pródigo en la harina*⁴⁸.
27. Icusten eztaben beguiac, eztau gachic (Axul 290 eztau minic).
28. Etse utsa, guerra utsa.
29. Gure catuac bustena luce, nor berac becela besteac uste.
30. Etse utsa, arra utsa⁴⁹; chacur argala ardi utsa.
31. Quitu ta quitu atso bat il, beste bat biztu./81

⁴⁵ Hitz bi hauek transkribatzen lanak izan ditut. Ondo ote daude?

⁴⁶ Halaxe *gueria* dator jatorrizko testuan. Uste dugu *geuria* izan behar duela.

⁴⁷ Halaxe dakar zorieko h delakoa gaizki jarria.

⁴⁸ Esaeraren gaztelaniazko itzulpena holaxe dator: *cuidadoso en el salvado, y pródigo en la arina*.

⁴⁹ Batera transkribatua dago jatorrizko eskuidatzian: arrautsa.

32. Usadio charrari bernea o iduna ebagui⁵⁰.
33. Dagoanean bonbon, eztagoanean egon.
34. Marabidian idia, inon da marabidia?
35. San Vicente otza, neguaren biotza, *que por 22 de Enero es aún lo más erizado del invierno.*
36. Ardi chiquia beti bildotz. *Véase arriba bei chicarra.*
37. San Yurgi artoac ereiteco goxegui, San Marcos artoac ereinda balegoz, *se indica el tiempo crítico de sembrar el maíz entre San Jorge y San Marcos.*
38. Esana ta eguina bi dira, *del dicho al hecho hay mucho trecho /82*
39. Ucondoa urrean dot, baya ecin mun eguin deusat.
40. Ondo eguinen pagua, ate ostean palua, o ate ondoan palua.
41. Urtean bein elexara, ta berean eperdiaz altara, *se dice al ingrato que corresponde con una ingratitud.*
42. Eguraldi ona, bera da yaque bera da gona.
43. Guero diñoanac bego diño.
44. Artuten eztabenari saldea, ezleusquio emon bear erraria, *al que no toma caldo, no debiera dársele pan.*
45. Beste-lengusuaren semea lloba, atzea baño puscabat oba, *se significa las pocas relaciones de los parientes remotos.*
46. Saldeari zurrutadea, ta artoari usicadea.
47. Alper da Maria maquillatu, berez bear du.
48. Astoaren aoraco ezta ezta, bai berarra, *no se hicieron para la boca del asno los confites.*
49. Buruguin ona, lagunguin charra, *el muy vividor es mal compañero./83*
50. Tratuen tratu, zortzian emon ta lauean saldu, *se dice de mal tratante.*
51. Soldadua amaren seme galdua o sobradua, *se indica la vida penosa de los soldados.*
52. Guecho baño Bilbo obago, *se dice cuando se compran dos cosas de muy desigual valor.*
53. Zaguia osoric ta guiñarraba ordirc, *se dice del que quisiera lucir sin gastar... /84*

⁵⁰ Zer jartzen du ebagui edo ebaqui? Bien artean lehenaren aukera egin dugu.

Gorago aipatu ditudan atal bietan badira aho-korapiloak eta asmakizunak ere. Aho-korapiloetan *Peru Abarka* liburuan datorren *Aquerrac adarrac oquerrac ditu* hiru modutara esanik eta bost aldiz errepikaturik mihiaren trebetasuna lantzen omen zen. Beste aho-korapilo ez hain ezaguna *aurten gure ortuan artoa berde erne da da*. Igarkizun bi ere badaude zerrendan *iru chita ta ama lau, cenbat dira?* Erantzuleak *lau* badio, *hamazazpi* erantzungo dio galdetzaileak (hiru txita eta hamalau); erantzuleak *hamazazpi* badio, *lau* erantzungo dio galdetzaileak (hiru txita eta ama lau). Argitu ezin izan dugun beste igarkizun zailago bat ere (enigma, gaztelaniaz) badator: *azac aza ta lapicoa gazi ta lapico baten egosi*.

5.2.1. Añibarroren esaera zahar-bildumak

Humboldték Donostiatik Orion barrena Zarautzera jo zuen. Gure bidaia-ri prusiarrak Orio herriaren deskripzio luze xamar bat egiten badu ere, Zarautzi bi esaldi bakarrik eskaintzen dizkio. Zarautz 1.500 arimako herri txikia dela dio, eliza handia eta arkupedun udaletxe berria dituena. Bidaiari prusiarrak ez du aipatzen Zarauzko frantziskotarren komentuko misiolariék euskara onean predikatzen egin zuten lan gaitza. Komentu honetan bizi zen garai hartan Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) arratiarra. Badakigu, gainera, 1790 urtetik aurrera egon zela Añibarro Zarauzko komentuan. Gure jakitun prusiarra Zarautzik igaro zenean, beraz, hamar urte baino gehiago zeramatzan misiolari.

Añibarro euskal idazle naroa paremiografoa ere izan zen. Paramiografoa edo esaera zaharren biltzailea. Are gehiago: Pedro Antonio Añibarro XIX. mendeko euskal esaera zaharren biltzailerik handienetakoa izan zen. Esaera zaharren biltzailea diodanean, ahotik hara edo jende xehearen ezpainetatik bildutako paremiez ari naiz. Mogelen atsotitzak ezagutzen genituen, Uriartek bilduak omen zirenak ere bai, Astarloarenak galdutzat genituen. Añibarrok berak jende xehearengandik bildutako euskal paremiez osatzen dute; bigarren saila gaztelaniazko paremietatik euskarara egindako itzulpenek; eta hirugarren sailak iturri ezaguna du: Larramendiren hiztegia.

Hemen Añibarrok bildutako bi paremia-bildumaren berri emango dut. Lehen eta ugariena Koldo Mitxelena Kulturuneko «Voces usuales en Vizcaya»⁵¹ eskuizkribuan datorrena da. Luis Villasantek «Voces Bascongadas» eskuizkribua argitara eman zuenean, ez zuen haren lan argitaragabeen artean hiztegi eta atsotiztegi honen berririk eman, eta, egia esatera, ez dut paremia-bilduma honen testigantzarik inon aurkitu, ez eta «Voces Usuales de Vizcaya» eskuizkribuarenik. Bigarrena, Zarauzko frantziskotarren komentuan, «Catálogo de voces sueltas» agirian datorrena da⁵². Hitz-zerrenda honetan orrialde bakar batean 52 esaera datoz. Bi esaera-bilduma hauetaz gainera, *Misionari euscalduna* eskuizkribuan paremiak daude testuan txertaturik. Oraingo atal honetan hiru dokumentu hauetako paremiak zerrendatu eta iruzkinduko ditut. Iturri nagusi hauetaz gainera, Añibarrok bere *Voces vascongadas diferenciales* hiztegian zenbait paremia ere txertatu zituen:

1. *A padre allegador, hijo expendedor*: Aita zurrari, seme gastari; aita biltzalle, seme galtzalle.
2. *No por mucho madrugar, amanece más temprano*: c. Gox jaguia, ezta egunsentia.
3. *A muertos y a idos no hay más amigos*: c. Adiskide guchi illai, ta joan diranai.
4. *Tras comudo, apaleado*: c. Adartu ostean maquillatua: ondo eguinen pagua, ate ostean palua.
5. *Es propio de los hombres el errar*: c. Guizonaren egoquia da, guizonari dagocana da uts eguitea, guizonarena da, etc.
6. *De una via dos mandados*: c. Bide batez mandatu bi.


«Voces usuales en Vizcaya» dokumentuan, bost plama edo orrialdetan⁵³, *Adagios*, y *Refranes bascongados* izenburupean, euskal paremien altxor zoragarri bat dator. Paremiak letra txukunez eta bi zutabetan zenbakiturik daude. Dokumentu honen egiletza eta data ez da zehazten bibliotekako katalo-

⁵¹ Dokumentu hau Koldo Mitxelena Kulturunean dago. Signatura J. U. 013806809 da.


⁵² *Catálogo de Voces sueltas* dokumentuan orrialde solte batzuetan hitz-zerrendak datoz. Hitz-zerrenden artean plama batean *Refranes vascongados* saila dator. Agiri hau 55. kutxan dator, *documento 5 [55-5]* signatura duela. Dokumentu honek bertako *Catálogo del archivo provincial de Zaurutz* agiri-liburuan, 18 zenbakia daraman «Obras curiosas» sailean, 1787 zenbakia du.

⁵³ 36. orrialdetik 40. orrialdera zehazki agertzen dira esaerak.

goan zein dokumentuan berean. Ez dago dudarik, ordea, egilea Pedro Antonio Añibarro dela. Añibarroren letra argiak ez du inolako dudarik sortzen. Lehen dokumentu honetan berean, bestalde, Zarauzko frantziskotarren komentuko bigarren paremia-zerrendako ale berak aurkitzen dira. Hona lehen zerrenda⁵⁴:




⁵⁴ Euskarazko testua dagoen-dagoenean transkribatuko dugu. Puntuazioa bakarrik aldatuko dugu, ulergarriagoa izan dakigun. Gaztelaniazko testuari dagokionez, gure laneko beste testu batzuk bezala, gaurkotzea erabaki dugu.




26 sid. 135.
 Gualter la) Celango Tabou Celango-Escu
 ama nel el alongo brevec alongo Maria
 la Cuicela) 29
 Maña bear
 ez indar
 Mañ guiere maña q fuera
 30
 Obe da eor baido cor
 Mañ vale algo que nada
 31
 Gauba bertun
 pucha pastua
 de noche inda tar gatar tar pendar.
 32
 Catua sapien rai
 El papero guarda de polla
 33
 Obea dia amose
 ez beba orien color
 Obras son amoro, y no bueno Personer
 34 sid 78
 Ene balera uita encorren, hura 20
 dicho de an tuberna, aq hura la upua u balera
 35 sid 137
 Sustenaq Chauran pescari. Azaa ualdia
 quen ad eper ballorai quea uita uita ballorai.
 dize el dize de a Caldera, quita dize noyen
 36
 Jaso ora badozu lo gozo equico
 logo buena jazu, y dize a dize
 37
 Adinida ez nikate, dizeo dize bea dize
 dize fura dize dize
 38
 Porque quita dize gualde
 onde dize gozo dize.
 quita dize dize dize dize dize dize
 39
 Porquillo quito exaite on
 El dize dize dize
 40
 Laca ean orana orana no tiene
 palabr y dize dize dize dize dize.
 41
 Jangozari exaitez hura dize dize
 a dize dize y on el dize dize.

27
 dize batallas.
 seme andatallas.
 22
 Jita zuzari, seme paxxi
 El paxxi indutador, Nijo portador.
 23
 Jitizak onaxi ruzitac uxi
 el buen Entendedor poca palabras.
 24
 Exemontaxi agantaron beru aupra,
 berar jada beru plazaa dizea.
 berac jax in beru jax.
 El hexaco de agantac el e la fuella el
 de la maña, dize hura a tender de plaza.
 25
 Non dize dan quia de an
 donde fuego a hura hura dize
 26
 Dizean dizean uita, uita folla uita.
 En tiempo de higo no folla unigo
 27
 Jochanraa hura tu dize amalen
 Mañ e el dize que tar dize
 28
 Madax, ta andra, dize dize dize dize
 29
 Erita
 Erita Erita dize dize, e dize dize dize.
 No hai uita dize dize dize dize dize
 30
 Jaxtu beru dize dize dize dize dize dize
 dize dize dize dize dize dize dize dize
 dize dize dize dize dize dize dize dize
 31
 Ez bonaz, tu ez hura. dize dize dize dize dize
 ez ad dize dize dize dize dize dize dize
 32
 Jaxiigo ta queldigo
 a mañ fura mañ dize
 33
 Non dan dize, an dize dize
 la dize dize dize dize dize dize
 34
 Oitua eand dize dize } dize dize dize
 dize dize ta dize } dize dize dize
 el mal uso dize dize } dize dize dize
 35
 Quia me ez dize dize
 ta dize dize dize dize dize dize



40	Etze utre guexaa utre cheur axgala azdi utre vid	127	vid 35. Artoac oan leio mardoari guon aquit oric bolami
	112 Bucha ta quibezaro bat il, berte bat birta.	128	Euscho bano = Bilbo obago.
	113. Molobimaren idia; non da marabidia?	129	Laucimaron pupua = laumaximaren burua
	114 S. Vicente abta negueren birta.	130	Tou mal y bien abta.
	115 S. Yuzay artoac ocitaco gonigui S. Araror artoac ocin da balogor.	131	Amac equin; ta bici beaz.
	116 Ardi chiquia beti bildat.	132	Euxa axecharen birta, ta ezurric ea.
	117 Ldi chiquia beti bajaranha	133	Artoacn estabonari saldea ez leuquis omon beaz ezurric.
	118 Uxtacan bein dexara ta beacan opaxiaen abtaara.	134	Euxa auzon beiac = oxoc galantac o, exo andiac
	119 Eguardi ona = beza da yagua, beza gona	135	vid 28. Rati Liqui-camea, liqui. Ipe. abt. firiu simli an
	120 Bertelenguareren xomca lloba otora bano puscabot ota	136	Cabre fraccac. ; Dum et Saul inter Phylotaw?
	121 Buvuquin ona = lagunquin charaa.	137	Lecuan lecuan andiac = baltae dacturiae gurean gutiz andiac
	122 Haturon tatu = zollian eson, ta laian rediu.	138	Ez gatta - ta ez una
	123 Soltadua = amaren xome galdua.	139	Examentariaren etrean, rotta baxteun
	124 Zagmia croic = ta quinaxabea andric?	140	Lax beac lax da
	125 Vizcatera yanfa ot = Anolaca yanfa poz.	141	Ecinae extau leguexic
	126 Euzura ta abaxaa.	142	Laxetan cingui, unnetan ea - o, Laxetan zoin unnetan ero.
		143	Laxetan extaven bequic = extau gachic (Andar pag. 290) ezte nunci.



1. Esana da erraz, ta eguiña garratz. Esana ta eguina bi dira. *De dicho a hecho hay largo trecho*
2. Ichiten ezpoc moscorra, ifinico au⁵⁵ sor gorra.
3. Usoac joan, ta sareac⁵⁶ an. *Después de ido el conejo, amamos el consejo.*
4. Astoaren aoari eztia eztatorco⁵⁷ ongui. *No se hizo lo dulce para la boca del asno.*
5. Astoa⁵⁸ illa danean, garagarra bustanean. *Al asno⁵⁹ muerto la cebada al rabo.*
6. Asto urreduna izanic, echaco faltaco jaberico⁶⁰.
7. Naguia badoc astoa, emoioc astazai eroa.
8. Alper da Maria maquilatu, berez bear du⁶¹.
9. Esan dodazalaco eguiac, atera nai deustaz beguiac. *Mal me quieren mis comadres, porque digo las verdades.*
10. Zuc esan arren jaramon ez: beti izango naz leleguez.
11. Batu adi onacaz ta ona izango az. *Cum sancto santus eris.*
12. Ascorena dan astoac aldean daroaz otsoac.
13. Dendea badozu, lau begui beozu
14. Guizon ordien echean, axea francu goxean.
15. Ardiac beeca egonic, eztau jaten bedarric. *Oveja que bala, pierde bocado. //*
16. Auzoaren bizarra quentzen dacusunean, sartuizu zeurea urean. *Cuando la barba de tu vecino vieres cortar, echa la tuya a remojar.*
17. Ez cer jan, ta ez cer lan. *Sin oficio ni beneficio.*
18. Eguizu on, ta ez jaquin non. *Haz bien y no mires a quien.* Vid. 81

⁵⁵ Ezin da esan seguru nola idatzi duen *ifinico au* edo *ifinicoau*, hau da, batera edo bereiz idatzita. Guk tarte txiki bat ikusi uste izan dugu eta horrexegatik transkribatu dugu bereiz.

⁵⁶ Transkribatzaileak letra larriz jartzen du hitz hau.

⁵⁷ Lehen idazkeran *eztator* idatzi du, eta gero gainean *co* gehitu du. Guk, beraz, *eztatorco* transkribatu dugu.

⁵⁸ Hitz honen ondoren beltzUNETXO bat dator. Hasieran *Astoac* idatzi ote zuen?

⁵⁹ Jatorrizko eskuidatzian maiuskulaz.

⁶⁰ Hitz hau maiuskulaz jarria da.

⁶¹ Hemen ere tarte txikia jarri du transkribatzaileak *bear* eta *du* horien artean.

19. Gacha guraboc ator, bacar baldin baator. *Bien vengas mal, si vienes solo.*
20. Gure catuac bustena luce, bera lezcoac besteac uste. *Piensa ladrón, que todos son de su condición.*
21. Maria gurea goruetan, bear eztirean horduetan.
22. Ulle esque joanic, etorri zan⁶² mutilduric. *Fue por lana y vino esquilado.*
23. Bestentzac⁶³ medicu⁶⁴ noberentzat barberu⁶⁵ bere ez⁶⁶.
24. Cein asco, ta cein guichi, ullea ullea da beti. *La mona por más que se vista de seda, mona se queda.*
25. Otsoen ulle bat bacarric, ta bera becoquitic⁶⁷. *Del lobo un pelo y ese de la frente.*
26. Zoroa zur, bizcarrean egur. *El loco con la pena es cuerdo.*
27. Ascoren miña, zoroen atseguña. *Mal de muchos, consuelo de bobos. /37/*
28. Celango jabea, alango tresnea. Celango Peru, alango Maria. *Cual es la ama, tal es la criada*
29. Maña bear, ez indar. *Más quiere maña que fuerza.*
30. Obe da ecer baño cer. *Más⁶⁸ vale algo que nada.*
31. Gauba sartua, guztia nastua. *De noche todos los gatos son pardos.*
32. Catua sagüen⁶⁹ zai. *El raposo guarda de pollos.*
33. Obrac dira amore, ez berba onén colore. *Obras son amores y no buenas razones.*

⁶² Batera idatzi du: *etorrizan*.

⁶³ *Besterentzat* behar luke, baina Añibarrok *bestentzak* jarri du.

⁶⁴ Maiuskulaz idatzi du hitz hau.

⁶⁵ Añibarrok *barberu* hitza *mediku* hitzaren gainean jarri du. Azpian gelditu den *mediku* hitza ezabatu ondoren jarri du gainean *barberu*.

⁶⁶ Destinatibo kasua bi modu diferentetan jarri du, batean –c batez bukatua (*bestentzac*), eta, bestean, –t batez (*noberentzat*).

⁶⁷ Lehenengo idazketan *betondoric* idatzi du, eta, gero, *becoquitic*. Kasu ablatiboa bi modu diferentetara jarri du: –ric/–tic.

⁶⁸ Hitz honetan eta aurreko atsotitzean tildea gurea da.

⁶⁹ Trankribatzaileak hitz honetan dieresia jarri du gaztelaniazko erara irakur ez dadin.

34. Ene bolsea, urac encarren, ta urac aroa⁷⁰. *Dicho de un tabernero a quien llevó la agua su bolsa*. Vid. 78
35. Sartenac cirautsan perchari, quen adi eper baltzori⁷¹ vid. 127. Astoac esan leio mandoari, quen aquit orti belarri. *Dijo el sarten a la caldera, quita alli negra*.
36. Fama ona badozu, lo gozo eguizu. *Coge buena fama, y échate a dormir*.
37. Adisquida, ez aideric, dagoneä⁷² beartsuric. *Dum fueris dives...*
38. Baqueguilla sartu, gurabóc, ondo burua gorde beóc. *Quien desparte (o hace paces) hace la peor⁷³ parte*.
39. Bearguille gaisto, eracusle on. *El diablo predicador*.
40. Esana esan. Errana erran. *Palabra y piedra suelta no tiene buelta*.
41. Jangoicoari erreguz, bearrari malluz. *A Dios rogando, y con el mazo dando*. // Aita batzallea, seme ondatzallea.
42. Aita zurrari, seme⁷⁴ gastari. *A padre endureador, hijo gastador*.
43. Adizale onari izcuntzac urri. *Al buen entendedor pocas palabras*.
44. Errementari Argandacoa, berac auspoa, berac joa, berac plaza-
ra daroa. Berac lan, ta berac jan. *El herrero de Arganda, el se lo fuella, el se lo macha, el se lo lleva a vender a la plaza*.
45. Non sua dan, quea da an. *Donde fuego se hace, humo sale*.
46. Dirauen artean icoac, eztira faltaco escuac. *En tiempo de higos no faltan amigos*.
47. Inchaurreac lau, ta otsac amalau. *Más es el ruido que las nueces*.
48. Madari, ta andrea, ixilic dagoana da obea.
49. Ez oi da⁷⁵ ezcontza pobrereric, ez eriotza⁷⁶ aberatzic. *No hay casamiento pobre ni muerte rica*.

⁷⁰ Ez da garbi ikusten baina aroa izan behar du.

⁷¹ Hemen eperdi beltzori ulertu behar da. Eperdi hitzak konposatuan eper(t)– behar luke.

⁷² Azken –a honen gainean bi marratxo jarri ditu Añibarrok.

⁷³ Uste dugu batera idatzi dituela gaztelaniaz.

⁷⁴ Hitz hau maiuskulaz jarri du.

⁷⁵ Ezabaturik hasiera: eztago. Lehen idazketan, beraz, eztago ezcontza pobrereric jarri du. Gure begiz batera idatzirik ikusten ditugu: oida

⁷⁶ Maiuskuluz ikusten dugu hitz hau.

50. Santu ta santen artean arrizco orma bat bitartean⁷⁷. *Habla de la huida del hombre y la mujer aunque sean virtuosos. Entre santa y santo pared de cal y canto.*
51. Ez benaz, ta ez burlaz ez adi sartu nagusiaz. *Ni en chanzas ni en veras con prelado no partas peras.*
52. Larriago ta gueldiago. *A más pries, más vagar.*
53. Non dan baguea, an da zalea. *La privación es causa de apetito.*
54. Oitura/ecandu⁷⁸ gaistoa, bernea ausi ta bijoa. Usadio charrari bernea ebagui/iduna ebagui. *Al mal uso quebrarle la pierna.*
55. Eguia me, ez ordea ce. *La verdad adelgaza, pero no quiebra. /38/*
56. Otelena⁷⁹ beti leena⁸⁰.
57. Zurea zan gura, artu orain ardura. *Tu te lo quisiste, tu te lo ten.*
58. Aoac diño agur, ta biotzac lepoan egur. *Manos se besan.*
59. Emon eguic⁸¹ beguia urreari, nai badec⁸² izan ugari. *Rábanos y queso traen la corte en peso.*
60. Gazte ciñan, zartu zara, len ciñeana orain zara. *Adolescens juxta viam suam, etiam cum se.*
61. Calean badabil andrea⁸³, eztabil ondo echea.
62. Dagoanean bon bon, eztagoanean egon⁸⁴.
63. Bataleguez beste, auntzen odoloste.
64. Gure poza putz. *Nuestro gozo cayó al pozo.*
65. Zotzac eta paluac gure echecho tratuac.
66. Eche utsa, guerra utsa.
67. Ondo eguinen pagua, ate osteian⁸⁵ palua.

⁷⁷ Lehen idazketan *Santu bien erdian orma bat bitartean* izan da. Gero ezabatu ondoren goiko erara jarri du.

⁷⁸ Hitz biak batera datoz. Hitz bien arteko marra gurea da.

⁷⁹ Hitz honen ondoren *zu* ezabaturik dago.

⁸⁰ Lehen idazketan *lena* idatzi du, eta, gerora *leena*, gainean *e* bat duela.

⁸¹ Ezabaturik dago *eguic* horren azpian *egui*a.

⁸² Ez dago argi zer den. Bizkaieraz *badoc* izan behar luke, baina *badec* irakurtzen dugu.

⁸³ Eskuidatzian maiuskulaz jartzen du *Andrea*.

⁸⁴ Lehen idazkeran *ichadon* jarri du. Hitz hau ezabatu ondoren *egon* jarri du Añibarrok.

⁸⁵ Zer jartzen du *ostean* edo *osteian*? Aukera bietan bigarrenaren alde egingo nuke apustu. Badi-rudi *osteian* jarri duela, baina ez du *-i-* horren gainean punturik jarri. Gehienetan *-i-* gainean

68. Promes eguin bózu, cumpli beardozu⁸⁶.
69. Gura ezpozu becuric, igues urrin ocasiforic.
70. Urri baña ongui. *Poco, pero bueno.*
71. Aci da lollóa nola bedar gaistoa. *La mala hierba crece mucho.*
72. Ortic, edo emetic, dacuscan leguez eguic. *Dondequiera que fueres, haz como vieres.*
73. Goazan beste errira, an bere chacurac dira.
74. Esále, enzúnle. *El decidor debe ser oidor. Ya donde las dan, las toman.*
75. Ezta iñor ain gaistoric, beretzat bere danic. *Ninguno hay tan malo, que lo sea para sí.*
76. Ura bada gueldi, atatic beguira adi. *Del agua mansa me libre Dios.*
77. Bost baño, sei obe⁸⁷. Obe da ecer baño cer.
78. Ene mandoa, urac ecarri, urac aroa. *Dicho de un molinero y arriero. Vid. semejante 34/38/.*
79. Esquecoa esquean, ate bedarrean.
80. Lana da ugari, bearguillac urri. *Messis multa, operari pauci.*
81. Ura bada gueldi, atatic beguira adi. Vid. Sup. 76. Eguizu ongui, ta ez beguira nori. *Del agua mansa me libre Dios.*
82. Ezcondu baño len, contu cer eguiten den. *Antes que te cases, mira lo que haces.*
83. Asco eguin nai, guichi eguin bai. *Quien mucho abarca, poco aprieta.*
84. Mai, ta gai, *A pan y manteles. A bufo: comun.*
85. Erroman bazagoz, an legez zagoz. *Si fueris Rome... Donde quiera que te halles, haz como vieres /39/.*
86. Bauco nori irudi, atalac lapicoari. Utsa ta putza. Ezcondu baño len, contu cer eguiten den. Supra 82 *Antes que te cases, mira lo que haces.*
87. Nondic lan, andic jan. *El abad de donde canta de alli yanta.*
88. Nola dan hitztuna, ala da enzuna. Esale, enzule. *Como cantara el abad, responde el monacillo.*

puntua jartzen du, baina oraingoan ez da hain kontu argia.

⁸⁶ Batera irakurtzen dugu *beardozu*.

⁸⁷ Lehen idazketan *oba* jarri du eta gainean –e bat.

89. Char sortu ta char aci, char izango da beti.
90. Aideac alboan, baña aguinac aoan. *Más cerca estan mis dientes que mis parientes.*
91. Biotza da an, non ondasuna dan. *Ubi thesaurus vester est, ibi cor vestrum erit.*
92. Bai barriac, uruna zuri. *Todo principiante es alabado sirviente.*
93. Gura eztabenac queric, eztaguiela suric.
94. Arechac azala, ametzac bezala: zarrac ecin daguique gazteac bezala. *El roble y el quejigo tienen corteza semejante, pero los viejos no pueden hacer lo que los mozos.*
95. Ur emon ta uts egin, orixe eztoc atseguin. *Darle cerca y errar, no te puede agradar.*
96. Gox gorri, biar euri; gau gorri, biar aterri.
97. Machin ordiric ago, eure leporic ago⁸⁸.
98. Urte bete igaro da ezcondu nintzala, egun bat guichiago damutu jatala.
99. Ollarra ollo: to da no: no da to⁸⁹. *En casa de Mari Miguel él es ella y ella es él.*
100. Ardiac beeca egonic, eztau jaten bedarric. Vid. Supr. 15. Ucondoa urrean daucat, baya ecin mun eguin deutsat. *Oveja que bala pierde bocado.* Vid. 15
101. Isil, baña il. *Mátalas callando.*
102. Enzun ta isil, bayezco biribil. *Quien calla, otorga.*
103. Besterenac zai, ta ceuretzat ez gai. *Cuidados ajenos matan al asno.*
104. Chacur zarra ezta engañacorra. *A perro viejo no hay cuz cuz.*
105. Aita zurrari, semea gastari. Saldeari zurrutadea ta artoari usicadea. *A padre endureador, hijo gastador.* Vid 42.
106. Aria nolaco, arilla alaco. *Por el hilo se saca el ovillo.*
107. Nondic lan, andic jan. Gure umea ezta zurea langoa⁹⁰. *El abad de donde canta, de allí yanta.* Vid. Sup. 87

⁸⁸ 96. esaeraren ondoren ezabaturik dago beste esaera bat. Esaera horren buruan 97. Supra 27 dator. Ezabaturik esaera hau da: *Ascoren miña,/ zoroen atsegiña. Mal de muchos, consuelo de bobos.* Azken esaera hau da zutabeko azkena.

⁸⁹ Gaztelaniazko atsoitzaren ondoren dator Axularren *Gero* lanean dakarren esaldi edo esaera zahar hau.

⁹⁰ Esaera honetan transkripzio-arazotxo bat dugu: zein da zuzena *Zure umea* edo *Gure umea*? Gure ustez bigarrena da.

108. Peru ona baña belu. *Tarde nació Pedro para cabrero.*
109. Eldu zan miquea Sibilian⁹¹, an beré⁹² bustena eperdian. *¿Adónde irá el buey que no are?*
110. Edale ona, capa zarduna. *De⁹³ una mala capa un buen bebedor⁹⁴. /40/*
111. Etse utsa, guerra utsa; chacur argala, ardi utsa⁹⁵.
112. Quitu ta quitu; atso bat il, beste bat biztu.
113. Madabiriaren idia, ¿non da marabidia?
114. S. Vicente otza, neguaren biotza.
115. S. Yurgi, artoac ereiteco goxegui, S. Marcos, artoac ereinda⁹⁶ balegoz.
116. Ardi chiquia, beti bildots.
117. Idi chiquia, beti bigancha⁹⁷.
118. Urtean bein elexara, ta berean eperdiaz altarara.
119. Eguraldi ona, bera da yaque, bera gona.
120. Bestelengusuaren semea, lloba; atzea baño pusca bat oba.
121. Burugin ona, lagunguin charra.
122. Tratuen tratu, zortzian erosi, ta laüan saldu.
123. Soldadua, amaren seme galdua.
124. Zaguia osoric, ta guiñarrabea ordiric?
125. Vizcaitarra yanda⁹⁸ otz, arabarra⁹⁹ yan da poz.
126. Guzurra ta abarra¹⁰⁰.
127. Astoac esan leio mandoari: quen aquit ortic belarri. Vid 35.

⁹¹ *Sevilla* hiriaren euskal ordain zaharra dugu *Sibilia*.

⁹² Hemen azentuaren bidez desberdintza polit bat egiten du Añibarrok. Atsotitzak esan nahi du *han ere* buztana ipurdian duela. Bizkai-euskarako *bere* posesiboarekin beste zerbait ulertuko genuke, guztiz grazia gabekoa.

⁹³ Lehen idazkeran *Baxo una mala capa un buen bebedor* idatzi du. Gero *Baxo* eta *una* hitzen artean, goialdetxoan, *de* preposizioa jarri du.

⁹⁴ Berrogeigarren orrialdearen bigarren zutabeko azken atsotitza dugu hau.

⁹⁵ Esaera honen ondoren *vid* dator. Uste dugu errakuntza bat dela.

⁹⁶ Batera idatzi ote ditu *ereinda* edo bereiz? Berez *erein . da* idatzi du, puntu bat erdian dela.

⁹⁷ Esaera honetan, *beti* hitzean, *tildea* idatzi ote du –e– gainean?

⁹⁸ Nola idazten du Añibarrok *janda* edo *yanda*. Bi aukeren artean bigarrenaren alde egin dut.

⁹⁹ Maiuskulaz jatorrizkoan.

¹⁰⁰ Hemen bukatzen da zutabea.

128. Guecho baño Bilbo obago.
129. Lauciriaren pupua, laumaraiaren trapua. *Poco mal y bien atado*.
130. Amac eguin; ta bici bear.
131. Gure arecharen betea, ta ezcurric ez.
132. Artzen¹⁰¹ eztabenari saldea ez leusquio emon bear erraria.
133. Gure auzoan beiac, orroe galantac/ erro andiac¹⁰².
134. Bururic ez, ta chapela nai.
135. Luqui–cumea, luqui. *Saepe solet filius esse Patri*
136. Catua fracacaz. *¿Num et Saul inter Prophetas?*
137. Lecuan lecuan ardiac, baltzac eta zuriac, gurean guztiz andiac.
138. Ez gatza ta ez ura.
139. Errementariaren etsean, zotza¹⁰³ bartzun.
140. Lar beré¹⁰⁴ lar da.
141. Ecinac eztau legueric.
142. Zayetan ciogui, urunetan ero. Zayetan zoin, urunetan ero.
143. Icusten eztauen beguic eztau gachic. (Axular pag. 290) eztu minic¹⁰⁵.

Bilduma honetako zenbaki gehienetan esaera zaharrak daude. Badira, ordea, zenbait esamolde garbi-garbi: Añ. 126. *Guzurra ta abarra*. Añ. 138. *Ez gatza-ta ez ura*. Añ. 140. *Lar bere lar da*. Añ. 136. *Katua fracacaz*, esaterako, *Astoa polainekin bezalakoa ote da? Edo ondo emoten deutzaz astoari polainak? Hots, gauza bat beste bati ez dagokionean esaten dena.*

5.2.2. Añibarroren esaera zaharren lehen saila: euskal jatorri garbikoak

Esaera zahar garbien artean goraxeago aipatu ditudan hiru sailtako interesgarriena lehena da: euskal jatorriko esaera zaharrak. Lehen sail hone-

¹⁰¹ Lehen idazkeran *Artuten* idatzi du Añibarrok. Gero erdiko –ute– ezabatu eta gainean z jarri du.

¹⁰² Jatorrizkoan *orroe galantac ò erro andiac* dator.

¹⁰³ Nola idazten du *zotza/sotza?* Dudatan egon ibili ondoren, lehenaren alde egin dugu.

¹⁰⁴ Hemen ere tildearekin 109. atsotitza bezala.

¹⁰⁵ 119, 121, 122, 123, 124, 125, 128-129, 133, 137, 143 esaerak = zeinuaren bidez datoz: 128. *Guecho baño*=*Bilbo obago*; 129. *Lauziraren pupua*=*laumaraiaren trapua*. Zeinu hori ezabatu dugu.

tan hiru azpisail desberdinduko nituzke; batetik, Añibarrok berak bildutakoak eta beste bildumetan agertzen direnak; bestetik, Añibarrok bakarrik dakartzanak edo beste bildumetan aurkitu ez ditugunak; hirugarrenik, Añibarrok Larramendirengandik hartutako euskal esaera zahar garbiak. Hona hemen lehen azpisaileko zenbait adibide:

Añ. 21. *Maria gurea goruetan, bear eztirean horduetan*. Mogel 22. Mairija guria gorubetan, biar ez dan ordubetan.

Añ. 28. *Zelango jabea, alango tresnea*. Larramendi: A tal abad, tal Monacillo, *nolacó jabeá, alacó tresneá*. Lat. Dignum patella poerculum. Esaera hau gaur egun ere bizirik daukagu. J. M. Etxebarriak Zeberion honelaxe bildua dauka: *zelango baldea, alango tresnea*.

Añ. 34. *Ene bolsea, urac encarren, ta urac aroa* eta Añ. 78. *Ene mandoa, urac ecarri, urac aroa*. Bi aldaera hauek oso antzekoak dira. Garibaik bigarrenaren berdin-berdina bildu zuen bere bi paremiabildumarik ezagunenetan: A 19: Por la hacienda adquirida por malas formas, como de ordinario se consume por las mismas, dicen: *Gure mandoa urac engarren eta urac aroa*. Nuestro macho el agua te traxo, y el agua te lleva. B 8: «Por los que adquieren hacienda con malas vias, y se las consume presto, dicen: Nuestro macho, Agua el te traxo, y agua te lleba. *Gure mandoa, Ur-ac engarren, eta urac aroa.*»

Añ 35. *Sartenac cirautsan perchari quen adi eper baltzori* eta Añ 127. *Astoac esan leio mandoari quen aquit ortik belarri*. Bi esaera hauen antzekoa da Mog. 49. *Topinac galdariari, ipur balz*.

Añ 41. *Aita batzallea, seme ondatzallea* bere «Voces Bascongadas» berean agertzen den A padre allegador, hijo expendedor: *aita zurrari, seme gastari; aita biltzalle, seme galtzalle*. Añ. 105. *Aita zurrari seme gastari*.

Añ. 45. *Non sua dan, quea da an*. Añ. 93. *Gura extabenac queric eztaguïela suric*. Mog. 12. *Suba daguan lecuti, queia*.

Añ. 47. *Inchaurrac lau, ta otsac amalau*. Askotan dokumentatzen den esaera dugu.

Añ. 63. *Bataleguez beste, auntzen odoloste*. Mogel: 62. *Batalaco beste, auntzaren odoloste*.

Añ. 96. *Gox gorri, biar euri; gau gorri, biar aterri*. Euskal tradizio osoan bilduta dagoen eguraldi-esaera da.

Añ. 104. *Chacur zarra ezta engañacorra*.

Añ. 109. *Eldu zan miquea Sibilian, an bere bustena eperdian*.

Añ. 110. *Edale ona, capa zarduna*.

Euskal tradizio jatorrekoak dira, era berean, zenbaki hauek dituztenak: 111, 112, 113, 114, 115, 116, 117, 118, 119, 120, 121, 122, 123, 124, 125, 127, 128, 129, 131, 132, 134, 135, 137, 139, 141, 143. Beste bildumatan aurkitu ez ditugunak eta herri-atsotitz itxura osoa dutenak hauexek dira: 2, 9, 10, 14, 23, 29, 32, 46, 48, 50, 52, 55, 56, 57, 58, 59, 60, 61, 65, 70, 71, 72, 75, 79, 83, 86, 92, 97, 98, 106, 107, 108, 131, 132, 136.

5.2.3. Añibarroren 98. *paremia iruzkina*

Uste dut Añibarroren 98. *Urte bete igaro da ezcondu nintzala, egun bat guichiago damutu jatala* paramiak merezi duela iruzkin luze eta zehatza. Añibarroren 98. *paremia* ez da besterik koplak bat baino. Koplak hain soltean edo beste koplak batzuekin nahaste etorri ohi da. Soltean badator, dantza-koplak bat da. Dantza-koplak honek, dantza-koplak zaharrek izan ohi duten gaia ez ezik, ironia ere badu:

Urte bete igaro da
ezcondu nintzala,
egun bat guichiago
damutu jatala.

Juan Manuel Etxebarriak argitaraturiko *Zeberioko kantak* liburuan, «Ez-kondu damutuaren bertsoak» sailean (Etxebarria: 1999), bederatzigarren koplak haxe dator:

Biar da urtebete
ezkondu nintzala,
egun bat gitxiago
damutu nintzala.

Kopla hau konposizio luzeago batean txertaturik aurkitzen dela esan dugu. XIX. mende bukaeran Etxeberriak eta Gimonek¹⁰⁶ *Ecos de Vasconia* laneko 29 kantua guztiz interesgarria da. Kantuak «Nere senarra» du izenburua, hona hemen:

1

Esaten dute bada ezcondu, ezcondu,
et[a] ez zait secular gogoric berotu.
Ah! cer zoriorduco¹⁰⁷ ezcondu bearra,
geroztic egiten det sarritan negarra.

2

Bigar da urte bete ezcondu nitzala,
egun bat guichiago damutu zaidala;
nere bodaco eguna pasatu ezquero
egun bat cer dan ona ez daquit arrezquero.

3

Plazan, eder ta galan[t] ezcondu artean,
ni ere ala nitzan dembora batean;
cembait icusten ditut ezcondu ta guero
esanaz dabiltzala ay! libre banengo.

4

Ay! Au bici modua sortu da neretzat,
ez daucat olioric porru saldarentzat;
azac eta borrajac nitzanean bacarric
beti jaten nituen olio z beteric.

¹⁰⁶ Zilegi bekit euskal ortografiara ekartzea *Echeverria* eta *Guimon* deiturak. Jon Bilbao bere biografian 1896 ingurutsuan argitaratu zela uste du *Ecos de Vasconia arreglados para piano y canto por los maestros Echeverria y Guimon* lana.

¹⁰⁷ Interesgarria da *zoriorduko ezkondu bearra!* esaldia. *Zorioneko ezkondu bearra!* edo *are zoritxarreko ezkondu bearra!* adierazten du. Bizenta Mogelengan (Ipui onak 15) ere aurkitzen da: *daudenak toki goietan /eror ditezke beraz:/ arrotu bear ez gera/ zori ordu onetan eta baita Jose Bizente Etxagarairen testu batean (ikus *Festara* liburua 161 or.) : *Karlos odolgiroa,/ zital arritua,/ zori ordu gaitzean/ mundura sortua.**

5

Araco guizon ori da nere senarra,
ascotan ecartzen dit beguira negarra;
posible baldin balitz imposible dana,
pozic utzico nuque nic nere senarra.

6

Nere senarrac ez du beste equintzaric
tabernara joan eta orditu besteric;
echera etortzeco ay! nere bildurra
noiz icusico detan bizcarrean egurra.

7

Ezcondu ezquerostic musua garbitzen
iturrico urican ez det nic gastatzen;
beguietatic bera datorren negarra
musua garbitzeco bastante da bera.

8

Ezcondu nitzanean bost gona nituen,
bi prenda jarri eta bi saldu nituen;
soñean daucadana¹⁰⁸ guciz daucat zarra,
berriac eguiteco esperantza charra.

Kanta indartsu honetako bigarren ahapaldiko lehen erdia *Bigar da urte bete ezcondu nitzala, egun bat guichiago damutu zaidala* eta gure 98. paremia bat datoz bete-betean. Kantu honen aldaera bat baino gehiago daude batuak. Azkuek, esaterako, bere CPV lanean 500 zenbakia duen «Ezcondu nitzanean» eredu aberatsa dakar. Azkueren ereduan *Bigar da urtebete ezcondu nitzala, egun bat guichiago damutu zaidala* beste era batera dator: *Ezcondu nitzala ia dira urte bi, eztiot kontzejurik emoten ñori*. Gure koplá Aitzolen *Colamus carmina nostra* bilduman ere badator. Hona hemen:

¹⁰⁸ Jatorrizko testuan hitz bitan: *dauca dana*.

1

Ai au bizimodua sortu da neretzat,
oliorikan ez da porrusaldarentzat.

2

Biar da urtebete ezkondu nintzala,
egun bat gutxiago damutu zaitala.

3

Ezkondu nintzanean bost gona nituan,
bi prenda utzi eta bi saldu nituan.

4

Soñian daukadana ausia ta zarra,
berriak egiteko esperantza txarra.

5

Orrako¹⁰⁹ gizon ori da nere senarra,
bost aldiz ekarri dit begira negarra.

6

Baldin posible balitz imposiblea da,
pozik salduko nuke nik nere senarra.

Kanta honetako bigarren ahapaldia Añibarroren paremiarekin bat dator. Aitzolen *Colamus carmina nostra* bilduma berean kanta eredu hobeago bat aurkitzen da, zorionez. Izenburua ere adierazgarria da «Ezkondamua»:

(1)

Gaztea nintzanean denbora batean,
ez nintzan sosegatzen ezkondu artean,
senarra artu eta andik aurrerian
egunero nai zuan olloa eltzian.

¹⁰⁹ Jatorrizko eskuizkribuan *Orralko*.

(2)

Ezkondu nintzanean bost gona nituan,
bi prenda para eta bi saldu nituan.
Soñean daukatana guztiz daukat zarra
berria egiteko esperantza txarra.

(3)

Ezkondu ezkeroztik, musua garbitzen
iturriko udika[n] ez det erabiltzen.
Begietati bera datorren negarra
musua garbitzeko naikoa da bera.

(4)

Orrako gizon ori da nere senarra,
bost aldiz eragin dit minbera bearra.
Al izan baldin banu, ez nezakeana
pozik salduko nuen senartzat zaidana.

(5)

Bigar da urte bete ezkondu nintzala,
egun bat gutxiago damutu zaidala.
Nere eztei eguna irago ezker
egun bat onik ere ez det gero.

(6)

Ezkondu ta ondoren, illabetegarren
porrusaldia neukan oliorik gabe;
Nere zorigaitozko ezkondu bearra
sarritan ekartzen dit begira negarra.

(7)

Aurtxo bat sabelean, bestea lepuan,
gizona tabernan ta ogia auzuan;
andik datorreneko bildurra kolkuan
eman ez dakidazen egurrak lepuan.

(8)

Esaten dute, bada, ezkondu, ezkondu.
 Neri etzait oraindik gogorik berotu.
 Askori entzuten diot ezkondu ta gero
 esaten dabiltzela, ai libre banengo!

Bi aldaera hauek, Etxeberriarena eta Gimonenak zein *Colamus carmina nostra* bildumako argitaragabeak, duten indarra harrigarria da. Guri dagokigun Añibarroren esaera bigarren eredu honetako bosgarren ahapaldian dator: *bigar da urtebete ezkondu nintzala, egun bat gutxiago damutu zaidala*. Esaldi indartsu hori beregainki esaera sententziatsu bihurtu da. Nahiz eta tankera honetako adibide ugari dauden, gure hau ere adibide egokia dela deritzat. Behin kantutik hauek hona ekarriarik, eman ditzadan *Dantza-kopla zaharrak* liburuan argitara nituen Ataungo kopla-bildumako sei kopla, 171 zenbakitik 176 zenbakira bitartekoak:

171

Orroko txar-txar ori
 da nere senarra,
 bost aldiz ekarri dit
 begira negarra.

172

Begira negarra ta
 soñe[r]a egurre,
 lenagotikan ere
 banuan bildurre.

173

Gaztea nintzanean,
 denbora batean,
 ez nintzan sose[g]atu
 ezkondu artean.

174

Ezkondu eta gero
 urrengo goizean,
 sotenak eman zitzaiz
 oiaren aurrean.

175

Ezkondu nitzanean
bost gona nituan,
bi prenda jardun eta
bi saldu nituan.

176

Soñean daukadan[a]
gutziz dauket zarra,
berrie egiteko
esperantza txarra.

Juan Arin Dorronsorok bildu zuen koplak bildumako berrehun aleetatik sei bakarrik ekarri ditut puntu honetara. Sei horietan ez dator Añibarrok dakarren koplak paremia bihurtua, bai, ordea, Etxeberriaren eta Gimonen zein Aitzolen funtseko kantuen oihartzun bizi-bizia.

5.2.4. Añibarroren paremien bigarren saila: itzulpen-kutsukoak

Añibarroren bildumako paremia zenbaitek euskal itzulpena dirudite bete-betean. Ez dute jatortasunik ez benetakoen itxurarik. Itzulpena hoskide-tasuna zaindurik eginda dago, gehienetan. Baliteke atal honetan jarriko dugun bat edo beste, guri itzulpena dela iruditu arren, ez izatea. Hona zerrenda:

Añ. 11. *Batu adi onacaz ta ona izango az.* Cum sancto santus eris.
Añ. 29. *Maña bear, ez indar.* Más quiere maña que fuerza.

Añ. 60. *Gazte ciñan, zartu zara, len ciñeana orain zara.* Adolescens juxta viam suam, etiam cum se.

Añ. 69. *Gura ezpozu becatuic, igues urriñ ocasiñoric.*

Añ. 72. *Ortic, edo emetic, dacuscan leguez eguic.* Donde quiere que fueres, haz lo que vieres.

Añ. 75. *Exta iñor ain gaistoric, beretzat bere danic.* Ninguno hay tan malo, que lo sea para sí.

Añ. 80. *Lana da ugari, bearguillac urri.* Mesis multa, operari pauci.

Añ. 84. *Mai, ta gai*: a pan y mantel.

Añ. 85. *Erroman bazagoz, an leguez zagoz*. Si fueris Rome.

Atal honetara ekarritako paremiak itzulpen-kutsu garbia dutenak dira, itxura guztien arabera. Badira, nola ez, zerrenda honetara ekarri gabeko itzulpen-kutsuko esaera gehiago ere.

5.2.5. Añibarroren paremien hirugarren saila: Larramendigandik hartuak

Larramendik baditu euskal herri-esaera garbiak (*txakur zaarra ez da en-gainakorra, Alper da Maria makilatu...* eta abar), baina baditu itzulpenaren tankera dutenak ere. Lehen sailekoa da, esaterako, 8. *Alper da Maria maquillatu, berez bear du* esaera XIX eta XX mendeetako bilduma askotan aurkitzen den esaera ugarienetakoa. Larramendik azken esaera hau, esaterako, *apaleado* hitzean dakar:

Alper da Maria maquillatu, berez beardu. Refran, que enseña, que no sirven los palos para hazer, v. g. discreto à un tonto, si de suyo no tiene fondos. En Navarra lo dicen assi: Alper da Maria maquillatu, ezta berdin centzatu (I-83or.).

Itzulpena diruditen asko eta asko kopiatu zituen Añibarrok Larramendiren 1745. urteko hiztegitik. Ondorengo zerrendan Añibarroren esaeren ondoren Larramendirenak jarriko ditut. Adibidea eman ondoren non datoren adieraziko dugu parentesi artean. Hona zenbait adibide:

Añ. 1. Esana da erraz, ta eguiña garratz. Larramendik honelaxe dakar *dicho* hitzean: *Del dicho al hecho ay gran techo*¹¹⁰, esana da erraz, ta eguiña garratz, Lat. Loqui facile, praestare difficile (I-290)¹¹¹.

Añ. 4. Astoaren aoari ezta eztatorco ongui. Larramendik *asno* hitzean: *No se hizo la miel para la boca de el asno*, astoaren aoari ezta eztagoca ongui. Lat asinus in unguento (I-104).

¹¹⁰ Errata bat dagoela dirudi: *techo* hitzaren ordez *trecho* behar luke.

¹¹¹ Lehen tomoa 290. orrialdea.

Añ. 5. Astoa illa danean, garagarra bustanean. Larramendik *asno* hitzean: *Al asno muerto, la cebada al rabo*, astoa illa danean, garagarra bustanean. Lo mismo significa que estotro refràn, usoac joan eta sareac eda. Lat. post bellum auxilium (I-104).

Añ. 6. Asto urreduna izanic, echaco faltaco jaberic. Larramendik *asno* hitzean: *Asno con oro, alcanzalo todo*, asto urreduná edoceiñen jabe da. Lat. Asinus aureus quidlibet obtinet (I-104).

Añ. 7. Naguia badoc astoa, emoioc astazai eroa. Larramendik *asno* hitzean: *A asno tonto, harriero loco*, naguia bada astoa, emayoc astazai eroa (I-104).

Añ. 12. Ascorena dan astoac aldean daroaz otsoac. Larramendik *asno* hitzean: *Asno de muchos, lobos le comen*, ascorená da astoá, aldean beardu otsoá. Lat. Plurium asinum lupi devorant (I-104).

Añ. 13. Dendea badozu, lau begi beozu. Larramendik *atendido* hitzean: *Quien tiene tienda que la atiende*, denda badec, arreta bear dec. Lat. Intentus fis in rem tuam (I-110).

Añ. 16. Auzoaren bizarra quentzen dacusunean, sartuizu zeurea urean. Larramendik *barba* hitzean: *Cuando la barba de tu vezino vieres pelar, echa la tuya à remojar, auzocoaren bizarra moisten dacusunean, sarrezazu zeurea urean*. Lat. Disce alieno periculo sapiens esse (I-129).

Añ. 18. Eguizu on, ta ez jaquin non. Larramendik *bien* hitzean: *Haz bien, y no mires à quien*, eguizu on, ta ez jaquin non. Lat. Faveto cuilibet quanvis igonoto (I-137).

Añ. 19. Gacha guraboc ator, bacar baldin baator. Larramendik *bien* hitzean: *Bien vengas mal, si vienes solo*, gaitza naibadec ator, bacar baldin baator. Lat. Venire solum haud fuevit infortunium (I-137)¹¹².

Añ. 22. Ulle esque joanic, etorri zan mutilduric. Larramendik *lana* hitzean: *Ir por lana, y bolver trasquilado*, ille esque joanic etorri musquilduric. Lat. Novacula in cotem (II-33).

¹¹² Oihenartek ere badakar eta inskripzioa ere bada. Guk uste dugu Larramendirengandikoa dela. Ohartzekoa da Añibarroren 18 eta 19 atsotitzak Larramendiren hiztegioko orrialde berean agertzen direla.

Añ. 24. Cein asco, ta cein guichi, ullea ullea da beti. Larramendik: *lana* hitzean *Qual mas, qual menos, toda la lana es pelos*, cein asqui, ta cein guti, illea ille da berdin. Lat. Omnia similia (II-33).

Añ. 25. Otsoen ulle bat bacarric ta bera betondoric/becoquitic. Larramendik *lobo* hitzean: *De el Lobo un pelo, y esse de la frente*, otso-tic illebat bederic, ta hura betondotic. Lat. Ab avaro, vel ab hoste quidlibet accipias (II-55).

Añ. 26. Zoroa zur, bizcarrean egur. Larramendik *loco* hitzean: *El loco con pena es cuerdo*, eroa zur, bizcarrean egur. Lat. Malo accepto stultus sapit (II-55).

Añ. 27. Ascoren miña, zoroen atseguña. Larramendik *mal* hitzean: *Mal de muchos, consuelo de bobos*, ascoren miña choroen atseguña. Lat. Levius sit stultis malum quod pluribus commune est (II-62).

Añ. 30. Obe da ecer baño cer eta Añ. 77. Bost baño, sei obe: Obe da ecer baño cer. Larramendik *nada* hitzean: *Como quien no dice nada*, ecer ezpaliz bezála, Lat. Quasi si nihil esset. (10) *Mas vale algo que nada*, obedec ecer baño cer. Lat. Aliquid quam nihil melius est (II-109).

Añ. 33. Obrac dira amore, ez berba onén colore. Larramendik *amor* hitzean: *Obras son amores, que no buenas razones, Obrac dirade amoré, ez hitz ónen colore* (I-69).

Añ. 36. Fama ona badozu, lo gozo eguizu. Esaera honetan ez dirudi guztizko kopia egin zuenik. Larramendik *cobrase* hitzean: *Cobra buena fama y echate à dormir*. Otsande ona badezú, lo gozó eguiñ ezazú. Lat. Bonum parato nomen, & tutus cuba (I-206).

Añ. 37. Adisquida, ez aideric, dagonea beartsuric. Larramendik *desdén* hitzean: *Quien pobreza tien, de sus deudos es desden*, ez aitaric deu, ez aideric, dagoanac bearturic. Lat. Pauper ubique jacet, graviorque parentibus error. (I-273)

Añ. 38. Baqueguilla sartu, gurabóc, ondo burua gorde beóc. Larramendik *despartir* hitzean: *Quien desparte lleva la peor parte*, paquegille sartu naibadéc, ongui burua gorde beardéc. Lat. Rixantes qui adoritur sedare, ictu graviori caeditur (I-283).

Añ. 39. Bearguille gaisto, eracusle on (El diablo predicador). Larramendik *diablo* hitzean: *El diablo predicador*, beargille gaisto eracusle on. Lat. Ab hoste consilium (I-290).

Añ. 40. Esana esan. Errana erran. *No tiene palabra y piedra suelta buelta*. Larramendi *dicho* hitzean: *Lo dicho dicho*, esana esan, errana erran. Lat. Dictum factis exequar (I-290).

Añ. 41. Jangoicoari erreguz, bearrari malluz. Larramendik *Dios* hitzean: *A Dios rogando, y con el mazo dando*, Jaincoari erreguz, bearrari malluz. Lat. Deus facientem adjuvat. (I-293)

Añ. 42. Aita zurrari, seme gastari. Larramendik *endurador* hitzean: *A padre enduredor, hijo gastador*, aita zurrari semea gastari. Lat. Tenacem patrem filius excipit prodigus (I-320).

Añ. 43. Adizale onari izcuntzac urri. Larramendik *entendedor* hitzean: *Aditzalle onari hizquetac urri*, Lat. Intelligenti pauca (I-328).

Añ. 44. Errementari Argandacoa, berac auspoa, berac joa, berac plazara daroa. Berac lan, ta berac jan. Larramendik *follar* hitzean: *El herrero de Arganda, el se lo fuella, y el se lo macha, y el se lo lleva à vendar à la plaza*; Errementari Argandacoa, berac auspoa, berac joa, berac plazara daroa. Y mas breve, berac lan, ta berac jan. Lat. Omnia fibi munia praestat (I-374).

Añ. 51. Ez benaz, ta ez burlaz ez adi sartu nagusiaz. Larramendik *pera* hitzean: *Ni en burlas, ni en veras con tu amo no partas peras*, ez benaz, ta ez burlaz ez adi josta nagusiaz. Lat. Noli consuetudine heri nimia uti. (II-161)

Añ. 53. Non dan baguea, an da zalea. Larramendik *privación* hitzean: *La privacion es causa de el apetito*, non dan baguea, an da zalea. Lat. Nitimur in vetitum semper, cupimusque negata (II-196).

Añ. 54. Oitura/ecandu gaistoa, bernea ausi ta bijoa. Usadio charrari bernea ebagui/ (iduna) ebagui. Larramendik *costumbre* hitzean: *A mala costumbre quebrala la pierna*, oitura gaistoari bernazaquia autsi (I-239)

Añ. 64. Gure poza putz. Larramendik *gozo* hitzean: *Nuestro gozo en el pozo*, gure pozá putz. Lat. Gaudium nostrum excidit (I-400).

Añ. 76. Ura bada gueldi, atatic beguira adi. Larramendik *manso* hitzean: *De el agua mansa me libre Dios*, ura bada gueldi, artatic beguira adi. Lat. Cave tibi à vultu blando (II-69).

Añ. 83. Asco eguin nai, guichi eguin bai. Larramendik *abarca* hitzean: *Quien mucho abarca, poco aprieta*: asco abarcatzeá, da guichi estutzea. Asco eguin nai, guichi eguin bay. Lat. Dum complecti vis multa pauca tenes (I-2).

Añ. 86. Ezcondu baño len, contu cer eguiten den. Larramendik *antes* hitzean: *Antes que te cases, mira lo que hazes*, ezcondu baño len, contu cer eguiten den. Lat. Priusquam rem fuscipias, consulto opus est (I-79).

Añ. 87. Nondic lan, andic jan. Larramendik *abad* hitzean: *El abad de donde canta de allí yanta*, nondic lan, andic jan (I-1).

Añ. 88. Nola dan hitztuna, ala da enzuna. Larramendik *abad* hitzean: *Como canta el Abad, responde el Monacillo*, nola da hitztuna, ala da enzuna, esale, enzule (I-1).

Añ. 89. Char sortu ta char aci char izango da beti. Larramendik *puerco* hitzean: *De rabo de puerco nunca buen virote*, char sortu, ta char aci, char izango da beti. Lat. mali corvi, malum ovum (II-204).

Añ. 90. Aideac alboan, baña aguinac aoan. Larramendik *pariente* hitzean: *Mas cerca están mis dientes, que mis parientes*, aideac alboan, ortzac ordea aboan. lat. Mihi magis quam alijs cofulere debeo (II-145).

Añ. 95. Ur emon ta uts eguin, orixe eztoc atseguin. Larramendik *cerca* hitzean: *Un modo proverbial dize*, urr emán ta utseguin, orixé eztéc atseguin, que quiere dezir, que no es cosa de gusto errar una cosa, dandole cerca (I-189).

Añ. 100. Ardiac beeca egonic, eztau jaten bedarric. Larramendik *balar* hitzean: *Oveja que bala, bocado pierde*, ardiac beeca egonic, eztu jaten belarric. lat Dum balat ovis, necesse est abstineat pastu (I-125).

Añ. 101. Isil, baña il. Larramendik *callar* hitzean: *Mátalas callando*, isil, baña hil. Lat. Occultè, sed solerter rem gerit (I-161).

Añ. 102. Enzun ta isil, bayezco biribil. Larramendik *callar* hitzean: Quien calla, otorga, enzun ta isil, bayezco biribil. Lat. Qui tacet, consentire videtur (I-162).

Añ. 103. Besterenac zai, ta ceuretzat ez gai. Larramendik *cuidado* hitzean: Cuidados agenos matan el asno, besterenac zai, eta ceretzat ez gai. Lat. Aliena saepe cura stultum conficit. (I-246).

Añ. 104. Chacur zarra ezta engañacorra. *A perro viejo no hay cuz*. Lar. *Cuz cuz* hitzean: *A perro viejo no ay cuz cuz*, chacur zarrá ezta engañacorrá. Lat. Canem vestustum neitiquam falles (I-249).

«Voces Bascongadas» lanean agertzen den *A muertos y a idos no hay más amigos*: c. Adiskide guchi illai, ta joan diranai. Larramendik *amigo* hitzean: *A muertos y à idos no ay amigos, adisquide guichi, illai, ta joan diranai* (I-68).

Zein berdintasun handia duten erakustearren jarri ditut parez pare iturri bietako paremiak. Berdintasuna eta are kopia argia ere, zalantzarik gabe. Añibarrok Larramendiren paremiak hitzez hitz errepikatzen ditu eta zenbaitetan Bizkaiko euskarara egokitzen ditu. Adibide argigarrietako bat Añ. 12. Ascorena dan astoac aldean daroaz otsoac. Larramendik *asno* hitzean: ascorená da astoá, aldean beardu otsoá. Lat. Plurium asinum lupi devorant (I-104).

Goraxeago iruzkindu dudan koplá zahar esaera bihurtua Larramendik *viejo* hitzean dakarrenan da: *aritzàc azalá, ametzác bezala: zarrac ecin daguiqae gazteac bezala*: Y quiere decir, que el quexijo especie de roble, y el roble echan, ò tienen corteza femejante, pero que los viejos no pueden hazer lo que los mozos.» Añibarrok apur bat aldatua dakar: 94. Arechac azala, ametzac bezala: zarrac ecin daguique gazteac bezala. *El roble y el quejigo tienen corteza semejante, pero los viejos no pueden hacer lo que los mozos*. Larramendiren *aritzá* Añibarrok Bizkaiko euskarara dakar: *aretxa*. Hiztegiko okerra, *daguiqae*, zuzendu egiten du: *daguique*.

5.2.6. Añibarroren bigarren paremia-bilduma: Zarauzko komentukoa

Zarauzko frantziskotarren komentuan Añibarroren eskuizkribuen artean aurkitzen da «Catálogo de voces sueltas» agiria. Orrialde solte batzuetan

hitz-zerrendak datoz. Hitz zerrenden artean plama batean *Refranes vascongados* saila dator. Agiri hau 55 zenbakia duen kutxan dator *documento 5 [55-5]* signatura duela. Dokumentu honek bertako *Catálogo del archivo provincial de Zarautz* agiri-liburuan, 18 zenbakia daraman «Obras curiosas» sailean 1.787 zenbakia darama.

Bigarren dokumentu honetako paremiak zenbakituz gero, 52 aleko zerrenda ateratzen da. Lehen bilduma baino askoz laburragoa da, heren bat, baina erabat interesgarria. Aurreko zerrendan bezala euskal paremiak dauden-daudenean transkribatuko ditut. Hona hemen zerrenda:

1. Esan dodazalaco eguiac, atara deustaz veguiac.
2. Alper da Maria maquilatu, ecandu gaistoac beti zaitu.
3. Zuc esan arren jaramon ez, beti izango nas len leguez.
4. Esana da erraz ta eguiña garratz. *De dicho a hecho hay largo trecho.*
5. Batu adi onacaz, ta ona izangoaz.
6. Ichiten ezpoc moscorra, ifinicoau¹¹³ sor, gorra.
7. Asto urreduna izanic, echaco faltaco jaberic.
8. Ascorena dan astoac, aldean daroaz otsoac.
9. Naguia bada astoa, emojoc astazai eroa.
10. Astoa illa danean, garagarra bustanean¹¹⁴.
11. Usoac joan, eta sareac an.
12. Astoaren aoari, eztija eztator¹¹⁵ ongui.
13. Dendea badozu, lau begui bear dozu.
14. Guizon ordien echean, axea francu goxean¹¹⁶.
15. Ardiac guedarrez egonic, eztau jaten bedarric.
16. Auzocoen bizarra quentzen dacusunean, sartuizu zeurea urean.
17. Ez cer jan, ta ez cer lan: *sin oficio ni beneficio.*
18. Eguizu on ta ez jaquin non: *haz bien y no mires a q[uien].*
19. Gacha guraboc ator, bacar baldin baator: *bien vengas mal, si vienes solo.*

¹¹³ Eskuidatzian *imfinicoau* jarri du transkribatzaileak. *Imini/ifini* aldaeren artean duda egin duela dirudi.

¹¹⁴ Eskuidatzian *bustanean* hitza –s– luzerekin transkribatua dago.

¹¹⁵ Lehen idazkeran *ezjaco* edo *ezjoaco* idatzi du transkribatzaileak. *Joan* aditzari dagokion adizkia idatzi duela dirudi. Bigarren idazkeran argiro ikusten da: *eztator*.

¹¹⁶ Eskuidatzian *coxean* irakurtzen da.

20. Sartenac¹¹⁷ cirautzan galdareari, quen adi eper baltz ori.
21. Fama ona badozu, lo gozo eguizu: *coge buena fa[ma]*.
22. Adisquida¹¹⁸ ez aideric, dagoana bearturic.
23. Baqueguilla sartu guraboc, ondo buruba gorde bear doc: *quien desparte (o hace pazes) lleva la peor parte*.
24. Bearguille gaisto, eracusle on: *el diablo predicador*.
25. Esana esan; errana, erran.
26. Jaincoari erreguz, bearrari malluz: *a Dios rogando, y con el mazo dando*.
27. Aita zurrari, seme gastari: *a padre endureador, hijo gastador*.
28. Aditzalle onari, izcuntzac urri: al buen entendedor pocas palabras.
29. *El herrero de Arganda el se lo fuella, el se lo macha, y el se lo lleva a vender a la plaza*: Errementari Argandacoa, berac auspoa, berac joa, berac plazara daroa. Más breve: *berac lan, ta berac jan*.
30. *Donde fuego se hace, humo sale*: non suba dan, quea da an.
31. *En tiempo de higos no faltan amigos*: dirauben artean icoac eztira faltaco escubac.
32. *Más el ruido q[u]e las nueces*: inchaurrac lau, ta otsac amalau.
33. Bata lezcoa beste¹¹⁹, auncen odoloste.
34. *La mujer y la pera, la q[u]e calla es buena*: Madari ta andrea, ixilic dagoana da obea.
35. *Ni en burlas ni en veras, con tu amo no partas peras*: ez benaz ta ez burlaz ez adi sartu nagusiaz.
36. Larriago ta gueldiago: *a mas priesa, mas vagar*.
37. Non dan baguea, an da zalea; *la priv[aci]on es causa del ape[ti]to*.
38. Celango Jabea, alango tresnea: *cual es la ama tal es la criada*.
39. Oitura, ecandu gaittoa bernea autsi ta bijoa: *al mal uso quebrar-le la pierna*.
40. Eguia me, ez ordea ce: *la verdad adelgaza pero no quiebra*.
41. Zurea zan gura, artu orain ardura: *tu te lo quisiste tu te lo ten*.

¹¹⁷ Eskuidatzian *Gald* idatzi du lehenengo transkribatzaileak eta gero ezabatu egin du. *Gald*–hasierak, dudarik gabe, *gald*(*areac*) esan nahi.

¹¹⁸ Transkribatzaileak paremia hau ez batez hasi du. Hitza ezabatu ondoren *Adisquida* jarri du.

¹¹⁹ Eskuidatzian beste hitzak –s– luzea duela.

42. Emon eguic beguia urreari nai badec izan ugari: *rabanos, y queso traen la Corte en peso.*
43. Helena, zu beti lena.
44. Aoac diño agur, ta biotzac lepoan egur.
45. Ardiac beeca egonic, eztau jaten belarric: *oveja q[u]e bala bocado pierde.*
46. Gazte ciñan, zartu zara, len ciñiana, orain zara: *adolescens juxta viam suam.*
47. Calean badabil andrea, eztabil ondo echea.
48. Dagoanean bon bon, eztagoanean ichadon.
49. Bata ta beste¹²⁰ auntzen odoleste.
50. Nire poza putz: *n[ue]stro gozo caio al pozo.*
51. Gure catuac bustena¹²¹ luce bera lezcoac besteac uste: *piensa [el] ladron q[u]e tod.*
52. Maria gurea¹²² goruetan bear eztirian horduetan.

Zerrenda honetako bi ale aldaeratzat har daitezke. 33. *Bata lazcoa beste, auncen odoloste* eta 49. *Bata ta beste auntzen odoleste*. Aldaera biak interesgarriak dira alde batetik baino gehiagotatik. Hitzei gagozkiela, batean *odoloste* forma zaharra aurkitzen dugu eta bestean *odoloste*¹²³. Añibarroren paremien bigarren zerrendan ez da lehenean ez dagoen paremia berririk. Bigarren honetako lehena, esaterako, lehen zerrendako 9an dator, Añ. 2-2 Añ I-8, Añ. 2-3 Añ I-10, Añ. 2-4 Añ I-12, Añ. 2-5 Añ I-12. Paremia berririk ez badator ere, inoiz edo behin aldaketa polit batekin aurkitzen dugu. Gure bigarren paremia-ko bigarren alderdia, hots, *Alper da Maria maquilatu, ecandu gaistoac beti zaitu* paremiaren *ecandu gaistoac beti zaitu* delakoa ez dut inon aurkitu. Azkuek *Alper da Maria makilatu, expada berez biurtu* dakar, Mogelek *Alper da Maria maquilatu berez bear du*. Esaera hau asko dokumentatzen da. Azkuek *Ardi galdua* eleberrian zein *Kardaberazek Euskeraren berri onak* liburuan ere badakarte.

¹²⁰ Eskuidatzian hitz honetan –s– luzea aurkitzen dugu. Hitz bera izan arren, 51 esaeran –s– laburra dator *besteac* hitzean.

¹²¹ Eskuidatzian –s– luzearekin ikusten dugu.

¹²² *Maria gurean* ikusten dugu eskuidatzian. Esaera honek, gehienetan, *Maria gurea* du hasiera.

¹²³ Hitz zaharra da *odoloste* konposiziozko bi hitzak argiro erakusten dituen: *odol* eta (*h*)*este*. *Odoloste* hitzean bokal-asimilazio argi bat ikusten da.

5.2.7. *Añibarro hirugarren paremia-bilduma: Misionari euskalduna liburukoa*

Misionari euskalduna Pedro Antonio Añibarroren lanik sendo eta oparoen dugu. Obra honen bi kopia ezagutzen ditugu, bata, Zarauzko komentuko eskuizkribua (Azkue: 1935), eta, bestea, Arantzazukoa (Basabe: 1934). Añibarrok *Misionari euskalduna* lanean hainbat paremia txertatu zituen. Hauxe da, ene ustez, Axularren *Gero* obrarekin batera, euskal liburu klasikorik sententziatsuena. Zarauzko eta Arantzazuko bi eskuizkribuen artean azken hau da, itxura guztien arabera, azken bertsioa. Arantzazuko bertsioa osatuena denez gero, eskuizkribu horretako paremiak ekarriko ditut atal honetara. Atal honetan zerrenda bat eskaini beharrean, paremiak beren testuinguruarekin ekarriko ditut. Orain arte bezala, euskal paremiak zenbakitu eta eskuizkribuko erreferentzia zehatza emango dut ondoren:

1. Ez ei cenduan eguin: ceure escuan egoan ez eguitea, ez aguindeutea: baña bein aguindeuric, bete bear dozu, quitutu bear dozu zor santu ori. Bacarric atera ciñei botoaren zor azpitic, edo dispen-seac, edo ecin alac: bada *ecinac ez dau legueric*, baldin ecintasun eguiascoa bada. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 37, 227 or. / 19. puntua].
2. Erraztasun andiaz promesac eguiten dira, baña nequez bete. *Esatea da erraz, eguitea garratz*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 38, 233 or. / 11. puntua].
3. Erle batec lora bateric ezti gozoa ateraten dau ta guc mezaric areambere ez. *Esan oy da etzala ezti gozoa egin aberentzat*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 43, 278 or. / 13. puntua].
4. Bildur nas, Jangoicoac ceuri bere ceruco atea betico ichi eztaizun. *Ondo eginaren pagua, ate osteco palua*: pagu char au ceure gurasoari emoten deutzazu, berac zuri eguinico esquer mesedeac gaiti: baña faltaco ezta zuretzat bere orde-saria. Ichozu: oraindiño il etzara. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 46, 304 or. / 10. puntua].
5. Eguia da, ugazabandre ascoc orretaraco bidea emoten dabela: eta ez batzuc ez besteac ez dabela caridaderic, umiltasunic, suffri-

- menturic: *bada esan oy da, eztagoala echeoandre charric criada onentzat*, ta ez contrara bere. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 46, 305 or. / 15. puntua].
6. Moneda eta neurri berean artu daroe orde-saria. *Bacochac ereinten dabena, ori artuco dau*, diño San Pabloc. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 48, 327 or. / 4. puntua].
 7. Menturaz zuen umeac dira beste naturalezacoac? *Celangoa dan arbola, alangoa da frutua*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 49, 333 or. / 7. puntua].
 8. Ezcondu ta laster darraioe ezcontza naibaguez beteac, damuac, negarrac, biraoc, orretara beartu cituen gurasoen contra. Baña contrara, baldin zure seme, edo alaba ezconduten bada berac gura dabenaz, zuc gura izan ez arren, orduan eztau euquico cer esanic zure contra, eta zuc esan ciñeioe: *or compon: zurea zan gura, artu orain ardura*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 49, 337 or. / 15. puntua].
 9. Acichoagoac direanean emon eguiezue escola pisca bat, eta ofi-cioren bat. Ez eguizuez beimbere arpelic euqui: *gueldiric dagoan ura ustelduten da, eta achurra ugerrac artuten dau: alperqueria da gaistaquerien ugazama*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 49, 338 or. / 18. puntua].
 10. Ez zaitte sartu erri, ta bestén echeo gauceetan: *eguizu on ta ez beguiratu non, ta nori*. Ordeaz emoten deuntsunari, biurtu ta quitutu eiozu ceimbat lasterren. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 50, 345 or. / 13. puntua].
 11. Asieraric onena da, gurasoac euren esate, ta eguite onacaz egemplu ta jarrai-bidea umeai emotea. Jesu Christo gaiti diño San Lucasec, eguiten ebana, iracasten ebala: lenengo egin, ta guero au berau iracatsi. Eche bateco genteac eguin oy dau, eche-co buruac eguin daroana: *eta esan oy dan leguez, tamborinteruen echean, guztiac dira danzariac*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 50, 346 or. / 16. puntua].
 12. Bada bestela cer icasico dau seme batec, dotrina charrac badanzuz, ta badacus? Cer icasico dau egunero badacus aita ta ama

colpeca, biraoca, *chacur ta catua leguez* alcar icusi gura ecinic, iru ta lau egunean berba eguin baga, gorrotoz beteric? [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 52, 355 or. / 4. puntua].

13. (...) Diño San Gregorioc: satarriz, menenez, irez edenduric dagoz zuen semeac, ceuroc alanche zagozelaco; ceuroetaric icasi ebelaco: eta *sugueac suguecumeac baño ecin emon leiz*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 52, 361 or. / 19. puntua].
14. O gurasoac, ecer balio eztau, ume gaisto oquerrai berba otz epel bat esatea, castiguaren bearra dabenean. *Gaissotasuna andia danean, osagarriac bere andiac, latzac, garratz min indartsuac izan bear dabe*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 52, 365 or. / 2. puntua].
15. Pecatu, eta eriotza emolleac dira, bear dan jaquindurea baga sartuten direnac contuzco gaissotasunac osatuten, celan direan emplastera ta osaguille aprobatu bagueac: bai ta medicu, barberu ta boticario euren estudio ta jaquinbideac icasten ezitubenc ardura andiaz, edo nola nai erremedioac emoten deusézanac gaissóai. *Baña oneen uts eguite ta eriotzac, lurrac estalduten ditu*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 54, 383 or. / 14. puntua].
16. Beguien lausoa ta odoia daucanac, gorroto dabenc leguez argui ederra; alan oneec dauqué guztiren icusi ecina, gorrotoa, enquina, cer esana. Eztago ñor libre euren juzgu ta miñ zorrotzetic, ez Sacerdote beneragarriac, ez Fraide ta Monja egemplu onecoac; ez persona bicitza garbicoac. Euren bicitza gaistoaz neurtuten dituez besteen bicitza santuac: eta *gure euscaldunac esan daroen leguez: gure catuac bustena luce, berac leguez besteac uste*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 55, 395 or. / 9. puntua].
17. Gachbidea ta egemplu gaistoa emoten dabe, araco burla ta barre eguiten dábenac birtute, birtuoso, ta debocifiozco gauza santuac gaiti; sarri confesetan direnac gaitic: aguirian Jangoicoari jarraituten deusen persona debotac gaiti: erligiño santuac gaiti. Caridade ta erruquiaren achaqui azteratuten dituez besteac euren bicitza santuric, Sacramentuetaric, iracurtza debotoetaric, eguite espiritualetaric. Dirudie araco Jericoco bidean aguiraca eguiten eutsenai itsu bati, Jesu Cristori deiez gudarca asi za-

- nean. Bai ta dirudie *ortulauaren chacurrari, ceñec extau azaric jaten, ez beste campocoai jaten ichi gura*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 56, 404 or. / 7. puntua].
18. O arima-iltzalleac, eta ce castigu icaragarrien beguira zagozen! *Arbola charrac beti frutu charrac: ustelac, bapere ez*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 56, 409 or. / 17. puntua].
19. Bai ta besteai lagunduten deutseenac desonesquericac, lapurre-tac, eta gaistaquericac eguiten; edo conceju emonic, edo atzea gorderic, edo euren echean arturic, edo nora urtengo daben esanic, contuan ifiniric, edo eracusiric urliac chito maite dabela. *Ez legoque lapurric, expalego estaltzalleric*, esan oy da. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 56, 414 or. / 29. puntua].
20. Uste dozunean, beste bati premiña бага gauza chárroc emonic, gach eguingo deuséla, ceuc arturic pecatu andiago eguingo dozu: *cerren caridade ondo zucendua noberen burutic asten dan*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 57, 419 or. / 1. puntua].
21. Uzana, edo izaina barriz ezta ascaturten oratuten dan araguitic, odolez ase bete aspertu arteraño, ez eta edalea ardanteguitic, ardao zagui beteac egin arteraño; diru guztia urtu arteraño. Alperric esango deutse, tabernatic urten daguiala, edo ara joan eztidilla: ardaoac beragan escubide ta indar gueiago euquico dau, Confesoreen penitenciac, guizon prestuen consejuac, Juezaren multa, ta castiguac baño. Bere ustez, iños eztago, ordiric dagoanean baño, indartsuago, cabalago, garboso, pamparroiago, abersatago. Baña biaramonean, moscorra igaro daquionean, dacus ta dazau bere pobreza, ecereza, ta eztaucala zorrac quitututeco, ez cer janci, ez cegaz mantendu familia, ez cer barausi, ez cer bazcaldu: guztia da utsa ta putza: eta *gure euscaldúnac esan daroen leguez: guizon ordien echean, axea francu goxean*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 57, 426 or. / 18. puntua].
22. Berari gura deusagula, gueuc gueure buruari gura deusagun on guztia: gure bearra daben guztian, ta guc al dogunean, lagundu, socorritu, arindu ta ondo artuten dogula. Bada San Gregoric diñolez, *obra ta eguiteac dira amorearen prueba, ta señale adigariac*: eta *euscaldúnac diñoan leguez: obrac dira amore, ez berba*

onen colore. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 59, 441 or. / 1. puntua].

23. Eztira asco azalezco berba gozo labanac, cortesia, cirimonia, cumplimentu, bisita fingitu uts bacarrac: agur, egun onac emoteac, barre falsoac, escumuñac eguiteac: *bada esan oy dan leguez: muneguiten dira escúac, ebaguiric icusi gura direanac*. [Arantzazuko eskuizkribua-I. Doktr. 59, 443 or. / 8. puntua].
24. *Esan daroe, santu santaren artean, orma lodi bat bitartean*. Bada cer jazoco da santuac eztirean mutil ta nescacha danzari zoroacaz? Jangoicoaren ce bildur euqui lei, diño San Geronimoc, onelaco danceetan, pecaturaco aimbeste zalegarri dacartzenetan, umore ona, algarabia, soñu gozoa, gente gaztea, lagun gaisto tentaguilleac, soñeco ederra, guztia solasa, jolasa, amorea, olgura, ta pozcaria? Noc esango deust eguiac, ta errazoiac, danzan gauza charric idoroten ezta; Jaungoicoaren ofensaric eguiten ezta; dibersiño inocente garbi on bat dala? [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 66, 29 or. / 16. puntua].
25. Pecatu mortal arguiagoac ta ezagutuagoac dira, eguiten direanac modu charren Elessan, Ermitan, lecu sagraduan. Bai ta eguiten direanean postura desonestuacaz, ibillera escandalosoaz. Bai ta comunqui eguiten direan danza nastuac gazte zoroen artean gaubez; edo erdi illunetan, libertade gueiago euquiteco gaistaqueriaraco. Obispo jaun ascoc, eta nire demporan Pamplona-coac, eragotzi dituez descomuniñoaren azpian gaubezco danza nastuac; eta errazoi andiaz. Bada gabaren estaliaz pecatu gueiago eguiten dira. *Gauga sartua, guztia nastua, esan daroe*. Gabez lotsa guztia galduten da: aizartasun gueiago artzen da: danzara doaz, egunez joango ezlitequezanac, zarrac, ezconduac, alargunac, echura bagueac, deunguero janciac; bai ta persona beata debota mistica banaca batzuc bere. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 66, 30-31 or. / 19. puntua].
26. Baña engañetan dira: cerren 1: quenduric danza nastu aguiriac, quentzen jaco lujuriaren suari egur asco, su-autsa edo polbora, yesca edo ardaia: guchiagoc icasten dabe pecatu eguiten: danza aguiriac direan errietan, pecatu gueiago eguiten da bazterretan

- ta ezcutuan: ardoateguiric ez dan errian, ordiqueria guichiago izan oy da: *ocasiñoac eguiten dau lapur*. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 67, 39 or. / 13. puntua].
27. Ez bacarric dira lapurrac, pisu faltadun oquerrac dituezanac; bai ta pisu onean emoten dabenac genero charra, ontzat: biciatua, igaroa, usteldua, sitsac jana, mareatua, ta galdua ontzat, ta onaren precioan: edo nasturic ona ta charra, edo *esan oy dan leguez, catua erbitzat*. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 69, 59 or. / 6. puntua].
28. Lapurrac dira, euren alcabuetac, eta estalguilleac. Onetaricoz beteric dagoz echeac, eta erriac. *Expalego estaltzalleric, ez legoque lapurric*; esan oy da. Or dacusguz persona alper asco, errentaric, eta oficiaric eztauquenac, beti dabiltzela salduten, eurac edo besteac ostu dituezan gauzac. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 70, 68 or. / 3. puntua].
29. Estalguilleac dira guraso eurac, euren umeac campotic osturic dacarréna artu, edo aprobechatzen direanac. Bai ta icusiric euren seme alabetan soñeco eder apaindua, oñetaco politac, pañuelu fina, sombreru barria; ta jaquinic bestetic, eurac erosi ta emon ezteutséla; ta euren umeac ez dabela oficiaric, soldataric, alogueraric, ez irabazteric. *Esan oy da: sacristauac arguiceguia salduric, ez equiric erleric, señale da, artu dabela altaretic*. Gurasoac nor balira, contu au atera bear leuqué: nic erosi ezteutsét, eurac irabaci eztabé, eurac eder janciric dabilz, señale da, ostu dabela, edo bide charrez billatu dabela. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 70, 68 or. / 4. puntua].
30. Au alan aguinduten dau legueac berac, ta argui natural edo berezcoac: iñolacoz itsutu eztitecen Letraduac eta Juezac, escupeco ta emondeacaz, diru ta erregaloacaz: onelan sentencia emon daguien libertadeaz, oquertu bague justicia. Judas Apostulu bat engañatu ta itsutu baceban diruac, celan ez, Apostolu eztana? *Esan oy da: emoitzac austen dituez arricaitzac*. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 70, 72 or. / 15. puntua].
31. Bat edo bestea, banaca guichi batzuc izango dira, eztauquénac cegaz osotu ostua. *Eciñac ez dau legueric*: ecinduric zagozan dem-

- poran, libre zagoz biurtzeric ta pecatutic. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 72, 87 or. / 15. puntua].
32. Jesusec Evangelioan ciñioan leguez: *non zure dirua dan, zure biotza bere an*. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 72, 93 or. / 4. atala].
33. Eragozten dau, lotsatutea lagun progimua siñu, quiñu desprecia-garriacaz. Eta ascotan, sentimentu gueiago emoten da onelaco burla bategaz, colpe bateaz baño. Eragozten ditu, zumba, chancha astun gogaicarric: *cerren gueienetan chanchac datoꝥ benetac izatera*: persona batzuc besteac baño senticorragoac dira. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 73, 98 or. / 6. puntua].
34. Jaquintsuac Proberbioco libruan diño, *guizon onac berba guxtiac sinisten dituala*. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 74, 111 or. / 16. puntua].
35. Urlia persona on bat da, diño batec; zuc alan dala ondo daquizu; baña diñozu: eztaquit bada: *ezta urrea, arguia emoten dabenguztia*: eztaazue nic leguez: bere cerac ditu: ezta ain ona, celan zuec uste dozuen. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 75, 113 or. / 3. puntua].
36. Badacusé, Elexan lucero dagoala; sarri confesetan dala, astegun guztian mecentzuten; limosna andiac eguiten; castidadea, doncellatasuna, bacartasuna, issiltasuna gordeten; guztia bide gais-tora ezarten da; edo fingimentua, ipocresia, baneria, edo mister-queria azalezcoa. O arima garbi debotac, eroazuez Jesu maitea gaiti esamesa, ta persecuciño oneec: ez orregaiti larga ceuroen bicimodu, ta eguite santuac: *chacur andi indartsuac jaramoten ezteutsé chacur chiquien ausicai*. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 75, 118 or. / 14. puntua].
37. Guzuz caltetsuac, edo calte andia dacarrénac ariman, gorpu-tzean, faman, ta ondasunean, pecatu mortalac dira. Bada beste-la, Espiritu Santuac ez eban esango Jaquituriaco libruan *guzurra diñoan aoac, ilten dabela arimea*. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 76, 125 or. / 6. puntua].
38. Ce maitetasun euquico deutso Jangoicoari bere gogo guztia di-ruan daucanac? Jesu Cristoren aoz esana da: *ecin datequen gauza*

- dala, nagusi contracor bi batera ondo serbitzea.* [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 78, 146 or. / 13. puntua].
39. *Itsuac itsua badaroa, biac jausten dira zuloan,* diño Jesusec. [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 84, 199 or. / 6. puntua].
40. Ceuc ezagutu ciñei etzareala ondo confesetan: ez dozu iñoc esan bearric. Secula emiendaric, ta obetasunic eracusten eztozu. Confesiño onaren señale adigarriac dira, Jaungoicoaren leguea gordetea; pecatuari gorroto artutea; sarri confesetea; pecatuac guichitutea; ta igues eguitea adisquidetasun charretaric; lagun gaistoetaric; *Gauba sartua, guztia nastua, esan daroe* aren bidetic. *Frututic ateretan dan leguez ce arbolac emon daben.* [Arantzazuko eskuizkribua-II. Doktr. 84, 202 or. / 15. puntua].

Atal honetako pasarteetan letra etzanez dauden esaldi sententziatsuak paremiak dira. Bi pasartetan, ordea, unitate fraseologikoak edo esamoldeak aurkitzen ditugu 12. *chacur ta catua leguez (ibili)* eta 27. *catua erbitzat (sartu) (saldu)*. Hona ekarri ditudan pasarteetan paremiak beren kontestuan daude. Esaldi sentenziotsua ez da nolana hie sartzen edo txertatzen ahozko diskurtsoan edo idatzian. Paremiak ondo eta egoki diskurtsoan txertatuko badira, sarrera-hitz batzuk behar ohi ditu gehienetan. *Esan ohi den legez* edo *esan ohi da* edo *esan daroe* (hots, «esan ohi dute», Bizkaiko euskaran) antzeko sarrera-hitzak ikusten ditugu paremien aurrean. Sarrera-hitzek paremiaren aurkezpen-lana egin ohi dute eta paremia baino lehen doaz gehienetan. Atal honetako pasarteetan, ia kasu guztietan, sarrera-hitzak ere letra etzanez jarri ditugu. Delako sarrera-hitz hauek zenbaitetan paremiaren aurrean joan beharrean ondoan doaz. 24 pasarteetan, esaterako, hasieran dator: *Esan daroe, santu santaren artean, orma lodi bat bitartean*. Hurrengo zenbakian, ordea, bukaeran: *Gauba sartua, guztia nastua, esan daroe*.

Hona ekarri ditudan paremia edo esaldi sententziatsuak ez dira sail berekoak, ez dira mailu berak joak. Badira iturri desberdinetako paremiak ere. Jesusek esandako esaldi sententziatsuak 32, 38 eta 39 pasarteetan datoz. Gaztelaniatik itzulitakoak ere badaude. Itzulpenak edo egokipenak batzuetan argiago ikusten dira. *A grandes males, grandes remedios*, esaterako, 14. (...) *gaisotasuna andia danean, osagarriac bere andiac*. Gaztelaniazko *Sacristán*

que vende cera y no tiene cerería, ¿de dónde la sacaría? edo honen aldaera batetik¹²⁴ euskarara ekarria da Añibaroren 29. *Sacristauac arguiceguia salduric, ez euquiric erleric, señale da, artu dabela altaretic*. Paremia-itzulpen edo moldapenez gain badira euskal paremia jatorrak ere. Añibarrok euskal paremia bat txertatu nahi duenean diskurtsoan sarrera-hitzak ere euskaldunei egiten die erreferentzia. 16.(...) *gure euscaldunac esan daroen leguez: gure catuac bustena luce, berac leguez besteac uste*. 21. (...) *gure euscaldunac esan daroen leguez: guizon ordien echean, axea francu goxean*. 22. (...) *euscaldúnac diñoan leguez: obrac dira amore, ez berba onen kolore*.

Hirugarren atal honetan, beraz, aurreko ataletan ikusten ditugun paremia-moldeak daude. Añibarrok bere zerrendetan zein testuetan euskarara itzulitako paremiak zein euskal paremia jatorrak dakartza.

5.3. J. A. Uriarte eta Ispasterko esaera-bilduma

Jose Antonio Uriarte (1812-1869) izan da euskal baratzean izan dugun langile porrokatu eta nekagaitzenetakoa. Jose Manterolak dioenez (*Cancionero vasco*, 2^o serie, San Sebastián, 1878, 75 or.), 1856. urtean J. A. Uriartek eta Bonaparte printzeak elkar ezagutu zuten Bilbon. Geroztik J. A. Uriarte gorputz eta arima emango da itzulpen lanetara. Hona Manterolaren pasarteak:

Al llegar el año 1856 a Vizcaya el ilustre y benemérito Príncipe Luis Luciano Bonaparte, a quien debemos eterna gratitud los vascogados, buscó con solicitud al P. Uriarte, de quien se hizo acompañar durante su excursión lingüística por nuestras provincias; celebró con él varias conferencias filológicas, y después de haber escuchado un precioso sermón, que dicho misionero predicó en la iglesia de San Nicolás, de Bilbao, a instancias del príncipe vascófilo (este discurso de formas propiamente académicas, y admirable, según se refiere, por su dicción, y que versó sobre el Juicio Final), adquirió éste con empeño varias de las obras que aquél tenía escritas en nues-

¹²⁴ Aldaera hurbilago bat, beharbada: *Sacristán que vende cera y no tiene colmenar, o la saca de la oreja o lo roba del altar*.

tra lengua y encomendóle algunos trabajos más, todos los cuales fueron publicados poco después en Londres a expensas y bajo los auspicios del generoso y sabio Príncipe¹²⁵.

J. A. Uriarte Bonaparte printzearen langilerik emankorrenetakoa izan zen. Euskalki batera baino gehiagotara itzuli zituen hainbat liburu. Londresen ere egon zen printzearen argitalpenak bertatik bertara artatu eta bideratzeko. Ez da gure hemengo xedea J. A. Uriarteren lan argitaratu eta argitaragabeen zerrenda eta zertzelada guztiak ematea, ezta ere printzearekin izan zituen gutun zein lanen bidezko xehetasun jakingarriak ematea. Bonapartek Biblia euskarazko bi literatura-euskalkirik garrantzitsuenetan argitaratu nahi izan zuen eta horretarako bi langile nekagaitz aukeratu zituen: Duvoisin lapurterara itzultzeko eta J. A. Uriarte gipuzkerara. J. A. Uriarte Arrigorriagakoa zen semez eta markinarra bizitzez, eta gipuzkeraz idazteari halako beldurra zion arren, ez zuen etsi Biblia osoa itzuli arte.

¹²⁵ Gaztelaniazko gainerako testuetan bezala ortografia gaurkotu dugu.

152

Ceunia egiin artian manio ta manio, ceunia
 egiin egiexo zantio ta zantio.

Catiba galdusaco Marisari, bezac dinnana ba-
 ño ino: ertagui.

Celacua vicitria-alaco exifotia.

Candelerislexis-achari una dariso.

Cuebac emanaban, ezbaronen ^{st^a} Maxisa Martico, honx
 zac egiitico. D.

Dapuanian on on, ertapuanian egon
 ni Demponiaz aguitico.

Dancanen goxorta una obia da, erdancanen
 biguntana baño.

E.

Eguzquifa noxa, sapifac axa.

Escogifa lan gaito.

Egun baten-erdabe begui gustiac negaxeguiten

Etoxico da Masutra-jangodoguna lebatra.

Echura baxic-sapua saltacaxi.

Edani ona andana, bian dan leguez edaten bada.

163

Guisfago enquisfago, era naifago.
 Gastañia zuxa, arbifa luxxa, mic oguifa guxa.
 Guztia noidabenac, guztia galdu.
 Gardubac clabelina beguitandu erquero, bexadala
 edexxena beguitanduten faco.
 Guizonac guizona nequez eraputu oi dau
 Guxa cadubac buztana luce, nos bexa legues bestiac
 vste.

Y.

Izambintz ona, eretoxquian ona, ire exixic mil
 la legua dona.
 Sperdicio subac, beguico negaxxa.
 Idifac onon biaxxian, burdifax onoten.
 Inoren esubagaz braxia ataxa.
 Inbidifa escabifa balitz, a wri buruban agnextico li
 haquifo.
 Inoren buruco citra ienu oi da, eta noxberen otua
 ez.
 Ulla igano axren, vxtiac bota.

5.3.1. Azkueren arabera, Uriarte Ispasterko paremien biltzaile

Ezagutzen dugun XIX. mendeko herri-paremia bildumarik polit eta aberatsenetakoa «Ispasterko bilduma» da. *Ispasterko bilduma* deitu diogu biltzaileak *Yspaster* jarri zuelako paremia-zerrendaren gainean. Azkuek paremia-bilduma hau lehenengoz argitaratu zuenean J. A. Uriarte izendatu zuen biltzailetzat.

Azkuek J. A. Uriarte Ispasterko esaeran biltzailetzat hartzeko irizpide geografikoa erabili zuela deritzat. Izan ere, esklaustrazioaren ondoren J. A. Uriarte Markinara etorri zen eta inguruko herrietan misioetan eta sermoi-gintzan ere ibili omen zen. Markina izan zen, dudarik gabe, Uriartek urterik gehien eman zituen herria¹²⁶. Azkuek dioenez, Lekeitio ere bizi izan zen (*Morfologia*, Índice de Autoridades: *Aboitiz*, p. 808), baina argitasun horren iturria ez dakigu nondikakoa den. *Ispasterko bildumako* esaera-zerrendako aleak modu alfabetikoan ordenatuak daude. Hona Azkuek bere *Euskalerriarren Yakintza III* tomoan dioena:

Arrigorriagako seme Jose A. Uriartek, Frantziskotar zala, eun ta lau atsotitz Lekeitio-ondoan bildu zituen. Berrogei bat urte geroago, 1899-garrenean *Euskalzale* zeritzaion asterokan argitaratuak izan ziran.

Gauza egokia litzate euskalari onen eta beronen antzera lan irakurgarriak egindako euskalari guzien bizitza-idazkia Euskaltzaindiaren aldirokoan len bai len argitaratzea.

Azkuek egiten duen aipamen labur honetan hainbat datu jakingarri ematen ditu. Azkuek 104 atsotitz bildu zituela esan arren, gure kontadurian 105 dira. Daturik garrantzitsuena atsotitzen bildumatzailea nor den garbiri esatea da: J. A. Antonio Uriarte frantziskotarra. Noiz bilduak izan ziren ere adierazten du 1859. urte inguruan, hots, Bermeoko komentura aldatu zenean. Garai hartan ondo baino hobeto dakigu Markinan zegoela, Ruiz Larriagak argitaratu zituen eskutitzei esker.

¹²⁶ Esklaustrazioaren ondoren, 1840an, Markinara etorri zen. 1859an, lehen komentua zabaldu zenean Bermeora aldatu zen.

Esaera zahar hauen lehen argitaratzailea Azkue izan zen eta *Euskalzale* bere aldizkarian¹²⁷ eta *Euskal Erria*¹²⁸ Donostiakoan argitara zituen. Atsotitzen goiko buruan «Aita Uriartek Izpazter-aldean (Bizkaian) baturikoak» oharra jarri zuen. Azkuek, ordea, ez zituen Ispasterko bildumako esaera zahar guztiak argitaratu. Guztira 86 esaera zahar dira argitaratuak. Azkuek bere hiztegia osatu eta gozatzeko ere erabili zituen esaerok. Desadan, azkenik, Azkuek Uriartek bildutako esaerak zirela esan ondoren ia inork ez duela egiletasun hori ukatu ez eta zalantzan jarri.

5.3.2. Ispasterko bilduma Uriartek egina ote?

Julio Urkixok ez zuen uste Ispasterko bildumako paremiak J. A. Uriartek bilduak zirenik, bere lan bateko bibliografian biltzailearen izena jarri beharrean, nondikakoak ziren markatzen baitzuen. Bilduma hauen zeharkako aipamen bat ere egiten du Garibairen atsotitzei eskaini zien lanean (Urquijo: 1919):

Ispaster. (Son los refranes que el Sr. Azkue atribuye á Uriarte en su *Diccionario*, por haber creído era de este autor el ms. en el que aparecen. En otro tomo de *El Refranero Vasco* trataré de esta cuestión)

J. Urkixok bere iritzia beste noizbait azalduko zuela esan arren, iritzi hori ez zen, nik dakidala, papereratu. Galdera, beraz, hauxe da: Ispasterko bilduma dagoen eskuizkribua azterturik, zein ondorio atera genezake?

Ispasterko bilduma bi eskuizkribu zaharretan aurkitzen da. Bi dokumentu hauetako bat, Koldo Mitxelena Kulturuneko 0-91-BON-doc-20 signaturara duena da, eta, bestea, «Manuscrito de Otxandiano» delakoa. Bi eskuizkribuetan, gainera, azken orrietan daude paremiak transkribaturik. Ispasterko bildumaren bi iturri hauek, nik dakidala, ez dira inon aipatzen: beti iturri bakarra aipatzen da, 0-91-BON-doc-20 signaturakoa. Bi iturri

¹²⁷ URIARTE, J. A.: «Esakune batzuk», *Euskalzale*, 1899, III, 192, 223-224, 232, 264, 272.

¹²⁸ URIARTE, J. A.: «Esakune batzuk», *Euskal Erria*, 1899, XLI, 141.

hauetatik batek izan behar du zaharrena eta bestea zaharrenaren kopia. Bi transkripzio hauetatik berriena, inolako dudarik gabe, Otxandioko eskuizkribukoa da. Bi eskuizkribu hauen gainean goraxeago luzaz hitz egin dugu. Hona berriro laburpena. 0-91-BON-doc-20 signatura duen eskuizkribuak «Colección de voces y frases bascongadas, hecha en los pueblos del Señorío de Vizcaya» izenburua du eta (0,11 x 0,8 m) neurriak ditu. Eskuizkribu txikia da. *Otxandioko eskuizkribua* askozaz handiagoa da (0,22 x 0,15 m) neurrikoa. Ispasterko bilduma 1828. urterako egina zelako froga pisutsua dugu. Zergatik? 1828. urtean Léclusek Zabalari egiten dion karta batean «Colección de voces y frases bascongadas, hecha en los pueblos del Señorío de Vizcaya» eskuizkribuaren gainean hitz egiten baitio».

Ispasterko bilduma ez dela Uriarterena baieztatzeko hiru froga pisutsu ditugu. Lehena, 1828. urterako bilduma egina zegoenez gero, ezin, inondik inora ere, Jose Antonio Uriartek egin. 1828. urtean, Jose Antonio Uriartek 16 urte baitzituen. Bilduma hori euskalari edo idazle zaharrago batek egina izan behar du, nahitaez. Bigarren froga letrarena dugu. Ez dugu ez jatorrizko eskuizkribuan ez kopian ere J. A. Uriarteren letra ikusten. Hirugarren froga, ordea, da harrigarriena. Hirugarren froga hau, bestalde, erabakigarriena da. Ispasterko bilduman Añibarroren letra ere aurkitzen dugu zenbait oharretan. 47. paremiaren ondoan *esale-entzule* jarri du beste esku batek. Beste esku hori Añibarrorena da. Ispasterko bildumako paremiei oharrak egin zizkiena, beraz, P. A. Añibarro izan zen. Hona oharrak:

Isp. 50. *Eche utza-aserre utza* paremiaren ondoan *chacur argala ardi utsa* jartzen du Añibarrok. Isp. 85. *Neu il ezquero Medicuba atetara* paremiaren ondoan *Desp. De muerto el asno la cebada al rabo* erdal ordaina idazten du Añibarrok. Isp. 93. *Odol charragaz odoloste charra* paremiaren ondoan *Lobo a lobo no se muerde (edo muerden?)* transkribatzen du Añibarrok. Eta, azkenik, Isp. 99. *Sartenac galdariari iperdi baltz,-bera izanda bera baltz* paremiaren ondoan *dijo la sarten a la caldera calla negra* idazten du Añibarrok.

Ohar hauek guztiak Añibarroren eskutikakoak dira. Ispasterko bildumaren biltzaileak 66. paremia honelaxe transkribatzen du: 66. *I(...) subac, beguico negarra*. Transkribatzaileak ez du *Iperdi/Ipurdi* hitza transkribatzen hasierako bokala baino eta tarte huts bat jarri du. Jarrera hori, inolako du-

darik gabe, zentsura bati dagokio. *Ipurdi* hitza jarri beharrean lehen bokala jartzen du Ispasterko esaera zaharren transkribatzaileak. Hitza osatzen duena Añibarro dugu, inolako dudarik gabe. Paremia horretako *-perdi*, beraz, Añibarroren eskutikakoa da. Uste dut Ispasterren *Ipurdi* behar lukeela eta ez Añibarrok Arratiako erara transkribatzen duen (*I*)*perdi*¹²⁹. Badago beste kontu interesgarri bat. Ispasterko bilduman Añibarroren eskuz datozen paremiak Añibarroren beraren bilduman ere agertzen dira. Hona adibide bat bakarrik. Ispasterko bilduman 50. paremia osatzera datorren *Chacur argala ardi utza*, esaterako, Añibarroren lehen bilduman 111. paremian ere aurkitzen dugu: 111. *Etsa utsa, guerra utsa. Chacur argala ardi utsa*. Ispasterko bilduman Añibarrok eskua sartzea, bestalde, normala da. Ispasterko bilduma Juan Mateo Zabalaren eskuetan egon zen eta J. M. Zabala Zarauzko frantsizkoteagian egon zen 1815etik 1840ra arte. Pedro Antonio Añibarro 1830. urtean hil zen. Ispasterko bildumak, beraz, 1830. urtea baino lehenagokoa izan behar du, nahitaez.

Ispasterko bildumako atsotitz-segida osoak Bonaparteren ondareko eskuizkribuak argitaratzean ikusi du argia. Merezi du, aurreko paremia-bildumak bezala, dagoen-dagoenean transkribatzea. Beste bildumekin egin dudana bezalaxe, oraingoan ere zenbakiturik emango ditut paremiak.

A

1. Aquerren buztanpian liorpe guichi.
2. Aldatz goriac aldatz beria.
3. Auntzac ichi baleijo,-aquerrac ichi leijo.
4. Alperric da Marija maquilatu,-berez biardau.
5. Aserijari ulia juañ antza ez.
6. Abade eite, -albaite.
7. Amucuba ta ilitija alcarren onduban charrac dira.
8. Aberatza trampa utsa,-pobria ames utsa.
9. Alperreriya-ascoren ondamendija.
10. Asijac dirudi amaija, amaijac urregorrija.

¹²⁹ Kontua apurren bat konplexuagoa da. Arratian *eperdi* esaten da eta Ispasterren *ipurdi*. Ispasterko esaeren transkribatzaileak I- hasierakoa jartzean halako erdibideko aldaera bat sortzen da Añibarrok *Iperdi* transkribatzen duenean.

11. Artunac emona oi dau. *o*, emona zapore.¹³⁰
12. Arbola zarraren onduan ipinten danian landaria, beéra biar dau laster arboliac.
13. Ate buruban cania.
14. Ardijen gaistaquerijac bildotsac pagau.
15. Arranuac bere lumiac biar, epechac bere bai./¹³¹
16. Artuíc enzute ona, eta atzaló.
17. Arija meienian eten oi dá.
18. Arbolaric ez da adar igarbacoric.
19. Aurriac eracutsico dau atzia celan erabilli.
20. Asco ta ondo usuac ego.

B

21. Bacoachac bere opillari icatza.
22. Betico itoguiñac arrijari silluba.
23. Biar aut eta gueraquit,-biarezaut eta quenaquit.
24. Beti Marija gorubetan-biar ez dan ordubetan.
25. Barre eguin oi dan gadiñan,-negar eguin oi da munduban.
26. Bein Marija Elejara.-eta bertan iperdijaz altarara.
27. Bacochoa bere soquiac urcatu oi dau.
28. Brun brun-bacoachac bere aldijan-aquerrari iperdijan-mun.

C

29. Chalupan nagosi asco dagozarian arraintza guichi.
30. Chinchirri miñ baguia sasijan usteldu. //
31. Ceuria eguin artian manso ta manso,-ceuria eguin ezquero zantzo ta zantzo.
32. Catuba galdujaco Marijari,-berac dinuana baño iñoc eztaqui.
33. Celacua vicitzia-alaco erijotzia.
34. Candelero lerijo-achari ura darijo.
35. Cucubac esan eban, ez batorren Sta. Marija Martico,-onrrac eguiteco.

¹³⁰ Esaera hau bi eratara izan liteke: *artuak emona oi dau* lehen aldaera da, bigarrena, *artuak emona zapore*.

¹³¹ Honaino lehen orrialdea.

D

36. Daguanian on on,-eztaguanian egon.
37. Demporiaz aguirico.
38. Daucanén gogortasuna obia da, ez daucanen biguntasuna baño.

E

39. Eguzquiya norá, sapijac ará.
40. Escogija lan gaisto.
41. Egun baten-ez dabe begui gustiac negar eguiten.
42. Etorrico da Majatza-jango doguna lebatza.
43. Echura baric-sapua saltacari.
44. Edari ona ardaua,-biar dan leguez edaten bada.¹³²
45. Errementarijen echian sotza burduntzi.
46. Edocein da Piloto, eguraldi ona danian.
47. Esaten boc nai duana,-enzungo doc nai ez duana.¹³³
48. Ezetz dinuan miñac, baietz esan oi dau.
49. Egusquiya ta eurija-Martico eguraldija.
50. Eche utza-aserre utza.¹³⁴
51. Eguija,-ascoren erregarrija.
52. Erijotzia.-guztion gomuntagarrija.

G

53. Gach bat betor ordu onian,-ezbadira beragaz bi, edo iru atzian.
54. Gu ilezquero beré, zorruac errotara[co dira].¹³⁵
55. Gora bera asco jazoten jacoj guizonari munduban.
56. Gaistuen escubetan dago onaren vicitzia.
57. Garijac esan eban: nilaco bedarric ez da; artuac erantzu eutzan: ni nasan lecuban goseric ez da.
58. Geu garian artian, gure munduba. //
59. Gueijago euquijago,-eta naijago.

¹³² Bigarren orrialdea, hots, eskuidatzian 162.

¹³³ Añibarrok letra estuagoz *esale-entzule* idatzi du.

¹³⁴ Letra estuagoz agertzen da *chacur argala ardi utsa*. Añibarroren letra da bete-betean.

¹³⁵ Kakoak biltzailearenak dira eta ez gureak.

60. Gastañia zura,-arbija lurra,-nic oguija gura.
61. Guztia nai dabenac, guztia galdu.
62. Gardubac clabelina beguitandu ezquero, bera dala ederréna beguitanduten jaco.
63. Guizonac guizona nequez ezagutu oi dau.
64. Gure catubac buztana luce.-noc bera leguez bestiac uste.

I

65. Izanbintz ona,-ezetorquian ona,-ire erriric milla legua dona.
66. Iperdico subac, beguico negarra.
67. Idijac oñon biarran, burdijac oñoten.
68. Iñoren escubagaz bracia atara.
69. Inbidija escabija balitz, ascori buruban aguertuco litzaquiyo.
70. Iñoren buruco citza icusi oi da, eta norberen otzua ez.
71. Illa igaro arren, urtiac bota. /¹³⁶
72. Itzubac bein icusico, eta alan uste.
73. Idi chilin baguia eta auntz adar baguia soluan ez dira onac.
74. Il arteco vicija-ta jan arteco oguija.
75. Iturrijan ur garbija, ta an beré oi danian.

J

76. Jango boc,-biarra eguingoc.
77. Jajo zara,-ilgozara.

L

78. Lagun onac ondu,-deunguiac deungatu.
79. Leija,-zarren ilgarrija,-gaztien zargarrija.
80. Lapico chiquinac laster ganez.

M

81. Maiatzian milla euri,-milla ogui.
82. Mutil onac buruban zaurija. //

N

83. Nun ilgoas,-araco as.

¹³⁶ Eskuizkribuko 163. orria.

84. Nor bera erreteco, egur billa.
85. Neu il ezquero Medicuba atetara¹³⁷.
86. Nequez arturico gaucia, nequez ichi.
87. Nois bait achaujaurico iturrico ura, edan oi da.
88. Naguijagaiti errezan urija.
89. Norbera beretzaco ez dana, ez da inontzat.
90. Negu biguneguijac,-uda gogorreguija.

O

91. Ondo eguinen paguba-ate onduban paluba.
92. Oztuen buztaneti ule bat.
93. Odol charragaz odoloste charra¹³⁸.
94. Oztuac otzoquiya ez nai jan.
95. Oquer batec gausa oquer asco.
96. Orduba doianian, doia munduba.

P

97. Pusquia pusquiagaz gueitu oi da.

S

98. Sajetan ci ogui, urunetan ero.
99. Sartenac galdariari iperdi baltz,-bera izanda bera baltz¹³⁹.
100. Soruac il ebanac oguiric ez eban jan.
101. Sarritan iturrira juan zan bombilla, ausi eguintzan.

V

102. Vijotzian daguana miñera urten.
103. Ur lojetan escallubac.
104. Urac bide asco eguin oi dau.
105. Ur igaruari presaric ezin leiyo.

¹³⁷ Atsotitz honen ondotoxoan letra estuagoz gaztelaniazko ordain bat dator: *Desp. de muerto el asno la cebada al rabo*. Gaztelaniazko esaera hau Añibarrok idatzia da.

¹³⁸ Gaztelaniaz azalpentxo hau dator *lobo a lobo no se muerden (edo muerde?)*. Baina, jakina, gaztelaniazko ordaina hurrengo atsotitzari dagokio. Ohar hau Añibarrok egina da.

¹³⁹ Ondoan gaztelaniazko ordaina dator: *dijo la sarten a la caldera calla negra*. Gaztelaniazko ohar hau ere Añibarroren eskutikakoa da.

Bilduma honetako aleak alde askotatik interesgarriak diren arren, aurreko bildumetan bezalaxe, gutxi batzuren iruzkina egingo dut.

3. *Auntzac ichi baleijo, -aquerrac ichi leijo* esaera X. M. Muniberen *El borracho burlado* antzezlanean ere aurkitzen da, IV. eszenan: «Dijo aquel gran vizcaíno: auntzac ichi baleio, aquerrac ichi leio». Moglek berdin-berdin dakar: 11. *Auntzac ichi baleijo, aquerrac ichi leijo*. Otxandioko eskuizkribuan ere badator: 4. *Auntzac inñesi eguiten deusnari, aquerrac bere eguin daroaco*, a quien huye la cabra suele también huir el cabrón.

16. *Artuíc enzute ona, eta atzaló* modu honetara ulertu behar da: *Hartu egik entzute ona eta hatza lo*. Gaztelaniazko aldaerarik ezagunena berdintsua da: *Coge buena fama y échate a dormir*. Esaera honetako *hatza* adizki sintetikoak «etzan hadi» esan nahi du.

47. *Otz larregija, zarren illgarrija, ta gazteen zargarrija* gure bildumakoa bete-betean dator Mogelen 47. *Otz larregija, zarren illgarrija, ta gazteen* esae-rarekin.

51. *Eguija, -ascoren erregarrija* Astarloak ere badakar modu laburragoan: 23. *Eguija, erregarrija*. Moglek, oster, Astarloak bezala dakar.

53. *Gach bat betor ordu onian, -ezbadira beragaz bi, edo iru atzian* Oihenartek ere bildu zituen honen antzekoa: Oih. 175. *Gaiza hunqui ator, bacar bahator*.

54. *Gu ilezquero beré, zorruac errotara[co dira]eta* Astarloaren 38. *Ilda zorruac errotara* bat datoz bete-betean. Norbera hil arren, ezer askorik ez dela aldatuko adierazteko esan ohi da. Astoak errotara bidea behin ezagutuz gero, nagusirik gabe joan-etorria egin ohi du.

57. *Garijac esan eban: nilaco bedarric ez da; artuac erantzuz eutzan: ni nasan lecuban goserik ez da*. Esaera honen agerrerarik zaharrena hauxe da. Esaera hau beste iturri askotan ere agertzen da. J. Ramon Erauskinek idatzitako *Aien garaia* liburuan honelaxe dator, 76 or.: «Zerbaitengatik esan oi da gariak esan izandu zuela mundu guzian etzala bera baño belar obeagorik; eta artoak erantzun ziola: –Baño ni naizen tokian ez dago goserik».

65. *Izanbintz ona, -ezetorquian ona, -ire erriric milla legua dona* delako esae-ra zaharrak mila enkantu eta pamerial ditu. Esaera hau emakume bati zu-

zendua dago, noka edo emakumeen hitanoan baitator. Kontuan hartzekoa da esaeraren lehen erdia honelaxe ulertu behar dela: *Izan bahintz ona, ez he(n)torkean hona*, non hi (emakumea), izan bahintz ona, ez hintzen etorriko hona. Matxalen Busturikoren kopla ezagun batean ere hoskidetasun bera aurkitzen dugu: *Matxalen Busturiko/ izan balitz ona/ ez zela etorriko/ Busturitik hona*. Bigarren erdia ere *ire erriric milla legua dona* harrigarria eta indar handikoa da. Bigarren erdiko *ire erriric* horrek «hire herritik» esan nahi du; ablatiboa da, beraz. Esaera zahar hau bere jatorrian kanta bat izango zen, seguru asko.

67. *Idijac oñon biarrian, burdijac oñoten* esaera modu oso antzekoan dator Astarloaren bilduman: Ast. 3. *Idijac oiñon biarrian, burdijac oiñon*. Esaera honen gainean goraxeago jardun dut, Astarloaren bilduma aztertu dudanean.

76. *Jango boc,-biarra eguingoc*. Esaera hau ezaguna da Bizkaian. Horren antzekoak dira *Be(h)arrik barik ez da jateko(r)ik*. *Jateko beharra egin behar da*, etab. Kontu ezaguna da Bizkaian *behar egin/beharra egin* «lan egin» dela. *Behar* hitzak bi adiera desberdin dituen Bizkaiko esaera bat ere bada: *San Martin beharrak beharra eragin*. Esaera horretako lehen *beharra* «necesidad» dugu eta bigarrena «trabajo», hots, «beharrak edo premiak lana eragin ohi duela». Esaera horren aldaera zaharra da Mogelen 44. *Ce langintza zamargin, bizarrac bizarra eragin*. Azken esaera hau apur bat desitxuraturik dago, ene ustez. *Bizarra* hitzaren ordez *beharra* ulertu behar da: *Ce langintza zamargin, beharrac beharra eragin*.

Ispasterko bildumako esaera hau bildua dago XVIII mendeko inskripzio batean baino gehiagotan. Bizkaian, Amorotoko plazan dagoen *Iturraran beko* baserriko atalburuan (gaur egun baserri honek 3 zenbakia darama) inskripzio hau ikusten dugu: *Eguiten badoc bihar[r]a/ jango doc ogui/ esta obra hicieron Santiago yturran/beiti y su hijo Juan-/ de Bengoa yolarbar/ AÑO 1784*. Hemezortzigarren mendeko inskripzio hau E. S. Dodgson euskalariak 1896. urteko *Inscriptions basques* liburuan ez zuen bildu. Are harrigarriagoa da inkripzio bera ikustea Amoroto bereko beste baserri batean hogeita hamar urte lehenago, 1754 urtean. Baserri hau *Idarreta* da eta Amorotoko plazatik urrun samar da. Inskripzioa arku dotorearen gaineko atalburuan

dator eta honelaxe dio zehazki: *eguiten/ badoc bierra/ jangodoc ogia/ año 1754*. Esaera eta urtearen azpian etxegilearen izena ere badator harrian zizelkatua: *obra hav eguin eban/ juane coscorraza/ eta/ ydarre/ tacoc*¹⁴⁰.

79. *Leija,-zarren ilgarrija,-gaztien zargarrija* esaeraren antzerakoa Mogelek ere badakar: *Otz larreguija zarren ilgarrija, ta gazteen zaargarrija*.

82. *Mutil onac buruban zaurija* esaera modu osoagoan dakar Astarloak: 42. *Mutil onac buruban zauri, gaixtuac bernazaquijan*. Zer esan nahi ote du esaera honek? Ene ustez, esaera honek baditu bere kideak. Hona zabalduenetako bat: *Gazteac, buruan bere esteac*. Azkuek ere ematen du esaera honen testigantza: *Mutillak buruan bere esteak daukez* (V-ger), *mutilak buruan ere esteak duzkine* (G-go), (...) gaztelaniazko azalpen argigarri batekin: dicen las madres a las hijas que se quejan de recibir menos ración que los hijos EY III. Uste dugu esaeraren esangura zabalagoa ere izan daitekeela. Gazteek, hazten ari direnean, asko jaten dutela adierazi nahi du gehienetan. Gotzon Garatek ere biltzen du modu luzeagoan: GG-6485 *Gazteak buruan ere esteak...gomazko esteak*. Esaera hau, bestalde, Astarloaren esaerak iruzkindu ditudan atalean dator.

83. *Nun ilgoas,-araco as* esaera ez dut bestetan aurkitu. Halabeharrez edo patu txarrak eraginda norbait hiltzen denean esan ohi da. Gurasoei askotan entzun diet.

88. *Naguijagaiti errezan urija*. RS 298. *Iaygi cidi naguia, erra cizan vria* esaerak gure bilduman ere ordaina dauka.

94. *Otxuac otzoquija ez nai jan* esaera Astarloak ere bildu zuen 44. *Otsuac extau bererik jaaten*. Mogelek 13. *Otsuac otsuari gachic ez, ta lapurrac lapurra-ri laztan*. Beste zenbaitetan Bizkaian berean beste animalia batekin ere esaten da: *txakurrak ez dau jaten txakurkirik*.

98. *Sajetan ci ogui, urunetan ero* horretako *ci ogui* hitz batera ekarri behar da, hots, *ciogui* hitzera. *Ziogi* hitzak «zekena», «begiratugia» esan nahi du eta Mitxelenak dioenez, *soegi* hitzetik metatesi bidez letorke.

¹⁴⁰ Ohargarria da *Idarretakok* dioela, goraxeago ikusi dugun Errodrigo Zaratakok bezala.

105. *Ur igaruari presarik ezin leijo* beste modu askotara aurkitzen da. Bizkaiko esaera argitaragabe batean, esaterako, bi hauek aurkitzen ditut: *ura joandakoan presa. Buru-bageen amesa eta ur joanari ez egin presarik.*

6. Lapurdin barrena Itsasu herrira

Humboldt bidaiaria Hego Euskal Herritik Lapurdira joan zen. Lapurdin, Baionatik Uztaritzera eta Itsasura. Itsasu herrian, apaizetxean ostatatu zen. Bidaiari prusiarrak bere egunkarian idatzi zuen Itsasuko apaizetxean igarandako bi eguneko egonaldia ez zitzaiola inoiz bere bihotzetik itzaliko:

Von den Tagen, die ich in dieser friedlichen Wohnung zubrachte, werde ich zwar hier nicht gerae viel zu erzählen haben; aber ihr Andenken wird nie in meinem Herzen verlöschen.

Itsasuko apaiza Haranbillet zaharra izan zen, gizon maitagarri eta amultsua. Gaztetan ikasitako kantu zaharrak oroitzen zituenean poztu egiten zen eta orduetan egon zitekeen doinu eta ahapaldi erdi ahantziak ezpainetara ekartzen. Jakitun prusiarrak bidaia-liburu osoan hitzik bihoztienak Haranbilleti eskaintzen dizkio, zango bat hilobian zuen apaiz zaharrari:

Nie habe ich einem Greise eine so liebenswürdige, durch nichts gestörte Heiterkeit, eine solche Aufgelegtheit zum unterrichtenden Gespräch und zu jeder, auch weit über den Kreis seines beschränkten Lebens hinausgehenden Untersuchung, eine so herzliche Theilnahme an jedem unschuldigen Vergnügen, mit Einem Wort einen solchen Geist ächter Duldung und wahrer Humanitaet gesehen, als in dem wackeren Harambillet.

Bidaia-liburuan esan ez arren, Haranbillet zaharrak kantatu zizkion kantuetako bat *Andre Emili* balada izan zen. Balada hau Azkuek prusiarraren eskuizkribu batetik transkribatu eta *Euskera* aldizkarian argitara zuen (Azkue: 1925). Humboldtten bidaiaren garaian, bestalde, Napoleon bazterrak nahasten hasia zen. Handik urte batzuetara Europa osoa bere-tu nahirik gerra piztu zen han eta hemen. Garaitsu hartan, Itsasuko Elizalde etxeko andregai eta Mulieneko premua amodiotan ziren. Mulieneko gizona arma-kontrabandan harrapatu eta kartzelara sartu zuten.

Gertaera dolugarri honen karietara herri-kanta bat sortu zen. Mulieneko premua Itsasuko Elizaldeko prima aberatsaren senargaia zen. Behin Mulieneko premua preso hartu ondoren, Elizaldeko andregaiak Enperadorea mintzatu nahiko du bere senargaiaren askatasuna erdiesteko. Hona hemen kantua P. Lafitten funtseko Hiribarrenen paperetan datorren bezala (Laf 401-011)¹⁴¹:

1

Untciac eder du bela, çaldiac ere ba[i] cela,
Mulin premu ibiliren cen cabalier bat becela
portemantuan iskiribaturic elizaldeco jaun cela.

2

Contra bandaren borthitça, particulazki carthucha,
gardec arrastatu ezpalute Larresoroco portuan,
Moulin beçain guizon abilic etcen izanen Frantçian.

3

Elizaldeco andere gue[i]ac jakin zuenean berria
hirur egun pasatu cituen ofian eri handia,
heien buruan galdeguin çuen yaun haren libertatia.

4

Izan çuen errapustia ez baitcen hambat eztia:
urhez bethia izan balu ere Elizalde gucia,
etçuela izanen galdeguiten çuen graciac.

5

Elizaldeco arrosa[c], balimbaliki frantsesa
emparadoriaren mintzaceco berac baluke irrisa,
Bayonan eros leçake harat gaiteco carrosa¹⁴².

P. Lafitteren paperetan eredu are osoago bat ere badator (Laf-401-002). Hemen transkribatuko dudan bigarren eredu hau, lehen ahapaldiak garbiri

¹⁴¹ Lafitten hondo edo funtsa Euskaltzaindiko Azkue liburutegi eta artxiboan gordetzen da.

¹⁴² Puntuazioa jarri diot testu originalari.

salatzen duenez, bertso-paperetan argitaratua izan zen. Bigarren eredu hau edertasun handikoa denez gero, iturrian datorren bezala emango dut:

1

Cantoregnuac berriric, aphirilian emanic,
berri segur jin ičan çaiku paper finian emanic,
paper finian emanic eta cacheta belchez loturic.

2

Elichaldeco anderegayac aditu çuenian berria,
hamabortz egun egon ičan cen ohian eri jarria,
aïratcerat utci cuela escuan çarocan choria.

3

Hala etche noblia Itxasso Elichaldia,
harat jaün eguin beharra cen Mulineneco primia,
contrebandan galdu ez balu bere libertatia.

4

Elichaldeco anderegayac adituric berria
itxasuetan juan behar cela Mulineneco primia
dihurutan galdequin çuen jaün haren libertatia.

5

Ičan du errepostua, ez baïcen sobera eztia,
urrez bethia ičanic ere Itxasso Elichaldia
ez lezaqueyela ardietz galdeiten duen gracia.

6

Elichaldeco arrosac balinbalaqui fransesa,
empeadoriaren mintzatceco bera[c] baluque irritza,
Bayonan eros baileçaque harat juaiteco carrossa.

7

Untziac eder du bella, çaldiac ere baï cela,
Mulin primu ibili behar cen cabalier bat beçala
portamantuan izkiriaturic Elichaldeco jaun cela.

8

Cartuchac eder zacuan, beren balac muturrian,
Mulin becen guiçon urosic ez cen içanen Frantcian,
arrastatu ez balute Larresorhoco portuan¹⁴³.

Eredu eder honetan azken bi ahapaldiak koplazaharraren teknikadunak dira. Aurreko ereduan, lehen ahapaldia zen koplazaharraren teknikakoa, Beste eredu batzuetan hirugarren bat ere aurkituko da. Itsasuko Elizalde handi-etxeako andregai guztiz noblea da, aberats okitua, eta senargai preso hartu dutenean enperadorearekin berarekin mintzatu nahi du senargai libratzeko. Itsasu Elizaldeko andregaiaren aberastasuna bi eruedetan modu nabarmenean ikusten da. Itsasuko Elizaldea etxe noblea da beste eredu batzuetan ikusten denez. Hona aldatu ditudan bi eruedetan ez datorren beste ahapaldi bat dator Salaberriren paperetako ereduan:

Halabada étché Noblia, itchasou elissaldia
Hango Jaoun éguin béhara sinin, moulinéneco primu
Contrebandan galdou issan espasindou (çouc çoure libertatia)

Lehen ahapaldi honetan andregaiaren etxea noblea dela esaten da. Norbaitek, ordea, dudan jarriko luke *itchasou elissaldia* horretan *Elizaldia* etxearen egoitza Itsasun berean ote dagoen. Aita Donostiaren Argentinako kuadernoko ereduan ere badator guri dagokigun ahapaldia:

Ala etche noblia/ Itsasun Elizaldia
Harat jaun egin beharzela/ Mulieneko premua
Komtra bandan galdu ez balu/ Oy bere libertatia.

Ahapaldi berri honek bestetako lanbroa aienatzen du, garbi aipatzen baitu Itsasu herriko *Elizaldia* etxe noblea. Ahozko literatura aztergai dugunok jatorrizko testu hauek modurik fidelenean ematen saiatzen gara. Ahalik eta eredu gehien biltzen eta ahalik modurik fidelenean transkribatzen ahalegintzen gara. Jatorrizko eskuizkribuko testua transkribatzea da gure lehen lana. Behin lan hori egin ondoren, gaurko grafia-ortografiatarara ekartzea lan samurragoa izan ohi da. Testuaren zertzelada historikoak ere zenbaitetan biltzen aritzen gara, nahiz alor hori historialari espezializatupei dagokien.

¹⁴³ Hasierako letra larriak letra xehe bihurtu eta testua puntuatu dut.

Itsasu herria aipatu dudalarik, nola aipatu gabe utzi gure kantutegiko kanta ederrenetako bat: *Maitia, nun zira?*. Kanta honek, nahitaez, Gotzon Garateren oraitzapena dakarkit. Gotzon Garaterentzat euskarazko kantarik ederrenetako bat zen, indar poetiko handia doinu sarkor eta malenkoniasuarekin uztartzen duena. Gotzon Garaterentzat ez ezik, euskaldun askorentzat ere halaxe dela iduritzen zait. Zilegi bekit, beraz, kantu honen gainean iruzkin bat edo beste egitea.

J. D. J. Salaberri baratariak¹⁴⁴ *Maitia, nun zira?* kantuarekin, 1870an, eman zion hasiera bere *Chants populaires du Pays Basque* liburuari. Uste izatekoa da Mauleko legegizonak kantu horrekin bere liburu ederrari hasiera ezin ederrago eman nahiko ziola. Eta baliteke, era berean, hasiera eder hau kantua maite zuelako izatea. Zuberua osoan ezagutzen zen kantua izan behar zuen, inondik ere. Salaberrik kantu honekin liburua hasi zuenean bikain edo primizia bat eskaini nahi zuen, honelaxe baitio kantaren berri ematen duenean:

Je suis heureux de pouvoir offrir à mes lecteurs la primeur d'une chanson inédite, faite sur l'air de cette romance, par feu M. le baron d'Uhart. Je la dois à l'obligeance de son fils, M. le baron Victor d'Uhart, dernier représentant mâle de cette antique et noble famille.

Cette chanson fut faite en 1854, à l'occasion de la restauration du cercle de l'Union (hélas! Plus tard désuni), à Saint-Palais.

Salaberriren arabera, 1854. urtean sortu zen *Maitia, nun zira?* kantua. Non eta nork sortua zen ere esaten du: Donapaleun, Baxenafarroan, Uhart baroiak egina. Salaberrik uste zuenez, 1870.ean, liburua argitara zenean, hamasei urte besterik ez zuen kantuak. Egia ote da hau? Ez dago inolako dudarik *Maitia, nun zira?* kantuak lehenagokoa izan behar duela. Arxüren bilduma argitaragabea ere bildua baitago gure kantua eta bilduma hori 1840an burutua izan baitzen. J. B. Arxü biltzaile zuberotarrak bere kantutegia honelaxe izendatu zuen: *Chants populaires du Pays Basque recueillis par J. B. et P. Archu 1840*¹⁴⁵. Kantutegian eskaintzen duen gure kantuaren ere-

¹⁴⁴ Frantsesez eta euskeraz *Sallaberry* sinatzen bazuen ere, euskaraz *Salaberri* jartzea erabaki dut.

¹⁴⁵ Xahoren kantutegia ere garaitsu berean egina da. Xahok ere badakar gure kantua. Xahoren erduan lehen lau ahapaldiak bakarrik datoz. Xahoren eta Salaberriren erduen artean dagoen diferentzia nabarmenena *Ar'eta ez ahal da sarthüiren serora!* Xahorenean *Areta ez ahal duzu sarthuren serora* da

dua oso hurbil dago 1870. urtean Salaberrik agertu zuenarekin, baina ez da guztiz bera. Hona hemen Arxük transkribatu zuen eredia¹⁴⁶:

(1)

–Maitia, non zia? Nic etzutut ikhouston
ez berriric jakiten.
Norat galdu zira?
Ala kambiatu da zure desseigna:
hitzaman zineitan,
ez behin bai bietan
enia zinela.

(2)

–Ohikoua nuzu, enuzu kambiatu;
burian benian hartu
eta zu maithatu:
aita jeloskor batec¹⁴⁷ ni nizu privatu
zure ikhoustetic,
gutiago minzatzetic,
harc nizu privatu.

(3)

–Aita jeloskorra, zuc alhaba¹⁴⁸ igorri
arauz ene ihessi¹⁴⁹
komentu hartara¹⁵⁰,
Areta ez ahal da sarthuren serora!
Fede bedera dugu,
algarri emana dugu,
gaiza segurra da.

¹⁴⁶ Mauleko *Sühaxia* kultura-taldea kudeatzen duen Maddi Oihenarteren bidez ezagutzen dut kaier eskuidatzia. Kantua transkribatzeko, bestalde, bertso-lerroen letra larriak letra xehe bihurtu ditugu. Puntuazioa ere apurren bat aldatu dugu.

¹⁴⁷ Eskuizkribuan batera transkribaturik: *jeloskorbatec*.

¹⁴⁸ Ahapaldi honetan *alhava* transkribatzen du J. B. Arxük. Bigarren aldiari, ordea, *alhaba* egingen du.

¹⁴⁹ Hitz hau *ihesi* transkribatua dago, bigarren –S– handia egiten duela.

¹⁵⁰ Jatorrizkoa eskuizkribuan *Hartara* dator, lehen hizkia letra larrian duela.

(4)

Zamariz igan eta jin zaizkit ikhoustera,
ene consolatzero,
aitaren ichilic.
Hoghei-ta lau ourthe bazitit betheric
urthe baten burian,
nic ezतिकet ordian
aitaren acholic.

(5)

Alhaba diener erraiten dit orori,
soghin daziet eni,
beha ene erranerri.
Tchipitto dielarie, onxa dirigitzia,
handitu dienian,
berant date ordian
nic bazakit onxa.

Arxüren kantu-eredu hau dagoen-dagoenean aldatu dut, zuberotar biltzailearen ortografia bereziak zer aztertua baduelakoan¹⁵¹. Arxüren ereduak aldaera ttikiak ditu Salaberrirenarekin alderatuta. Hona aldaera txiki batzuen berri. Salaberriren ereduko *ez behin bai berritan* Arxürenean *ez behin bai bietan* da. Salaberriren *Bihotzian beinin hartü* Arxürenean *Burian beinin hartu* da.

Hona aldatu dudan Arxüren eredu 1840. urtea baino lehenago bildua da. Kantu honen sorreraren gainean Piarres Lafitteren iritzia Salaberrirena baino zuzenagoa dela deritzot. Piarres Lafittek *Herria* astekarian (Lafitte: 1967), zertzelada hauek eman zituen gure kantuaren gainean:

Hauzeko jauregian Pierre d'Undurein ezkondu zen 1700eko agorriaren 25ean Sibaseko Marierekin. Bi aldetarik aitoren seme-alabak ziren. Ezkontza hortarik ez zuten ukan haur bat baizik: Jeanne. Haur hori Hauzeko elizan bataiatua izan zen 1701-eko azaroaren 9-an:

¹⁵¹ Bestetan ere aipatu dugun kontua nabarmena da. *Hoghei*, *soghin* ematen ditu g- baten ondoren -e edo -i bokalak badaude. Testu berean agertzen den *dirigitzia* horretako -g- delakoak beste ahoskera bat izango luke.

goxaita izan zen Jean de Sibas kalonjea, amaren anaia eta goxama Jeanne d'Undurein, aitaren ama.

Ziberuko aitoren alaba gehientsuak bezala Jeanne gaztea Oloroneko komentu batean altxatua izan zen. Orduan Oloronen bi komentu baziren, baina pentsatzeko da Ursulinetan ezarri zutela, haren izeba française de Sibas, hango superiora izana baitzen.

Hain etxe oneko neskatxa ezkontzeko adinetarat heltzarekin hartaz asko gizon gazte agradatu zitazken. Ororen artetik hautatu zuen Lahüntze Barrecheko Michel de Reyau, aitoren seme eta parlamenteko abokat plantakoa.

Bainan hautu hori ez zitzaion gustatu Hauze-Ündürüeko jaunari. Bere baimena errefusatu zuen, eta, kantoreak dionaz, alaba berriz komentuan ezarri.

(...) Mauleko notariaperen arabera, kantoreak erran bezala iragan ziren guziak oro.

Jeanne de Undureinek bere 25 urtheak konplitu zituen 1726ko azaroaren 5ean, eta berehala Ozazerat Jaurgain deitu kusi batzuen ganat joan zen, Handik notari izgorri ziozkan aitari hiru errespetuzko gutun: batto abendoan, bertzeak 1727ko urtarrilaren 13an eta otsailaren 7an.

Otsailaren 3an, Ozazen, Méharon-Gourdo notariaren aintzinean, ezkontzako ageria sinatu zuten Michel de Reyauk eta biek. Handik zonbeit egunen buruan egin zuten elizako itzulia.

Lafittek eman zituen datuen arabera, kantuak ia hirurehun urte izango lituzke, 1726 urte inguruan izango bailuke bere sorrera. Orain arte aipatu ditudan bi ereduak, Salaberrirena eta Arxürena, zuberotarrak dira. Badago, ordea, sortalderagoko eredu bat ere. Hona Duvoisinek bere kaier idatzian *Au couvent L'amour fidèle* izenburuaren azpian dakarrena¹⁵²:

¹⁵² Kantu hau Bainonako funtseko Duvoisine hiru garren kaierekoa da.

(1)

Maitea, non zira? /Oi, ene maitea!¹⁵³
 nik etzaitut ikhusten,
 ez berririk aditzen,
 norat joan zira?
 Ala gambiatu da
 oi! zure gogoa?
 Hitzeman zinerautan,
 ez behin bai bietan,
 enea zinela, (berriz)

(2)


Ohikoa nuzu!
 Ez nuzu gambiatu!
 Bihotzez zaitut hartu,
 bai-eta maithatu.
 Aitak nau zure gatik
 herritik urrundu;
 nik ez baitut geroztik
 nihon kausitzen onik
 ez eta pausurik!

(3)

Aita jeloskorra,
 zuk alaba igorri,
 arauz ene ihesi,
 komentu batera.
 ez ahal da balimba
 sarthuren serora!
 Fede bedera dugu,
 elgarri eman-tugu,
 hori¹⁵⁴ segura da! (berriz)

¹⁵³ Bi aukera ditu sarrera honek, batetik, *Maitea, non zira?*, eta, bestetik, *Oi, ene maitea!*. Lehen-tasuna, ordea, lehenak du: *Maitea, non zira?*

¹⁵⁴ Duvoisinek lehen idazkeran, inolako dudarik gabe, Gauza idatzi du. Gauza hitzaren gainean, zuzenketa eginez *Hori* jarri du, garbiki.



(4)

Zamariz iganik,
jin zaizkit ikhustera
eta konxolatzera,
aitaren ichilik.
Hogoi eta laur urthe
baditut betherik;
urthe baten buruan,
nik ez duket orduan
aitaz acholarik.

(5)

Joaitean herritik,
ez baitzitut hastio,
erran dautzut adio
Urtzoma gainetik.
Ixasura jaustean, nigarra begian,
egin ditut bi botu.
Entzunen ahal ditu
Jainkoak agian!

(6)

Oi, uda-lilia!
zutaz agradaturik
bada zombait bertzerik,
oi, charmagarria!
Zure baithan eman dut
ene fidantzia;
nahi balimbaduzu
enekilan juntatu,
erradazu egia.

(7)

Ez dirot deus erran
 ez-etare hitzeman,
 ez baitakit zer erran,
 ez niza penetan!
 Bi gazte direnean
 agrados elgarrez,
 ez dela probetchurik
 heyer deusik erranez
 ez eta eginez.
 Pietate hala direnez¹⁵⁵!

Duvoisinen ereduko lehen lau ahapaldiak bat datoz eredu zuberotarrekin. Bosgarren-seigarren ahapaldiak, ordea, guztiz berri eta ezezagunak dira. Bosgarren-seigarren ahapaldietan Lapurdiko leku-erreferentziak ematen dira: *Urtzoma gaina* eta *Itsasu* (Duvoisinen grafian *Ixasu*). Amodiozko euskal kantu askotako azken ahapaldiak halako epitimio edo ikasikizun latza erakutsi ohi du. Gure azken ahapaldiak ere halako kutsu triste eta harrigarria du: amodiotan dauden neska-mutil gazteei ez zaie ezer esan behar, alferrik baita, bakar-bakarrik pietatea izan behar da hala direnez¹⁵⁶.

Maitia, nun zira? kanta 1921 urteko *Gure Herria* (abenduan, musika sailean) aldizkarian ere agertu zen ohar interesgarriak zituela. *Gure Herria* aldizkariko artikulugileek kantuaren hasieran Lapurdiko kantutegietan bi ahapaldi gehiago zetoze la zioten. Baieztapen hori frogatzeko hona ekarri-

¹⁵⁵ Eredu honetako hasierako letra larriak letra xehe bihurtu ditugu. Puntuazioa ere apurren bat aldatu dugu. Eredu hau J. Duvoisinen hirugarren kaierean aurkitzen da. Eredu honetako bi ahapaldi, bigarren eta bosgarrena, frantsesera itzuli zituen Duvoisinek. Hona frantseseko itzulpena: 2.–Je suis toujours la même, je n'ai point changé; mon coeur vous a agréé, il vous a aimé. Pour m'éloigner de vous, mon père m'a éloigné du village; et dès cet instant il n'y a plus pour moi ni plaisir, ni repos. 5.–En quittant le village, du haut de l'Urtzoma je vous envoyais mes adieux. (Oh! Ce que je vous aime!) et descendant à Itsassou, les yeux pleins de larmes, j'ai prononcé deux vœux; qu'il plaise à Dieu de les entendre!

¹⁵⁶ Patri Urkizuk *Bertsolaritzaren Historia. I Anonimoak* liburuan Duvoisinen eredua dakar, baina ez Baionako eskuizkribuan datorren bezalaxe. Baionako ereduak zazpi ahapaldi ditu eta Patri Urkizurenak lau.

ko dudan eredia Henri Perceval jatsuarrena da. Percevalen kaieren gure kanturen izenburua ez da *Maitia, nun zira?*, oso bestelakoa den beste bat baino: *Igande arrats batez*. Kantu hau Perceval jatsuarrek 1958. urteko Ligiko bertso-sariketan aurkeztu zuen. Hona hemen kaieren datorren bezala¹⁵⁷:

1

Igande arrats batez izar bat ikusi dut:
jalitzen zen zerutik ilunduz geroztik,
distirutzen baitzuen ororen gainetik.
Haren klaritateak ez zukein¹⁵⁸ parerik
mudatu ez balitz, mudatu ez balitz.

2

Munduan naizela badu zombeit urthe
beste bat holakoa ez dut ikus uste¹⁵⁹,
iguzkiaren pean kausi ez daiteke.
Sartu zait bihotzean ateratzea neke.
Hainitz nuen maite, hainitz nuen maite.

3

–Maitia, nun zira? Nik ez zaitut ikusten¹⁶⁰
ez berririk jakiten, norat galdu zira?
Ala da kambiatu oi zure desira?
Hitzeman zinerautan, ez behin bai frangotan,
enea zinela, enea zinela.

¹⁵⁷ Kaiereko ereduak ez du puntuazio-markarik. Koma eta puntuak eta gidoiak gureak dira. Bertso-lerro guztien hasieretan letra larriak datoz eskuizkribuan. Kaierean –ai– guztiak –ai– idatzita datoz: *baitzuen, gainetik, Hainitz, maité, ezaitut*... Era berean, –au– guztiak –ai– idatzita daude: *naizu*. Behin, ordea, *nau* aurkitzen dut eta ez *naü*. Hitza –e batez bukatzen denean, tildearekin dator kaieren: *Igandé, besté*, etab.

¹⁵⁸ Kaierean *ezukein* dator.

¹⁵⁹ Eskuizkribuan *uzté*.

¹⁶⁰ Eskuizkribuan *ezaitut*.

4

–Ohikoa nauzu, ez nauzu kambiatu.
Bihotzean behin hartu eta zu maitatu.
Aita jeloskor batek bainerau kasatu.
Oi! zure ikustetik gehiago mintzatzetik¹⁶¹
harek nau pribatu¹⁶², nahiz kambiatu.

5

–Aita jeloskorra, zuk alaba igorri
komentu¹⁶³ batetarat, oi! eni ihesi.
Oi bainan ez ahal da sarturen serora!
Fede bera dugu, elgarri eman dugu,
gauza segura da, gauza segura da.

6

–Zamariz iraganik jin zaizkit ikusterat,
ene konsolatzerat, aitaren ichilik.
Hogoigarren urthea baitut konpliturik,
urthe baten buruan, nik ez duket orduan
aitaren beldurrik, hartaz acholarik.

7

Alabak dituztener erranen dut orori
sogidazue¹⁶⁴ huni, kasu ene erraner¹⁶⁵:
gaztetto direlarik ongi diziplina,
handitu direnean berant daite orduan,
nik badakit untsa, nik badakit untsa.

¹⁶¹ Eskuizkribuan *mintzazetik*.

¹⁶² Dassancek *privatu* transkribatzen du.


¹⁶³ Eskuizkribuan *Comentu*.

¹⁶⁴ Eskuizkribuan *Sogi dazué*.

¹⁶⁵ Eskuizkribuan *eneraner*.

8

Zortzi bertsu berri kopian ditut ezarri
 eta adios erran ene maiteari.
 Ehun urthe munduan bizi banindadi,
 etzaioke sekulan ahantziko¹⁶⁶ pena hori
 ene bihotzari, ene bihotzari.



Lehen bi ahapaldiak ez ezik, azkena ere erantsia da, itxura guztien arabera. Lapurdiko kantariak «Igande arrats batez» kantuarien lehen bi ahapal-

¹⁶⁶ Bi aukera jartzen ditu transkribatzaileak: *ahantziko/joanen*.

dien eta azkenaren artean txertatu dute modurik naturalenean «Maitia, nun zira?» kantua. Beste modu batera ere ikus daiteke kontua. *Maitia, non zira* kantuari hasiera-bukaeretan beste ahapaldi batzuk erantsi dizkiote. Nahasketa honetatik beste kantu bat sortu da. *Maitia, nun zira?* kantua zenbait hitz eta esapide ere beste era batekoak dira. Zuberoako eruedetako *deseiña*, Lapurdikoan *desira* da. Salaberriren eredian, bigarren ahapaldian, *aita jeloskor batek dizü kausatü* dio. Eta frantsesez Salaberrik honelaxe egiten du itzulpena: *un père jaloux a causé (mon silence)*. Lapurdiko eredian *aita jeloskor batek bainerau kasatu* dio, hots, *aita jeloskor batek urrundu (haizatu, urrunarazi) nau*. Eredu diferenteak aztertzeke tankera horretako aldaera txikiak guztiz interesgarriak direla deritzot.

Jose Mendiaguk –edo nahiago izatera, Joxe Mendiagak–, Buenos Airesetan, 1900. urtean argitara eman zuen *Zazpiak bat. Eskualdun kantuak* liburu-ruko *Maitia, nun zira?* kantaren eredia interesgarria da guztiz. Mendiaguk, Salaberrik bezala, bost ahapaldi dakartza, baina bataren eta bestearen bosgarren ahapaldiek ez dute bat egiten. Mendiagueren bosgarren ahapaldia hauxe da:

Ez dakit yakitatez,
bainan bai, segür üstez,
erranik chori batek,
zerbait süyet batez;
bi presuna direnian, agrados alkarrez,
ez dela probechürrik,
heyer deusik erranik,
ez kontra yuanez; pietate ala direnez!

Gure Herria aldizkarian, 1921ean, ahapaldi honen berri ere ematen da. Jose Mendiaguk bere liburuan dakarren azken ahapaldia eta Duvoisinen ereduko azkena ere bat bera dira. Lehen erdian apur bat desberdina izan arren, bat datoz bete-betean bigarren erdian. Mendiagueren azken ahapaldia beste eredu batzuetan ere badator. Hona, erakusgarri gisa, Argentinako kaiereko eredia¹⁶⁷:

¹⁶⁷ Argentinako kaierean, 93. orrialdean, *Maitia nun zira* izenburua ematen zaio gure kantuari. Hala ere, *Non zira maitea* batez hasten da. Izenburu hau baino lehenago transkribatzaileak *Aita*

1

Non zira, maitea?
 Nik etzaitut ikusten,
 ez berririk yakiten.
 Norat yoan zira?
 Ala den khanbiatu
 oi! zure desira.
 Hitzeman zineraitan
 ez behin bai bietan
 enea zinela. biz

2

Enaiz kanbiatu,
 bainuen deliberatu
 eta buruan hartu
 bihotzez maithatu.
 Aita yeloskor batek
 bainau gibelatu
 zurekin egoitetik
 gutiagu mintzatzetik
 hark bainau pribatu. biz

3

Aita yeloskorra,
 zuk alaba igorri
 arabez ene ihesi
 komentu hartara.
 Balinba ez ahal da
 sarthuren serora!
 Fede bedera tugu¹⁶⁸,
 elgarri eman tugu
 gauza segura da. biz

yeloskorra idatzi du eta gero ezabatu. Hasierako letra larriak letra xehe bihurtu ditut. Puntuazioa ere apur bat egokitu dut.

¹⁶⁸ Eskuizkribuan *Fede bederaitugu* dator.

4

Igandean zamariz
 yin zaizkit ikustera,
 ene kontsolatzera
 aita-amen¹⁶⁹ ichilik.
 Hogoi eta bat urthe
 oraino ez ditut nik;
 urthe¹⁷⁰ baten buruan
 nik ez duket orduan
 aitaren beldurrik,
 amaren acholarik.


5

Ez dakit yakitatez,
 bainan bai segur ustez,
 erranik chori batek
 zerbeit suyet batez.
 Bi presuna direnean
 agrados elgarrez,
 ez dela probetchurik
 heyer deusik erranez
 ez eta eginez.
 Pietate hala direnez!

Argentinako kaiereko eredu lapurtarra da, Kanbo herrikoa. Eredu honek Zuberoako eredu apurren bat egokitu duela dirudi. Ezagutzen diren Lapurdiko eredu guztietan bezala, *deseña* hitzaren lekuan *desira* dator. *Zamariz igañik*, esaterako, *Igandean zamariz* bihurturik aurkitzen da. Zuberoako ereduetako *Aitaren acholik* bukaera modu luzeagoan dator: *Aitaren beldurrik/ amaren acholarik*. Mendiagueren ereduan zetorren azken ahapaldia ere, apurren bat desberdin bada ere, Argentinako ereduaren bukaera da.

¹⁶⁹ Eskuizkribuan *Ai-tamen*.

¹⁷⁰ Eskuizkribuan *Uurthe*.



7. Baxenabarroan barrena

Gure bidaiari prusiarra Itsasutik abiatu eta Baigorrrira iritsi zen eta handik Orreagara Erroldanen arrastoak ikusteko. Bide malkar eta gogorregia gertatu zitzaion gure bidaiariari. Handik Donibane Garazira joan zen pagadi handi bat zeharkatuz. Gustuko inguruak aurkitu zituen gure bidaiari prusiarrak: arbola tantaia, enbor goroldioz josiak, harkaitz zorrotzak sastrakadietan. Ibarraren hondoan xirripa bat murmurioka, xirripa horretan bukatuko zuten zenbat-nahi iturri txipi, apartsu eta ozen. Astozain eta mandozainak ere beren asto-mando zamalda luzeen gidari ikusi zituen.

Donibane Garazitik hurbilxko, hiru kilometrora, Donazaharre herri zaharra aukitzen da. Pierre Broussainek, 1911 urtean, Azkueri igorri zion gutun batean Donazaharren bizi zen Laco jaunak, esaera, sineskeria eta ipuin asko ezagutzen zituela ziotson. Broussainek beraren alaba emaginari, Choribit andereari, gomendiozko hitz bat eskatu zion. Era horretara, Choribit anderearen gomenio-hitzez baliaturik Azkuek Laco jaunari herri-jakintza gaiak galdetzeko bidea erraztu zion (Charritton: 1986)¹⁷¹. Ezin da jakin Azkue Donazaharreko Laco jaunagana hurbildu ote zen; ezin da jakin, era berean, hurbildu bazen ere, zer uzta bildu zuen hain berri-emai-le onagandik.

Azkueren kantutegiko aleen artean Donazaharreko Dominika Urrutiri bildutako balada bat aldatuko dut hona. Baladaren transkripzioa egiteko, CPV laneko 821. kantura joan beharrea, argitasun gehigoren bila, Azkueren eskuizkribuetara jo dut. Gure kantua osatzeko bi dokumentu aztertu ditut. Bata, ABA-RMA-001-0002-001, lehen eta laugarren ahapaldiak osatzeko; bestea, ABA-RMA-001-0002-002, gainerako ahapaldi gehienak zehazteko. Hona *Arrosa xuriaren azpian* balada zaharra:

1

Arrosa xuriaren azpian, anderia lokhartu,
elurra bezain xuri iruzkia bezain ederrik,
hirur kapitainek zeraukaten gortez inguraturik.

2

Kapitainak yoan ziren beren zaldiak harturik,
hartu zuten anderea mantoz ontsa trozaturik,
Pariserat ereman zuten aitak jakin gabarik.

¹⁷¹ Honelaxe dio Pierre Broussainek 1911ko irailaren 16an (ikus 293 or.): Il y a dans ce pays, à Saint-Jean-Le-Vieux (Donazaharre), un bon propriétaire nommé Laco que vous avez vu à Licq, il y a quelques années, avec le père de Constantin, qui est son grand ami. Mr Laco connaît, paraît-il, beaucoup de chansons basques, de dictons et de récits relatifs aux superstitions et il pourra aussi vous faire la connaissance d'autres personnes de Saint-Jean-Le-Vieux, qui pourront vous documenter. Une des filles de Mr Laco, Madame Choribit, est sage-femme (partera) à Hasparren. Je lui ai demandé un petit mot de recommandation pour son père, que vous trouverez ci-joint.

3

Parisen ostaliersak bazuen salutatu,
bazuen salutatu, berriak ere galdatau:
–Bortxaz ala amodioz jina zara? Anderea, errazu.

4

–Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu:
hirur kapitainek galeriatik harturik jina nuzu,
[hirur kapitainek galeriatik harturik jina nuzu.]

5

Kapitainek hori entzunik jiten dire andereagana:
–Anderea, afal zite, eztirik¹⁷² eta trankilik.
Hirur kapitain izanen tuzu gaur zure zerbitzari¹⁷³.

6

Anderea, hori entzunik, hila zuzun erori¹⁷⁴.
Kapitainak joan ziren beren zaldiak harturik,
nigar egiten zutelarik, andereari¹⁷⁵ dolu eginik.

7

Handik hiru egunen buruan andereak aitari oihu:
–Ai, aita, ni orai hemen nagozu,
birjinitatea nahiz begiratu, hilaren egon nuzu.

Azkueren eskuizkribuetatik CPV laneko eredura badira xehetasun zenbait. Kasu honetan, oro har, fideltasun handia dago eskuizkributik testu argitaratura. Zehaztasun bat edo beste aipatzekotan, Azkuek eskuidatzian

¹⁷² Transkribatzaileak *eztirik* hitzaren ondoren *baina* jarri eta ezabatu du. Irakurketa, era horretara, *eztirik eta trankilik* dugu.

¹⁷³ Jatorrizko testu idatzian *serbitzari* dator. CPV argitarapenean *zerbitzari*.

¹⁷⁴ Esaldi honetan bi aukera daude. Bata, *anderea, hori entzunik, hila zuzun erori*, eta bestea, *andereak hori entzunik, hila zuzun erori*. Transkribatzaileak *andereak* jarri du lehen idatzialdian, gerora –a handiago batez *anderea* zuzendu du.

¹⁷⁵ Transkribatzaileak lehen idazkeran *andereak* idatzi du; gerora, –ergatibo marka zuzendu eta datiboan jarri du: *andereari*.

ontsa bildu zuen, argitaratu, ordea, *hontsa* egin zuen. Eskuizkribuko zehaztasun zenbait ez dira testu argitaratura aldatzen. Azken ahapaldia kantatu baino lehen berriemaileak (*h*)ondarra esan zuen. Azkuek *Ondarra (el fin)* transkribatu zuen bere bidaia-kairean. Bada, alabaina, edertasun handiko beste xehetasun polit bat. Donazarreko Dominika Urrutik kantua bukatu zuenean, esaldi bitxi bat esan zuen zuka: *ebasgarria duzu*. Baladako andere lokartuak bezala, baladaren kantatzailea zuka zuzentzen zaio Azkueri. Lekeitioko ikertzaileak datu hori ere bildu nahi izan zuen fidelki: *Ebasgarria duzu c'est ravissant (BN-donaz)*. Dudarik ez dago: Dominika Urrutik esaldi horren bidez kantua zoragarri baino zoragarriagoa zela adierazi zuen. Azkuek *ebasgarria* hitza hiztegia egin ondoren ikasi zuen eta horrexegatik sartu zuen hiztegiaren gehigarrian. Hitz hau Azkueren hiztegitik aldatu da geroagoko hiztegiara eta ez du, nik dakidala, euskal idazle bakar batek ere bere idatzietan erabili; ahozko testigantza isolatu, bitxi eta guti ezagutzen den ingurugiro batetik erreskatatu eta hiztegiara pasatua da. Harako Donazarreko emakume hark bezala, nik ere uste dut euskal baladak eder baino ederragoak direla, zentzua kordokatu egiten dutela eta geure onetik ateratzen gaituzten neurrian, geure onena ere ekartzen digutela.

Henri Gavelak ez du, ene ustez, arrazoirik falta euskara ikastea merezi zuela bakar-bakarrik euskal kanta ederrak entzuten gozatzeko zioenean Gavel: 1929)¹⁷⁶:

Mais se proposer un programme moins vaste, limité à une connaissance suffisante d'un ou deux dialectes pour pouvoir en lire sans trop de difficultés les auteurs et savourer, en particulier, ces délicieuses chansons qui voudraient à elles seules que l'on apprit le basque pour les comprendre, n'est pas une entreprise plus difficile que pour l'une quelconque des langues de l'Europe occidentale.

Eta euskal kanten edertasunaz ari zenean ondo baino hobeto zekien zertaz ari zen, Bereterretxeren kantorearen gaineko ikerketarik oso eta konplutuena berari zor baitiogu.

¹⁷⁶ «Grammaire basque» liburuko hitzaurrean dio.

8. Zuberoan barrena

Humboldt bidaiaria Nafarroa Beheretik Zuberoara joan zen, ezagutzea falta zuen azken lurraldera. Zuberotarrek beren burua italiartzat omen dute, Humboldttek dioenez, gainerako euskaldunak baino finezia eta gustu handiagoa omen dute; musika eta poesiara etzanagoak dira. Bidaiari prusiarrak uste duenez, haien euskalkia hitz arrotzez nahasia eta orakaturia zegoen.

Bidaiari prusiarrak bere arreta, Zuberoan, era jarraikian, jokatzen ziren pastoreletan jarri zuen. Pastoralak –hitzak berak norbait hartaratu balu ere– ez dira eglogak, eta errege eta enperadoreak sartzen ziren eszenan. Erroldanen ekintzak ere sarri antzeztu ohi ziren beraietan. Jokalariak irakurtzen ez zekiten neska-mutil gazteak izan ohi ziren.

8.1. *Arboletan den ederrena kantua*ren gainean

Zuberoa aipatu dudanez gero, ezin aipatu gabe utzi amodiozko kantua eta amodiozko kantuetako irudiak. Euskarazko amodiozko kanta askotan irudi harrigarri bat agertu ohi da. Amodiozko kanten sailean Azkuek Urruñan, Lapurdin, bildutako *Arboletan den ederrena* kanturik interesgarrienetako bat da. Hona hemen Azkuek bere kantutegian, 71. zenbakian, dakarren erredua:

I.

Arboletan den ederrena da
aritz edo fagoa:
inik maiteño bat bakar izanta,
harek bestetan gogoa!!
Jaun zerukoak eman dezola
nereganako amodioa.

II.

Amodioa xoroa dela
mundu guziak badaki
inik maiteño bat bakar izanta
hura bestek eramaki!
Enuke penarik baliro (sic) bizi
enekin baino obeki.

Amodio-kantu honetan bati baino gehiagori zail eta egoskorra egingo zaio *nik maitetño bat bakar izanta* bertso-lerroa. Belarrira hobeto dator *nik maitetño bakarra izanta* edo *nik maitetño bat bakarra izanta*. Azkuek, bestalde, *baliro* adizkiaren ondoren, arrotz edo desitxuratua zela iritzirik, (*sic*) jarri zuen. Jatorrizko eskuidatzira joz gero (ABA-RMA-001-0002-001), *Arboletan den ederrena* kantuaeren lehen transkripzioan, argi ikusten da Azkuek *nik maitetño bat bakarra izanta* jarri duela, eta, gainean zuzenketa bat egin duela. Ez dago dudarik, bestalde, *baliro* adizkia beharrean besteren bat izan behar duela. Aitzolen bildumako aleak duda gogorretatik aterako gaitu. 1934an, Elizondon, Bitori Etxebarriak P. Amorenari kanta interesgarri bat jaso zion. Hona jatorrizko dokumentuan datorren moduan:

(1)

Gure dotriñak erraten digu
zeruan ez dela atsegin:
zure barrengo sentimentuak
ongi nai nituzke itzegin:
ni zurekin konten nitzake
naiz bertzerekin utsegin.

(2)

Arboletan [den] ederrena da
oyan beltz[e]an bagua:
itzak ederrak zintuen bañan
bertzetan zure gogua,
Yaun zerukoak bigur dezala
nigana amodiyua.

(3)

Ogei ta bortz aldiz egondu zera
gustora nere ondoan:
zu bezelako ispillurikan
neretzat etzen orduan:
zer estadotan arkitzen zñan
iduki zazu goguan.

(4)

Amodiyua xorua dela
 mundu guziak badaki:
 nik maiteño bat bakarra izan ta
 ura bertzek eramaki;
 ez nuke pena bizi baledi
 nerekin bañan obeki.

Eredu honetako bukaeran argi datoz baldintza-ondorioak: *ez nuke pena bizi baledi, enekin baino hobeki*. Azkuek bildu zuen *baliro bizi* desitxuratua modu garbian dator: *bizi baledi*. Beste alde batetik, oraingo adibidean ere *nik maiteño bat bakarra izan ta* dator. Eredu bateko okerrak, zenbaitetan, beste eredu batek argitu ohi ditu. Eredu bakoitzak, bestalde, bere aberastasun eta berezitasunak izan ohi ditu.

Juan Mari Lekuonak *Oiartzungo kantutegia bertako herri memoriatik* lanean beste aldaera bat dakar:

Arboletan den ederrena da
 oihan beltzian pagua.
 Nik maiteño bat bakarra izan da
 bestetarako gogua.
 Jaun Zerukoak emango al-dizu
 niganako amodiyua.

Amodiyua zein den zorua
 mundu guztiyak badaki.
 Nik maiteño bat bakarra izanda
 beste batek eramaki.
 Ez nuke penik biziko balitz
 nerekin baina hobeki.

Gure dotrinak erakusten du
 zeruan dala atsegin.
 Mundu hontako pasadizuaz
 klaro nahi nizuke hitzegin:
 ai! ni zurekin kontent nitzake
 nahiz besterekin hutsegin.

Izar eder bat ateratzen da
Santiyo goiko lepuan.
Hari begira egoten nauzu
ateratzen dan orduan.
Nere bititza pixka da baina
zeinen dolorez dijuan.

Oiartzungo aldaera honetan bestetan aurkitzen ez den azken ahapaldiak bukaera triste bezain harrigarri bat ematen dio kantuari. *Ex nuke pena bizi baledi* protasia beste protasi batek ordezkatzen du: *ex nuke penik biziko balitz*. Ez dago dudarik, bestalde, eredu guztietan –Azkuek argitaratutakoan izan ezik– *nik maiteño bat bakarra izanda/ izanta* agertuko dela.

8.2. Irudia eta oldozkuna amodiozko kantuetan

Arboletan den ederrena kantaren hasierak indar aparta duela deritzot. Hasierako lehen ahapaldiak bi alderdi arras desberdin ditu. Lehen alderdia izadiko irudi eder bat dugu eta ondoren datorrena guztiz beste era batekoa da: izadiko iruditik guztiz beste mundu bat agertzen du. Lehen alderdia *Arboletan den ederrena da/ oihan beltzian pagua*. Eta bigarrena, lehen zatia ondoren indarberriturik datorrena (*Nik maiteño bat bakarra izan da/ bestetarako gogua./ Jaun Zerukoak emango al-dizu/ niganako amodiyua.*)

Lehen ahapaldi horretako egitura bera duten ahapaldi gehiago ere aurkitzen dira beste amodiozko kantu batzuetan. Hona Aita Donostiak Azkainen bildu zuen kantua:

Izarretan den ederrena da
arte-izarra goizetan.
Nik maiteño bat bakarra izan ta
ezin ikus arratsetan.
Gizon gaztiak ez luke bear
lotsarik andre gaztetan.

Aita Donostiaren transkripzio honek badu adabegi bat edo beste. *Arte-izarra* delakoak «art(h)izarra» izan behar du, nahitaez. *Arte-izarrak* silaba bat gehiago du *art(h)izarrak* baino eta neurrian hobeki sartzen da. Azkuek

Baztango Bozaten bildu zuen beste kanta batean irudi bera agertuko da baina modu naturalago batean:

Izarretan den ederrena da
oi! artizarra goizetan.
Mutil gaztea, edeik atea
lotsarik neskatiletan.
Amodioa joan zait eta
bizi naiz lazki penetan.

Silaba kopuruarena konpontzeko silaba bat gehiago duen irudia dator: *Izarretan den ederrena da/ oi! artizarra goizetan*. Modu honetara, *oi!* delakoak A. Donostiaren korapilo askatzen du. Kanta honek, nola ez, baditu hainbat alderdi interesgarri. Antonio Zavalak *Amodiozko penak bertso berrietan*, Auspoa 128, lanean liburu-atal bat eskaini zion.

Gure artean zenbait ahapaldik duten lehen alderdi indartsu hori azertu zuen lehena Odon Apraiz arabarra izan zen. Odon Apraizek lehen alderdi indartsu hori euskarazko amodiozko kantuetan ikusten zuen, guk atal honetara ekarri dugun *Arboletan den ederrena* bezalako amodiozko kantuetan. Odon Apraizen arabera, *Arboletan den ederrena da oihan beltzian pagoa* (A) zatia da, izadiari deia, edo berak hitzez hitz dioen bezalaxe: *izadiyari deya*. Beste maila batean dago (B) zatia: *Nik maiteño bat bakarra izan da/ bestetarako gogua./ Jaun Zerukoak emango al-dizu/ niganako amodiyua*. (A) lehen zatia izadiari egindako deia dugu eta izadiko arbolak, loreak, izarrak, argizagia... agertuko dira. (B) beste era bateko zatia da eta maitasunari dagokion da. Honelaxe laburtzen du berak (Apraiz: 1928):

Aitatu nai ditudan maite-bertsuetan alde batetik dua izadiyari
dagokion zatitxo bat, ta gero bestetik dator maitasunezko zatiya.
Baiña zati biyok bereziyak dira, alkarregaz nastau barik, euren artian
nastau barik, bakoitza azke ta aldebateratuta.

Odon Apraizek bere lana argitaratu eta bi urtera, 1930ean, Manuel Lekuonak pauso bat aurrera eman eta (A) alderdia ez dela nahitaez izadiari egindako deia edo izaditik hartutako elementu bat izan behar adierazi zuen. Manuel Lekuonak, 1930eko Bergarako hitzaldian, lehen zati edo alderdia modu zabalago batean ere ulertzen dela adierazi zuen. Manuel Lekuonak (A)

zatiari «marco pintoresco» deitu zion eta (B) zatiari «asunto». Modu zabala-goan ikusteak Manuel Lekuona ondorio eta ikerketa handiagoetarako bidean jarriko du. Honelaxe azaltzen du bere (A) zatiari dagokion ekarria:

Don Odón de Apraiz, en un atinado trabajo que publicó en el Libro-homenaje a don Carmelo de Echegaray (pag. 601), registra como característica de los cantares amatorios la presencia de este elemento incoherente que él lo interpreta como una a modo de invocación de la naturaleza. Pero ya hemos dicho, y lo vamos a ver mejor en los ejemplos que aduciremos, que dicho elemento es general de todas las *kanta* o *kopla zaar*, y, por tanto, su uso no es exclusivo del género amorio. Por otra parte, tampoco la comparación está tomada siempre de la naturaleza, sino que a veces se toma de las obras de arte. Así la llave del postigo, en el ejemplo aducido, y el arado y la capa morada, etc.

Manuel Lekuonak lehen pauso garrantzitsu horri beste pauso are garrantzitsuago bat erantsi zion. Bi zatien artean haustura handi bat bazegoen ere, elkarrekiko lotura handia ere badutela. Etena eta lotura, beraz, biak batera ulertu behar dira:

De este «marco pintoresco», aunque a primera vista lo parezca, decimos que no es absolutamente incoherente con el asunto.

Modu laburtuan M. Lekuonak (A) zatiari «marco» deitu zion eta (B) zatiari «asunto» edo «tema». Beste era batera ulerturik, «marco» delakoa ere neurri batean «asunto» edo olerkiaren gaiaren parte da. Bi zatiak elkarrekin duten etena eta lotura izan zen M. Lekuonaren ekarpenik handiena. Lekuonak, era horretara, bi zatiek elkarrekin lotura zutela argi adierazi zuen 1930eko Bergarako hitzaldian.

Aitzolek hiru urte geroago, 1933an, *Eusko Olerkiak IV* liburuaren hitzaurrean, beste era batera izendatu zituen bi alderdiak. Lehenari, (A) zatiari, «irudia», eta (B) zatiari, «oldozkuna». Lehen zati edo irudiaren sailkapen bat egin zuen, sei irudi mota desberdinduz. Irudiaren eta oldozkunaren arteko desberdintasuna honela adierazten du (Aitzol: 1933):

Ura, irudia, iragarle bezela beti lenen; beste oneko au, oldozkuna, oiuegilleak adierazten duan zalduna lez, aizkena. Eredue eta amets-

asmaketak irudipenaren seme arraen antzera; oldozpena, berriz, adimenak sortutako ondorengo nagusi balitzaiguke bezelaxe.

«Irudia» edo lehen zatia, beraz, Aitzolek dioskunez, iragarlea da, zaldunaren heraldo edo oihu-egilearen antzera. Ondoren datorrena «oldozkuna» da, zalduna bera. Irudia imaginazio edo irudipenaren semea da eta oldozkuna adimenarena. M. Lekuonak teorizatu zuena Aitzolek beste hitzez era poetiko eta adierazkorrean hitzataratzen du. Lekuonaren «marco» eta «asunto» zatien arteko lotura ere zehatz adierazten du (Aitzol: 1933):

Irudi-oldozkuna alkar inguratzen dituan lokarria meea degu oso; ederti-arazoak eskatzen duan bezelako ariña. Askotan lenen begiratuaz alkarganako ar-emanik ez da ikusten, sakonkiro so-egindakoan, bai-ordea.

1934an, *Yakintza* aldizkarian, «Eusko olerti-kera berezia (estetika)» izenburupean berriro argitaratu zen Aitzolen lana inolako ekarpen edo zehaztasun berririk gabe¹⁷⁷.

Manuel Lekuonak Bergarako hitzaldi famatua «La poesía popular vasca» izendatu zuen. M. Lekuonak, hitzaldi horretatik bost urtera, 1935ean, garapen eta gogoeta berriz horniturik hitzaldia liburu bihurtu zuen: *Literatura oral euskérica*. Aitzolek bi urte lehenago bere teorizazioa egina zuen. Kopla zaharren bi zatien ezaugarriak eta eten-loturak jakineko kontuak ziren. M. Lekuonak *Literatura oral euskérica* liburuan Bergarako hitzaldian baino are argi eta garbiago eman zuen kopla zaharraren teknikako teorizazioa. Teorizazioa garbiagoa da, garapen handiagokoa. Ideia nagusiak apartatu finkatuetan ematen ditu: «Técnica de la copla», «Incoherencia aparente y cohesión real», «Relación de orden sensible», «¿Mentalidad mágica en las coplas?», «Primitivismo de las copla zaar». Liburuan duen asmo nagusia –kopla zaharren IV atalean, jakina– koplaren bi zati edo erdien ezaugarriak eta eten-loturen gainean teorizatzea da. Ez du, bestalde, ahalegin handirik egin bi zatiak modu finko batean izendatzen. Koplaren bi zatiak, bi moduta-

¹⁷⁷ Azken batean hitzaurreko testuaren hasiera-bukaerak kendu eta kopla zaharraren teknikari bakarrik dagokiona argitaratu zen *Yakintza* aldizkarian.

ra izendatu zituen: *dos partes*¹⁷⁸ edo *dos mitades*. Lehen erdia izendatzeko ez du «marco pintoresco» izendapena inoiz erabiltzen. Trikiti-koplez ari dela, trikiti-koplak irudia duenean, lehenengo erdia «elemento pintoresco» izendatu zuen; bigarren erdia «enlace racional¹⁷⁹».

M. Lekuonak 1935 urteko liburua euskarara itzuli zuenean atal berak landu zituen: «Kopla zaharraren teknika», «Koplaren barruko etena», «Kopla zaarraren barruko lokerak», «Majia kutsuko koplak». Aurreko eduki berak erabiliz, oraingo euskarazko testuan Zuberoako Ligex bertsolariaren bertso-tankera eta kopla zaharraren teknika aztertu zituen.

1936-1939 gerra aurreko *Euskal Pizkundean* hiru euskaldun argituk teorizatu zuten tradiziozko euskal poesiaren gainean. Hiru gizon horiek Odon Apraiz, Manuel Lekuona eta Aitzol, zein bere neurrian, herri-literaturaren maitale eta zabaltzaile izan ziren. Hiru aitzindari horien kontzeptu eta ideien gainean ezer gutxi erantsi edo sakondu dute geroagoko euskal ikertzaileek.

Mitxelenak, Thomas A. Sebeok ikertzaileari jarraiturik, beste era batera izendatu zituen irudi-oldozkunak. Aitzolen *irudia* «imagen suplementaria» da eta *oldozkuna* «imagen focal». Hona modu trinkoan emana (Mitxelena: 1967):

Como en tantos otros cantares tradicionales, y no es esta ninguna propiedad exclusiva de la poesía popular vasca, se tratará de la tan conocida imagen introductoria que no tiene más que una tenue relación, más metafórica que lógica, con el tema principal, es decir, de la «imagen suplementaria» según la terminología de Thomas A. Sebeok, unida por los misteriosos senderos de la poesía con la «imagen focal». No de otra manera se salva en el poema de Berterreche, para citar un ejemplo medieval, la transición de los dos versos iniciales

¹⁷⁸ *Eder zenuan izarra* koplaren gainean hauxe dio M. Lekuonak: «Los casos de relación más puramente sensible, y para el gusto racional por lo mismo más endeble, son sin duda aquéllos en que la única trabazón existente entre la primera y la segunda parte de la copla, es la puramente acústica, relación que llamaríamos puramente de consonancia de verso («la fuerza del consonante»)».

¹⁷⁹ «De cien coplas de *trikiti* o pandereta, recogidas en Dima, sólo 12 estás dispuestas con elemento pintoresco en la primera parte sin enlace racional en la segunda.. Otro tanto ocurre con el coplario de Zeanuri. Algunas pocas coplas hay que por el contrario están totalmente integradas de elemento pintoresco en su primera y segunda parte».

(*Haltzak ezti bihotzik/ ez gaztanberak ezürrik*) a los siguientes (*enian uste erraiten ziela/ aitunen semek gezürrik*).

Irudia eta oldozkuna izan ohi duten kantuen irudia beti izan ohi da finkatua-
goa, aldakaitzagoa eta oldozkuna aldakorragoa izan ohi da. Bestela esan, irudi
berari, zenbaitetan, oldozkun desberdinak txertatu ohi zaizkio. Goraxeago *Ar-
boletan den ederrena* kantuko irudia beste oldozkun batekin aurkitu ohi dugu
«Barda non zinen» kantuan. Hona, kasurako, *Argentinako koadernoko* adibidea:

1

Ene maitea barda non zinen
nik borthañua yoitian?
Buruan ere min nuen eta
dudarik gabe ohian.

2

Barda arratsean ametsetarik
boz bat entzun dut charmantik,
eztitasunez bethea baitzen
harren parerik han etzen.

3

Eztitasuna gauza ederra,
nork dezake ongi estima.
Gauaz loale egunaz ere
errepausurik batere.

4

Charmegarria lo ziradia
eztitasunez bethia?
Lo bazirade, iratzar zite,
etziradeya loz ase?

5

Arboletan den ederrena da
oihan beltzean phagua.
Hitzak ederrak dituzu bainan
bertzetan duzu gogo.

6

Zureganikan despeditzia
iduritzan zaut hiltzia.
Hiltzen ez baniz, itzuliko niz,
ez ahantz nitaz maitia¹⁸⁰.

Kantu ezagun honetan, bestetan ikusi dugun irudi ezagunari (*Arboletan den ederrena da/ oihan beltzean phagua*) beste oldozkun edo pentsamentu bat erantsi zaio (*hitzak ederrak dituzu bainan/ bertzetan duzu gogua*). Juan Mari Lekuonak argitaratu zuen *Oiartzungo kantutegia* laneko *Arboletan den ederrena* kantuan, *Ene maitea barda non zinen?* kantuko ahapaldiarekin oso antzerakoa den beste ahapaldi bat ere badator: *Arboletan den ederrena da/ oihan beltzean pagoa. Hitzak ederrak dituzu baina bestetarako gogo. Jaun Zerukoak emango al-dizu/ niganako amodiyua.*

Aitzolek irudi-oldozkunak kanta mota desberdinetan aztertu zituen. Berak aipatu dugun lanean eman zuen adibidea hauxe da:

Irudia: Otea lilia danean,
txoria aren gainean;
ura yuaten airean berak plazer duenian:

Oldozkuna: –zure ta nere amodio ala dabila munduian.

Aitzolek lehen adibide hori 1870eko Salaberriren kantutegitik hartu eta apurren bat aldatu zuen. Jatorrizko *Othea lili danean*, esaterako, *Otea lilia danean* interpretatuz desitxuratu zuen. Ez dago dudarik Aitzolek iruditzat dakarrena izadian duela oinarria. Neskatilak mutilari egozten dio nahi due-nean joan eta etortzen den txoria bezalakoa dela. Neskati- la geldi eta irmo dagoen otelilia den bezala, mutilak bere plazerera jokutzen du: nahi due- nean, txoriaren antzera, lorearen gainean jarri zein joaten da.

Interesgarria da, bestalde, aipatzen dena ez dela edozein lore, *ot(h)e-lilia* edo *ot(h)alorea* baino. Udaberria baino lehen loratzen da otelilia. Neskati- laren irudia adierazteko udaberriko lehen loreetako bat erabiltzen da. Era

¹⁸⁰ Kanta hau hainbat aldizkari eta kantutegitan dator. *Eskualdun kantariak* 94, KKK 84, *Kantuz* 121, *Gure Herria* 1925, III.

horretara, gaztetasuna eta edertasuna, bi-biak, adierazten dira irudi horren bidez.

Otea –edo nahiago bada, otelilia– dugu, beraz, Euskal Herrian loratzen den lehen zuhaixketakoa. Ote-saratsak lehen loratzen diren arbolak ditugu. Lizardi poetak «Erdi-bearra» lanean (*Euzkadi* egunerokoa 1930, maiatzaren 8) inork baino hobeki adierazi zuen:

Mendiak –adiskide otxana baita ori beti– aspaldian neronen erruz elkar-ikusi-gabeak giñan-arren, berebiziko betitarte ona egin zidan. Nik eztakit zabala sorginduta al-zegoan, ala lo ongi egin baten esku laztankorrek eztiz ene gogamena igurtzia. Dana dala, adiskide on ark eskeñi-ikuskizunez irudimena asi zitzaidan bazter guzietatik izeki ta suak artzen. Goia, mendi-gallurrak, bideko zernaitxoak, basoa, elur-ondarrak: laburki, begiragarri oro, nortu eta eraski olertsuez mamitu zitzaizkidan. Sorgingarrizko nortze ta mamitze orren indarrez, Goiak bazirudidan Egunak urrezko azkonez zauritutako *norbait*.

Lizardi poetak horrelaxe adierazi zuen otsailaren azken aldera mendira egin zuen ibilaldi zoragarria. Lizardik udaberria etorri baino lehen, otsailaren bukaera aldera, ikusten du otalorea eta honelaxe jarraitzen du:

Karraxika nentzun bide-ertzean otalorea: aots bizi-pitzatu batek eztarri meea lakartu ta eten-bear ziolarik.

Otea, beraz, Euskal Herrian lehen loratzen den zuhaixketakoa da. Eta gure kantuko txoria otea loretan dagoela jartzen da gainean. Baliteke gure kantuko irudi eder honetan oinarri edo arnasa harturik Jean Baptiste Elizanburuk bere *Apexa eta lorea* olerkia sortu izana (Labayen: 1978). Elizanbururen poeman apexa eta lorea maitemintzen dira elkarrez. *Apexa* (hots, *apeza* modu adierazkorrean erabat beste esangura bat harturik) ez da besterik mitxeleta baino.

Iruzkintzen ari naizen ahapaldian, ordea, bigarren zatian *zure ta nere amodioa hala dabila munduan* esaten bada, lotura argi bat egiten da bi zatien artean, Odon Apraizek (A) eta (B) izendatu zituen zatien artean. Tradiziozko euskal poesian, gehienetan, lehen zatiaren eta bigarrenaren artean haus-tura handiagoa egon ohi da. Ez dira, beraz, erabat berdinak *Arboletan den ederrena...* eta *Othea lili denean...* ahapaldiak. Lehen ahapaldian (A) eta

(B) zatiak, irudia eta oldozkuna, edo, nahiago izatera, «Imagen suplementaria» eta «imagen focal» direlakoan artean haustura handiagoa dago. *Othea lili denean...* ahapaldian alegoria garbi bat dugu lehen zatian¹⁸¹. Tankera horretako alegoriak beste kantu batzuetan ere aurkitzen dugu. Hona Xahoren bildumako *Charmagarri bat dizut maite bihotzeti* kantuko hirugarren ahapaldia:

Aritza lilitzen da maïatzian bethi¹⁸²
ene bihotza ere zugarat erori
zu zirade arbolia, ni zure lilia
gure bien frutuia fidelitatia¹⁸³.

Ahapaldi honetan ere, aurrekoan bezala, alegoria argii baino argiagoa da. Hemen ez dago M. Lekuonak esan ohi zuenez, koplaz zaharraren teknikarik. Gure irudi eta oldozkunen artean, beraz, eten bortitzagoa egon ohi da.

8.3.1. Argia dela diozu *amodiozko kantua: eredu argitaratuak*

Aurreko puntuan *Othea lili denean* hitzekin hasten den ahapaldiaren iruzkin labur bat egin dut. Ahapaldi hori *Argia dela diozu* kantaren barruan txertatu ohi da. Kanta berak bi izenburu desberdin behintzat hartu ohi ditu gurean *Argia dela diozu* edo *Othea lili denean*. Hirugarren izenburu bat ere izan ohi du: *Amodiozko solasak*. Delako kantua oso ezaguna da, Iparraldeko kantutegi gehienetan agertzen baita.

¹⁸¹ Koplako bi zati edo erdietan ez da elementu gramatikalen loturirik behar. Honelaxe adierazten du Manuel Lekuonak 1935eko lanean: «Tales son las relaciones, que, por llamarlas de algún modo, las hemos llamado de orden sensible, no racional, y cuya verdadera incoherencia en definitiva, si bien se observa, se reduce ordinariamente a una simple falta de elementos gramaticales de enlace entre las dos mitades de la copla, enlace cuya falta por una parte, en nada ofende al oído un tanto acostumbrado, y por otra puede incluso llegar a constituir un magnífico resorte de concisión y energía, cualidades que por cierto forman una de las características más destacadas de nuestro coplario.»

¹⁸² Lehen idazkeran *bethi* lehenago jarri du *maïatzian* baino; gero, ezabatu ondoren, gorago transkribatu dugun bezala.

¹⁸³ Hasierako letra larriak letra xehe egin ditugu.

Argia dela diozu kantaren lehen argitaraldia 1857 urteko Francisque Michelen *Le Pays Basque* liburukoa da. Historialari frantsesaren liburuan, beste izen baten izenburupean dator *Amoros baten gaizkiac (Basa nafartarra)*, 316-317or.

(1)

Arguia dela dioçu;
gau erdi oraino ez duçu.
Enekilaco dembora luce iduritzen çaitçu;
amodioric ez duçu, orai çaitut eçagutu.

(2)

Oficialetan duçu,
çure sinheste gucia.
Aitac eta amac ere hala dute guticia.
lehen bat eta orai bertcea: oi, hau penaren tristia!

(3)


Othea lili denean,
choria haren gainean;
hura joaitan airean, berac placer duenian:
çure eta nere amodioa hala dabila mundian.


(4)

Partitu nintzen herritic
bihotza alegueraric.
Arribatu nintzan herrian, niagarra nuen beguian.
har neçazu sahetsian bici naiceno munduian¹⁸⁴.

Argia dela diozu kantuak 3-4 ahapaldi izan ohi ditu gehienetan. Kantu guztietan errepikatzen diren ahapaldiak, ordea, bi bakarrik dira lehen ahapaldia eta hirugarrena. Lege da, beraz, kantuaren bi izenburuak ere ahapaldi horiek berek ematea.

¹⁸⁴ Hasierako letra larriak letra xehe bihurtu ditugu.





Amodiozko kantu honek Jean Baptiste Arxük Francisque Micheli emana izan behar du. Kantu honetan errakuntza txiki bat dator *hura joaiten airean, berac plazer duenian* izan behar du eta ez *hura joaiten airean, berac plazer duenian*, geroagoko eredueta garbiro ikusiko dugun bezalaxe. Arxü zuberotarrak eskaini aldaera hau baxenabartarrez dago. Amodiozko kanta honetan neska-mutilen arteko solas bat dator. Iparraldeko XVIII mendeko herri-lirikan neska-mutilen arteko amodiozko solasak itxuratzen dira, gehienetan. Ahapaldi bakoitza neskari edo mutilari dagokio. Gure kantua hobeki ulertzeko, ahapaldi bakoitza zeini dagokio? Bigarren ahapaldia mutilak dio, hirugarrena neskak mutilari diotsona da, laugarrena mutilarena. Lehen ahapaldia, ordea, neskarena edo mutilarena ote da? Nik, egia esan, beti irudikatu dut neskak mutilari esaten dion ahapaldia dela. Baina kontuak ez daude hain garbi, geroxeago ikusiko dugunez. Kantu honetan esaldi bat baino gehiago indar handikoak dira. Norbaitek amodiorik ez duela adierazteko modurik indartsu eta adierazkorrenetako bat dator: *enekilako denbora luze iruditzen zaizu*. Elkar maite ez dutenen arteko denbora luzea da eta elkar maite dutenen artekoa, berriz, laburra. Betiko amodioa adierazteko esaldirik ederrenetako bat, bestalde, kantu honetan dator: *har nazazu sa(i) hetsean bizi naizeno munduan*.

Kanta honetako bigarren ahapaldiko *ofizial* delakoa, berriz, zein ofizial-mota ote da? Iparraldeko euskaraz *ofizial* hitzak adiera bat baino gehiago izan dezake. Zenbait autorek, gainera, *ofizial/ofiziale* desberdintzen dituzte. Bi aukera nagusiak ofiziodun eta medikuen artekoa dira. Salaberrik, esaterako, *ofizial* hitza «artisan» itzultzen du¹⁸⁵. Korapilo hau geroxeago askatuko da.

Julie Adrienne Karrikaburu¹⁸⁶ (1827-1898) andreak, Madame de la Villéhélio bezala ezagunagoak, 1869 urteko *Souvenir des Pyrénées* kantutegian hamabi euskal kantu beren hitz eta pentagramarekin argitaratu zituen. Liburu xume bezain baliotsu hau da euskarazko lehen egiazko kantutegi

¹⁸⁵ Salaberrik bere kantutegian, 14. or. *Ofizialetan deia/Zure sinheste guzia?* honelaxe itzultzen du: Est-ce parmi les artisans/ Qu'est placée toute votre foi?

¹⁸⁶ Izen-deitura osoak frantsesez Julie Adrienne Carricaburu et Roger. Zuberoako euskaraz Karrikabürü deitura dugu. Emakume hau Sohüta (frantsesez *Chéraute*) herrikoa zen, Mauletik hurbil-ekoia.

argitaratua. Francisque Michelen *Le Pays Basque* lehenagokoa da, 1857koa; lehenago esan dugunez, baina kantuen hitzak pentagramarik gabe bakarrik dituenez gero, ez da hartzen *sensu stricto* kantutegizat. Aita Donostiak, 1954an, Villéhélioren kantutegiko kantuen edizioa egin zuen (Donostia: 1954). Kantua 1869 urtean argitara zen bezala ekarriko dut hona:

1

Arguia dela diozu,
gaüerdi oraïno ezduzu,
enekilaco dembora
luce iduritzen zaïzu;
amodiori[c] ezduzu,
oraï zaïtu[t] ezagutu.

2

Othia lili denean,
choria haren gaïnean,
hura¹⁸⁷ joaïten airian,
berac plazer duenian;
zure eta nere amodioa,
hala dabila mu[n]dian.

3

Partitu nintzen herritic,
bihotza allagueraric;
arrajin nintzan herrian,
nigar[r]a nuen beguian,
harnezazu sahetcian,
bici naïzeno mu[n]dian¹⁸⁸.

Huts bat baino gehiago badaude ere, guztiz ulergarria da kantua. Bigarren ahapaldian *Hura joaïten airian* da esaldi zuzena. Hona aldatu dudan eredu eta Francisque Michelena oso hurbil daude. Badira, jakina, aldaera txikiak. Francisque Michelenean *arribatu nintzan herrian* dator eta Villéhéliorenean

¹⁸⁷ Jatorrizko dokumentuan *hurac* dator. Okerra denez gero, *hura* jarri dugu.

¹⁸⁸ Bertso-lerroetako lehen maiuskulak aldatu ditugu bakarrik.

arrajin ninzan herrian. Bi-biak, bestalde, behe-nafarreran daude, inolako durarik gabe.

Hurrengo eredu argitaratua J. D. J. Salaberriren *Chants populaires du Pays Basque* 1870eko kantutegiko aldaera baxenafartarra da. Mauleko legegizonak kanta honi bere lan ederrean bigarren lekua eman zion, aurre-raxeago ikusi dugun *Maitia, non zira* kantaren hurrengoa. Salaberriren liburuko kantuen hitzak ondo transkribaturik egon ohi dira eta oso huts gutxi izan ohi dituzte. *Argia dela diozu* (*Basa-Nabartarrez*) izenburuaren azpian eredu hau dator.

(1)

Argia dela diozu,
gauherdi oraino ez duzu;
enekilako dembora luze iduritzen zauzu,
amodiorik ez duzu, orai zaitut ezagutu¹⁸⁹.

(2)

Ofizialetan deia
zure sinheste guzia?
Aitak eta amak ere hala dute gutizia;
lehen bat et'orai bertzea: oi! hau phenaren tristia.

(3)

Othea lili denean,
choria haren gainean;
hura yuaiten airean berak plazer duenian;
zur'eta ner'amodioa hala dabila mundian.

(4)

Phartitu nintzan herritik,
bihotza alegerarik;
arribatu nintzan herrian, nigarra nuen begian:
har nezazu sahetsian, bizi naizeno mundian¹⁹⁰.

¹⁸⁹ Lehen idazkeran *amodiorik ez duzula orai zaitut ezagutu* jarri du Mauleko notarioak.

¹⁹⁰ Lehen bertso-lerroetako maiuskulak aldatu ditugu bakarrik.

Aldaera berri hau, aurrekoak bezalaxe, baxenafartarra da. Eredu berri honetako bigarren ahapaldia ez da bestetan aurkitzen. Aldaera hau hitzez hitz errepikatzen da 24 urte geroago itsasoaz haraindiko *California-ko Eskual Herria* (1894-08-18, 51 zenbakia, 1. or.) aldizkarian. Salaberriren liburuak arrakasta handia izan zuen eta itsasoz bestaldera joaten ziren zuberotar askok –ingelesek Biblia eta Dickensen liburuak eraman ohi zituzten bezalabereren ekipaian eraman ohi zuten.

Salaberriren liburuko lau ahapaldiko bigarren eredu berria beste eredu batzuetan ere aurkitzen da. Hona *Gure Herria* aldizkariko 1926 urteko eredu (GH, VI urtea, Errearoa-Juin, 114 or.):

I

Argia dela diozu,
gauerdi oraino ez duzu,
enekilako dembora luze iduritzen zaitzu,
amodiorik ez duzu, orai zaitut ezagutu.

II

Ofizialetan duzu
zure sinheste guzia.
Aitak eta amak ere hola dute gutizia,
lehen bat orai bertzia: Oi! hau penaren handia!

III

Othia lore denian,
choria haren gainian...
Hura juaiten da airian, berak plazer duenian:
zur'et'ene amodi[o]a, hala dabila munduian.

IV

Partitu nintzen herritik,
bihotza alegerarik;
berriz jin nintzen herrira, nigarra nuen begian!
har nezazu zure lagun, bizi nizeno munduian.

V

Amodioaren berri
 nihork ongi othe daki?
 ni gaichoa, hemen nago, frogaturikan ederki,
 erranez mila goraintzi ene gazte demborari!

Gure eredu honetan aurreko *arrajin* eta *arribatu* aditzen ordeez *berriz jin* dator. *Har nezazu sahetsian, bizi naizeno munduian* esaldi indartsua *Har nezazu zure lagun, bizi nizeno munduian* dugu. Gure eredu berri honek duen berritasun nabarmenena, ordea, inon ikusi gabeko ahapaldi berri bat izatea da.

«Argia dela diozu» kantuak hiru ahapaldi izan ohi ditu kantutegi gehienetan. *Kantuz* zein *Kantu*, *kanta*, *khantore* bildumetan. Hona adibide bezala 1957 urteko *Herria* astekariko urtarrilaren 17ko alea.

1

Argia dela diozu, gaiardi orain'ez duzu,
 enekilako dembora luze uduritzen zaitzu;
 amodiorik ez duzu orai zutut ezagutu.

2

Othea lili denian, choria haren gainian,
 houa jouaiten airian berak plazer diainian:
 zoure eta nere amodioa hala dabila mundian.

3

Phartitu nintzan herritik, bihotza alagerarik;
 Orena jo zaitanian, arrajin nintzan herrian;
 har nezazu saihetsian bizi nizano mundian¹⁹¹.

Eredu honetako hirugarren ahapaldian berritasun nimiño bat dator. Gainerako eruedetako *arribatu nintzan herrian* edo *arrajin nintzan herrian* edo *berriz jin nintzan herrian* aurkitu beharrean, beste esaldi bat dator: *orena jo zaitanian*.

¹⁹¹ Bertso-lerro hasierako letra larriak letra xehe bihurtu ditugu. Puntuazioa ere apurren bat aldatu dugu. Jatorrizko bost lerroko ahapaldiak hiru lerroa ekarri ditugu.

Orain jarri dezadan Argentinako kaiereko eredua. Argentinako kaiera Jean Fourcade jaunarena zen eta aita Donostiak Argentinara egin zuen bidaian, 1922an, lortu zuen. Kantu-kaiera, ordea, askoz lehenagokoa da. Kantuak Lapurdiko Kanbokoak dira. Kaierean *Argia dela diozu* izenburuaren ondoren (*Amodio eskasa*) azalpena dator. Eredua hau Aita Donostiak 1926 urteko GH aldizkarian argitaratu zuen. Argitarapen horretan, ordea, jatorrizko eredutik aldaera txiki batzuekin eman zen argitaratu. Hona hemen iturria datorren bezala:

I

Othia lili denian, choria haren gainian;
hura handik yoaiten da berak plazer duenian.
Zure eta nire amodioa hola dabila airian.

II

Argia dela diozu, gauherdi¹⁹² oraino ez duzu,
enekilako dembora luze iduritzen zaitzu;
amodiorik ez duzu orai zaitut ezagutu.

III

Erbia doha lasterrez, ihiztarien beldurrez;
herri huntako neskatchak urthuak¹⁹³ daude nigarrez,
urthuak daude nigarrez, ezkont ez dituen beldurrez.

IV

Phartitu nintzen herritik, bihotza alagerarik.
Arra yin nitzan herrian, nigarra nian begian.
Har nezazu saihetsian bizi naizeno mundian¹⁹⁴.

Eredua honetako ahapaldiak beste modu batera tolesturik daude. Lehen bi ahapaldien ordena eredua honetan bakarrik aurkitzen da.

¹⁹² Halaxe dator eskuizkribuan. Aita Donostiak *gauherdia* transkribatu zuen 1926ko GH aldizkarian.

¹⁹³ Eskuizkribuan lehen aldia *urtuak* dator, bigarrenean *urthuak*.

¹⁹⁴ Eskuizkribuan *Mundian*. Ahapaldiak jatorrizko eskuizkribuan sei bertso-lerrotan daude tolesturik. Gurean ahapaldi bakoitza hiru bertso-lerrotan jarri dugu.

Kantu honetako hirugarren ahapaldia ez dut beste eredu batzuetan aldaeretan txertaturik ikusi. Gorago, koplak zaharren eta *Lohibarreko anderea* kanten berri eman denean, hirugarren ahapaldi huri berori iruzkindu dut. Ahapaldi bera, beraz, kantu batean baino gehiagotan kantatzen zen. Gainerako hiru ahapaldiak orain arteko eruedetan agertzen direnen oso antzekoak dira.

Senperekoko Musumielenia etxeko Marcel Arribillagaren kantu-kaierean, 77-78 or, *Othia lore denian* izenburuaren azpian gure kantua ere badator (LAF 401-014). Beste eredu askotan datozen lau ahapaldi ezagunetz gainera, ahapaldi berri bat ere aurkitzen da. Hona eredia ahapaldi bakoitza hiru lerrotan tolesturik:

1

Argia dela diozu, gauerdian orainon ez duzu,
enekilako dembora luze iduritzen zaitzu.
amodiorik ez duzu, orai zaitut ezagutu.

2

Amodioaren berri nehork ongi othe daki?
Ni gaichoa hemen nago frogaturikan ederki,
emanik milaka goraintzi nere gazte denborari.

3

Oficialetan deia zure sinheste guzia?
Aitak eta amak ere hala dute gutizia,
lehen bat et'orai bertzia, oi hau penaren trichitia!

4

Othia lore denian, choria haren gainian,
hura dabila airian berak plazer duenian.
Zure ta ene amodiua hola dabila airian.

5

Partitu nintzan herritik bihotza alegerarik
arajin nintzan herrian nigarra nian begian.
Har nezazu saihetsian bizi naizeno munduian¹⁹⁵.

¹⁹⁵ Kantu hau 2010.eko XIX. Mendeko euskal kantu ahantziak liburuan eman zen argitara.

Eredu honetako bigarren ahapaldia amodiozko kantuetan agertu ohi den damu-ahapaldia dugu. Baliteke beste eredu batzuetan ere agertzea.

8.3.2. Argia dela diozu: *eredu argitaragabeak*

Orain arte emandako eredu guztiak mugaz haraindikoak izan arren, Baztango eredu bat edo beste dokumentatua dago. Bitori Etxeberriak 1933urtean, Elizondon, aldaera hau bildu eta Aitzoli bidali zion:

(1)

Otia lili denian, txoria aren gañian;
ura yoaten da aizian berak plazer duenian:
zure eta ene amodiyua ola dabilta aizian.

(2)

Partitu nintzen erritik, biotza alegerarik.
Arribatu nitzan errian¹⁹⁶, nigarra nuen begian.
Ar nezazu sayetsian bizi naizeño mundian¹⁹⁷.

(3)

Argia¹⁹⁸ dela diozu, oraindikan gau erdi ez dezu;
enekilako denbora luze iduritzen zaizu.
Amodiorik ez dezu orai zaitut ezagutu¹⁹⁹.

Jean Duvoisin kapitainaren kaieretan ere badator gure kantua *Amodio khechiak* izenburupean²⁰⁰. Eredu honek ahapaldi berriak dituenez gero, argitasun berriak ematen ditu. Lehen ahapaldia mutilaren esanari dagokio. Mutila argizagiaren argitan neskatilagana joan eta ia gau osoan egon da berare-

¹⁹⁶ Testu makinatuan *arrian* dator.

¹⁹⁷ Testu makinatuan *mendian* dator.

¹⁹⁸ Testu makinatuan *argiz* dator.

¹⁹⁹ Jatorrizko iturrian sei lerrotan dator. Guk sei lerroak hirura ekarri ditugu.

²⁰⁰ Baionako Euskal museoa zeuden kaieretatik zazpigarrenean aurkitzen da kantua. Gure kantua 15-16 orrialdeetan dago transkribatua.

kin. Denbora nola iragaten den argizagiaren beraren ibilbideak adierazten du: *Argizagia agertu, baieta gora altxatu*. Egunaren zabalera laster dela adierazteko honelaxe dio: *argia hurbiltzen zaiku*. Sarrera-ahapaldi honen ondoren hobeki ulertzen da *Argia dela diozu* kantaren bigarren ahapaldia. Duvoisinin ere-duan, bosgarren ahapaldian, ofiziala zein den argi agertzen da: barbera.

*Argia dela diozu,
Lauheri ere ez diozu,
Seuretilako denbora
Luze ideritzen zaitez,
Amesiozik ez diozu,
Orai zitut ezagutu.*

*Botatza gazte jupia,
Ehail-odor jupigabia,
Atchikazu prudentzia
Eta har zure maizia;
Ere ez daitez balia
Kobuz, migar egitea.*

*Ofizialtam dute nik
Wozogyo guzia;
Alta-eca amak ere
Wotan dute gutzia,
Bat ma beste bat hobia,
Gena ezin bantia.*

*Seure sinbestea dute nik,
Jaun barbera zurekin
Seure juna changrinton
Izan zaitez enkin*

*Altra hili denian
Choriaharan guinian,
Neura-hambiki leal-baga
Berak palaz denian
Zure et-ene amuliva
Wada dabila airian.*

(1)

Argizagia agertu, bai-eta gora altchatu;
argia hurbiltzen zaiku, etchera joan behar nuzu.
Maitia, pot bat indazu, berehala banihazuz.

(2)

Argia dela diozu, gauherdi ere ez duzu;
neurekilako dembora luze iduritzen zaitzu;
amodiorik ez duzu, orai zitut ezagutu.

(3)

Neskatcha gazte propia, thail-eder²⁰¹ paregabia;
atchikazu prudentzia, eta har zure maitia;
gero ez daikezu balia doluz nigar egitia.

(4)

Ofizialetan dut nik neure²⁰² gogo guzia;
aita²⁰³ eta amak erehetan dute gutizia.
Bat ona beste²⁰⁴ bat hobia, pena ezin hautatia.

(5)

Neure sinhestia dut nik, jaun barbera zurekin,
neure pena changrinetan izan zaitian enekin²⁰⁵.

(6)

Othia lili denian choria haren gainian,
hura handik badohazu berak plazer dienian.
Zure et-ene amodioa hola²⁰⁶ dabila airian²⁰⁷.

²⁰¹ Ez da erraz transkribatzen, baina *Thailu eder* baten laburpena izan behar du.

²⁰² Lehen idazketan *Ene gogo guzia* idatzi du transkribatzaileak. Gerora, aldaketa eginik, *Neure* idatzi du.

²⁰³ Halaxe dator *-k* ergatiboaren markarik gabe.

²⁰⁴ Jatorrizko dokumentuan *beste*.

²⁰⁵ Ahapaldia osorik ez dagoenez gero, transkribatzaileak tarte handiagoa jarri du ahapaldi hone-tatik hurrengora.

²⁰⁶ Transkribatzaileak zer jarri du: *hola* edo *hala*? Ez dago guttiz argi.

²⁰⁷ Bertso-lerroetako hasirako letra larriak letra xehe bihurtu ditugu.

Hirugarren ahapaldian *thail'eder paregabia* hori honelaxe ulertzen da: «thaila eder paregabea». Beste amodiozko kantuetan ere ideia bera aurkitzen da: *Uda lili eiger charmagarria,/ Tailla perfeta eta bilho hoillia,/ Oraï jiten nitzazu adios erraitera/ itsasoz banoazu fortuna eghitera.*

Eredu berri honek genuen hiru-lau ahapaldiko aldaerak argi berriz argiztatu ditu. Arxü altzürükütarrak bere kaier eskuizkribatuan sei ahapaldiko aldaera harrigarri bat dakar. Kantuaren izenburua frantsesez ematen du *Dialogue amoureux*. Hona hemen²⁰⁸:

(1)

Ene izar charmagarri, oherat etzan zireia?
Lothara ezpazia, soghidazu borthara;
zuri hitzño bat erran eta banoazu behala,
banoazu behala.

(2)

Ene oherat etzateco aspaldian zuzun ilhuna;
bestetan dembora passatu eta jiten zira enegana;
eni trufaric eghin gabe zoaza berriz harengana,
zoaza berriz harengana

(3)

Arghia dela diozu, gauerdi orano eztuzu;
bestetan dembora igaran gabe zure gana jin nuzu;
amodioric balin baduzu, borthañoa idocazu²⁰⁹,
borthañoa idocazu.

(4)

Gazte ninzanian gazte, hoghoita lau urthe,
aspaldi erran nauzudan dissimilaric gabe,
zuretaco ezniela²¹⁰ amodioric batere,
etzinitudala maithe.

²⁰⁸ Kantutegi argitaragabearen kopia digitala Mauleko Sü hazia kultura-elkarteko egoitzan aurkitzen da. Gure kanta 39. orrialdean dator. Dagoen-dagoenean transkribatu dugu, puntuazioa apurrran bat aldaturik.

²⁰⁹ Lehen aldan Arxük *idoc azu* idazten du, bigarreanean, batera: *idocazu*.

²¹⁰ Eskuizkribuan zer dator: *ezniela* edo *ezniela*? Bi aukeretatik lehena dela uste dut.

(5)

Aditzen dudanian zure botza karrican,
sartzen nuzu kambaran eta jarten leihoan.
Hortaric konsidera zazu nic zombait maite zitudan;
bai, zembait²¹¹ maite zitudan.

(6)

Othia lili denian, tchoria haren gainian,
hura hantic atheratzen da berac plazer duenian;
zure eta ene amodioa hala dabila mundian,
hala dabila mundian.

Aldaera honek berritasun nabarmenak dakartza. Gure kantaren bi ahapaldi nagusi dakartza: *Argia dela diozu* eta *Othia lili denian*. Bi ahapali horietan beretan aldaera nabarmen eta interesgarriak ditu. Beste ahapaldiek ere badituzte beste kantu batzuekin bateratasun nabarmenak. Arxüren bosgarren ahapaldiak, esaterako, oso bateratasun handia du Xahoren kantutegiko *Muthil gazte bilho hollia* kantaren beste honekin:

Entzuten nianian zure botza karrikan
Jouaiten nintzan khanberala eta jarten leihoan:
Hasperena bihotzian eta nigarra beghian.

Arxüren bosgarren ahapaldian datorren *Aditzen dudanian zure botza karrican, / sartzen nuzu kambaran eta jarten leihoan* pasarte bat dator *Muthil gazte bilho hollia* kantuko ahapaldiarekin. Amodiozko kantutetan, zenbaite-tan, goraxeago *Arboletan den ederrena da* kantuan bezalaxe, ahapaldiak batean zein bestean trukutzen dira.

9. Bukaera

Hitzaldi honen hasieran, Mogelen pasarte bat, Txirrita bertsolariaren azken hilabeteak eta Antonio Zavala aipatu ditut. Berriro ere gogora ditzate

²¹¹ Lehen aldian *xombait* dakar eta bigarrenean *zembait*. Ez dago dudarik *zombait* edo *zembait* izan behar duela.

gun Maisu Juanen hitzak, sabaian dauden aita-seme bertsolarien bertsoak entzun ondoren.

M. J. Peru, esaidazu arren ostera versua, ta ateraco ditut papera eta tinteruba, beti aldian darabildazan leguez, escribiduco dot aztu eztaquidan.

Maisu Juanek garbi dio: *versua escribiduco dot aztu eztaquidan*. Iburguen kronikariak ere horixe egin zuen Errodrigo Zaratekoren kantarekin. Eta, Maisu Juanen alegiazko mundua utzirik eta egiazko mundura etorrira, Mogelek berak ere horixe uste zuen: gure orduko bertsolarien bertsoak pape-rean finkatu eta itsatsi behar zirela. Eta *finkatu* eta *itsatsi* berariaz diot; izan ere, gaur egun erabiltzen dugun *idatzi* aditza Mogelek *Peru Abarka* lanean erabili zituen *eratsi* edo *iraatsi* aditzetik baitator. Bestela esan, Mogel bera izan zen *idatzi* aditza eratu zuena. Mogelen *Peru Abarka* argitaratu baino lehen, Maisu Juanen aditza erabiltzen zen: izkribatu, izkribitu, izkiriotu...

Antonio Zavalak bertsolarien bertsoak transkribatu zituen ederrak eta gogoangarriak zirelako. Besteren bertsoak idatzi zituen, Maisu Juanek zioen bezalaxe, ahantz ez dakizkigun. Bertsolari zahar askok, idazten ez zekitenez gero, beren bertsoak idazten zituen norbait izan ohi zuten. Txirritak Jose Ramon Erauskin iloba izan zuen idazkari-lana egiten ziona. Antonio Zavalak bizitza osoko jardun nekagaitz horretan, artoski eta amultsuki, urregorria kofrean gorde zuen. Urregorriaren kofre hori, mendeetako bertsoen gordailu hori, *Auspoa liburutegia* da.

Antonio Zavalak zioen Txirrita bezalako gizonek kalte baino mesede gehiago egiten dutela mundu triste honetan. Zavalaren hitzak geureganatuz, euskal mundua ere askozaz tristeagoa izango litzateke *Auspoa liburutegia* gabe.

Txirritak, Mogelek eta A. Zavalak, zeinek bere mailan, mesede handia egin zioten euskarari. Mesede, gainera, barru-barrutik. Txirrita talentu handiko bertsolaria izan zen: bere bertso eta pasadizoekin gure imajinarioan bizirik daukagu. Egiazko bertsolari bat izateaz gainera, arketipo bat ere badugu: Mogelen bertsolaria Txirritaren antzekoa da eta alderantzira. Gaur eguneko euskaldunok aho-mihitan darabilgu lur azpian ia laurogei urte sar-turik egon arren.

Mogelek era bateko eta besteko ekarriak egin zituen. Euskaraz erlijio-liburuak, literatura-sorkariak eta euskararen defentsako erdarazko lanak. Mogelek gipuzkeraz atera zuen bere lehen liburua, bizkaiera literarioa abiarazi zuen, eta XVIII. mende bukaerako euskal gizartearen eta euskararen argazkia eskaini zuen.

Antonio Zavalak bertso-bildumak eta azterketak argitaratu zituen eta bertsolariak ere idazten jarri zituen. Perpaus lanoz liburu zoragarriak eta testu zoragarriak argitaratu zituen, besteak beste direla, Xalbadorren *Odolaren mintzoa*, Uztapideren *Sasoia joanda gero*, Mattin Trekuren bizitza bere emazte alargunak kontatua. Antonio Zavala gure herri-literaturaren idazkari nagusia da, liburutegi bat utzi digun neurrian ondasundegi bat ere utzi digu.

Humboldtkek ere mesede handia egin zion euskarari. Humboldtten idatzien eraginez hainbat jakitun interesatu ziren euskararen gainean. Humboldtkek euskaltzaleasuna eta euskaldunenganako interesa piztu zituen. Euskaldunok atzerrian izan dugun defendatzaile eta ordezkari onena izan dugu.

Euskara biziko bada, euskaldunek hala nahi dutelako izan behar du. Euskara biziko bada, era berean, mesedegileak behar ditugu barrutikakoak eta kanpotikakoak. Txirritak, Mogelek eta Antonio Zavalak euskara barru-barrutik aberastu dute. Euskarak, era berean, kanpotikakoen laguntza ere behar du. Kanpotikako laguntzaile handi bat Humboldt dugu.

Humboldtkek, zorionez, bere bidaia-liburuan aipamen erratu bat egiten du. Honelaxe dio:

Gure hizkuntza zaharrak, ordea, beharbada mende bat baino lehenago hizkuntza bizien artean desagertu edo galtzeko arriskua du.

Esaldi horrek helduleku bat baino gehiago ditu. Hizkuntza bizien artean ez egoteak badakigu zer esan nahi duen; hizkuntzak desagertu edo galtzeko arriskua izatea ere bai. Humboldt prusiarrak mende bateko bizitza baino gutxiago iragarri zion euskarari. Baieztapena, ordea, ez da erabat kategorikoa, «beharbada» batek, *vielleicht* delakoak, zorionez, huts egin zuen, eta gure hizkuntzak bizirik dirau oraindik. Humboldt Euskal Herrira etorri zenetik berrehun urte baino gehiago pasatu dira; eta, hemen bertan, bera Mogelekin batera, *Leloren kantua* eman zion leku berean, gu orain euskaraz ari gara.

Esan dut.

Bibliografia

AKESOLO, LINO, 1973, «Aezkoako eguberriak jarraitzen ote dute» *Goiz-Argi* 14, 158 zenb., *Príncipe de Viana*, zenb. 6, (1973) 93-94.

———, 1927, «Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera» *Euskera*, III-IV zenbakia, 179-300.

ALTZIBAR, XABIER, 1997, *Pablo Pedro Astarloa*, (1997) Durangoko Arte eta Historia Museoa.

ALZOLA, NICOLÁS, 1962, «El manuscrito de Ochandiano», de la biblioteca de Julio de Urquijo», *BRVAP*, 80-82.

APRAIZ, ODÓN, 1928, «Euskel ole ´rkiyaren berezikai bat Izadiyari deya maitasuneko olerki-asikeran», *Homenaje a D. Carmelo de Echegaray*, 601-609.

AREJITA, ADOLFO, 1993, «Jose Antonio Astarloak Markinako iturriari eginiko bertsoak» *Euskararen iker atalak*, nº 6, 100-106.

ARIZTIMUÑO, JOSE, 1933, «Itzaurrea» *Eusko olerkiak*, IV, 5-30.—, 1934, «Eusko oleri-kera berezia (estetika)», *Yakintza*, 243-355.

ARRIOLABENGOA, JULEN, 1996, «Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan (1570-1620). Butroeko Andrearen Eresiaren bertasio ezezaguna; Salinasko Kontearren Kantua; Errodrigo Zaratekoaren Kantu Epikoa» *ASJU*, XXX-1. (1996), 71-98.

———, 2008, *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan (XVI. mendea)*, Euskaltzaindia.

AZCUE, RESURRECCIÓN MARÍA, 1935, «Curiosidades de un manuscrito inédito de Añibarro», *Euskera* XVI, 135-143.

———, 1925, «Curiosos documento copiados en la Biblioteca imperial de Berlin, de los manuscritos de Guillermo de Humboldt, a 5 de agosto de 1922», *Euskera*, VI(IV), 60-66.

BARANDIARAN, JOSEMIEL, 1954, «Euskal-mitologiaren ikaspiderako» *Euzko Go-go*, (9-10), 155-158.

BASABE, KANDIDO, 1934, «Pedro Antonio Añibarro Aitaren euskerazko eskuidatziak», *Euskera* XVI, 135-143.

BAZTARRIKA, ISIDOR, 1982, «Ataungo Santageda kantak», *Jaunaren deia*, (1982), 69-97.

BARAIAZARRA, LUIS, 2008, «Santi Onaindia eta Ignazio Berakoetxea», *Karmel*, 2008-2, 30-41.

CASTAÑOS, Florentino, «Astarloa y la lengua vasca», (1978) de Ahorros Vizcaína, colecc. «Temas Vizcaínos».

CHARRITTON, PIARRES, 1986, *Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarrizketa* (1897-1920) iker-4, Euskaltzaindia.

DONOSTIA, P. JOSÉ ANTONIO DE, 1916, «Erregiñetan, o la Fiesta de las mayas» *Euskalerriaren Alde*, 6, 241-252.

———, 1918, «Apuntes de folklore vasco. Canciones de cuestación», RIEV, tome IX, 141-172

———, 1918, «Canciones de cuestación. Olentzero», RIEV, (1918), 141-172.

———, 1924, «Toberak» RIEV, Tome XV, 1-1-, 1954, «Souvenir des Pyrénées recuerdo de los Pirineos. 12 canciones vascas escogidas y anotadas por Mme de la Villéhélio» BRSVAP, 308-337.

ETXEBARRIA, JUAN MANUEL, 1999, *Zeberioko kantak*, Auspoa Liburutegia 259.

FARINELLI, ARTURO, 1922, «Guillermo de Humboldt y el País Vasco», RIEV, XIII, 257-272.

GARATE, JUSTO, 1934, «Cinco cartas inéditas de Guillermo de Humbolt» RIEV, nº 25, 430-444, 622-639.

———, 1961, «Pablo Astarloa. Extracto humboldtiano de su Plan de Lenguas», *Euskera* VI, 247-279.

———, 1976, «El anillo escolar en la proscripción del euskera», FLV, nº 24, 367-388.

GAVEL, HENRI, 1929, *Grammaire Basque*, Bayonne: Imp. de Courier.

HUMBOLDT, WILHELM. VON, 1935, «Extracto de Plan de lenguas de Astarloa», RIEV, 93-121.

IRIGARAI, AINGERU, 1933, «El euskera de Zufia», RIEV 24, 34-36.

LABAYEN, ANTONIO MARÍA, 1978, *Elizanburu bere bizitza ta lanak*, Colección Auñamendi.

LAFITTE, PIARRES, 1967, «Nori buruz egin zen “Maitia nun zira” kantu zaharra», *Herria* 1967-30-XI, nº 901.

LAKA, ITZIAR, 1989, «Astarloaren hizkuntzalaritzaz», *ASJU* XXIII-1, 75-86.

LAKARRA, JOSEBA ANDONI, 1984, «Bizkaiera zaharreko ablatiboaz», *ASJU* XVIII-1, (1984), 161-194.

LEKUONA, MANUEL, 1930, «Cantares populares» *Anuario de Eusko Folklore*, 35-95.

———, 1965, «Santa Clara'ren kanta zahar bat» *Bi antzerki eta itzaldi bat*, Itxaropena argitaldaria.

———, 1930, «La poesía popular vasca», *Quinto congreso de estudios vascos*, Vergara, 132-174.

MICHELENA, LUIS, 1971, «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», *FLV*, 149-169.

———, 1962, «Más sobre el manuscrito de Ochandiano» *BRSAP*, 82-83.

———, 1967, «Tradición viva y letra muerta», *Homenaje a don José Miguel de Barandiarán*, Bilbao, 1967, t. II, 121-145.

MOGEL, JUAN ANTONIO, 1891, «Apología de la lengua bascuence contra las erradas ideas y conjeturas de D. Joaquin Traggia», *Euskal Erria*, 1891, XXV, 39-42, 69-73, 116-120, 137-142, 212-216, 244-249, 270-272, 197-300, 336-340, 369-374, 390-397, 442-447, 474-480, 497-503, 524-529.

RUIZ DE LARRINAGA, JUAN, 1924: «El vascófilo franciscano Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio bio-bibliográfico», *RIEV*, XV, 32-82, 313-336.

SALABERRI MUÑOA, PATXI, 2015, «Koherentzia diskurtsiboa euskal baladen exordioetan», *Eridenen du zerzaz kontenta: Saillkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, 537-558.

SATRUSTEGI, JOSE MARIA, 1995, «Testu ihartuak euskal tradizioan», *Euskera* 1995, liburukia 4, nº 1 161-172.

SEOANE, RAMÓN, 1911, «Misceláneas históricas. Correspondencia epistolar entre D. José Vargas y Ponce y D. Juan Antonio Moguel sobre etimologías vasconga-

das», Euskal Erria, LXV, 322-326, 421-424, 477-482, 515-518; 1912, LXVI, 4-9. 61-64, 108-110, 151-153, 207-209, 266-269, 303-307, 360-364; 1912, LXVII, 19-21, 69-70, 121-126, 147-152.

URIARTE, J. M., *Pablo Pedro Astarloa*, (2002) Durangoko Arte eta Historia Museoa.

URKIZU, PATRI, 1973, »Albadak, xikitoak eta erran zaharrak» ASJU, VII, 104-116.

URQUIJO, JULIO, 1919, *El refranero vasco. T. I.: Los refranes de Garibay*. San Sebastian.

VILLASANTE, LUIS, 1959, «Euskaldun erriak. Aulestia», *Aranzazu*, nº 376, 366-368.

YURRE, YULEN, 1968, «Lo-kantak edo seaska-eresiak», *Egan*, vol. XXVII, 25-34.

ZAVALA, JUAN MATEO DE, 1909, «Fábulas en dialecto vizcaíno», RIEV, 1907, I, 88-97, 529-54.

Jabier Kaltzakorta euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna

AREJITA, Adolfo
Euskaltzain osoa

Jaun-andreak, agur eta egun on

Euskaltzainak, Markina-Xemeingo Uri-eleizateetako herritarrak, auzo-erbesteetatik etorri zareten lagun, euskaltzale eta bestelangoak, agur eta egun on guzti-guztioi.

Wilhelm Humboldt prusiarrak Murgartegi Jauregi honetara etorri zenean jende aurrean hitz egiteko erarik izan balu, agian *Meine Damen und Herren* edo antzeko formularen batez zuzenduko zen entzuleengana, damak lehenik eta jaunak hurren direla. Guk bestetara. Hizkuntza bakoitzak bere jiteak ditu, bere *jenioa*, bere arima, behinolako erromantikoek esango luketen bezala.

Gure euskaltzain berria hitzaldi mamitsu batekin Euskaltzaindiaren ateartera hurbildu bazaigu, zer gutxiago erantzunezko berba labur batekin beroni agur egitea, Akademiaren usu-legeari men eginez. Sarrera-hitzaldi hau, laburrean entzun duzuen, bere osoan irakurri ahal izango duzue aurrerakoan, eta nigaz batera esan ahal izango duzue, behin mamurtu ondoren, harako Maixu Juanek, Peru Landetakori, *Peru Abarka*-ri, berba-jardunaldietako seigarrenean, azken aldera, agur egin orduan esan zuen antzera: «poz ta irabazi geijagogaz nua, amar erbi edo eper ilda baninua baino» (PAb 123).

Irakatsirik asko eskaini diguzu, Jabier, gaurkoan ez ezik, orain arteko ikerlari ibilbide luze horretan idatzi duzunaz, eta ez gutxitan ahoz transmititu diguzun guztiaz. Aurretiaz natorkizu esatera, meritugarriak direla zinez gure

hizkuntza-literaturen mesedetan iragako urte luzeetan sortu, garatu eta eihoduzun guztia, une jakin batean euskaltzain oso izendapena irabazteko.

Gaurko honetan bidealdi luze bat eragin digu Kaltzakorta jaunak, W. Humboldt-ek Euskal Herrira eta bertora Markinara egin zuen osteraitzakia hartuta. Egunkari bat idatzi zuen jakitun prusiarrak, non gure herriaz eta hizkuntza zaharraz ere ikerketa ere egiten duen: *Die Vasken, oder Bemerkungen auf einer Reise durch Biscaya und das französische Basquenland im Frühling des Jahrs 1801. nebst Untersuchungen über die Vaskische Sprache und Nation, und einer kurzen Darstellung ihrer Grammatik und ihres Wörrervorraths*. Bide hori gomutara ekarriz, bide horren aldeetan eta euskal herrietan barrena jaso diren balada, koplak, eresiaz zahar... eta batez ere erre-frauek, erre-frauek bildumak ageriratu eta begi zorrotzez finkatu dizkigu euron transmisioaren baldintzak, mugak eta egitasuna.

2013ko uztailean 19an hautatu zuen Akademiak Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso, Jose Luis Lizundia jaunak emeritu egoerara igarotzean utzi zuen aulkia betetzeko. Beronen merezimenduak neurtzeko, ez dut joko bidean irabazitako diploma eta tituluen aipuak egitera, ez berak ez nik ez baitiegu horrelakoei sineste gehiegi ematen, nahiz gaur horien hotsera dantzian dabilen gizarte gurea. Nahiago dut, aldiz, zuzenago deritzat, beronen bibliografiari so bat egitea eta hartako ale bakoitzaren edukia trinkotasunari eta sakonerari neurria hartzea, kopuru neurriaz gainera. Neurri-kordela ere luzea beharko horretarako haren baten, askok uste baino luzeagoa.

Beronen liburuetan, baina batez ere aldizkarietan barrena argitaratu dituen ikerlanak ohartu irakurritz gero, eta berari astiorduetan honez edo harzaz hitz egiten entzuteko betarik izan baduzue, gutariko edozein harritu-ko da, euskal hizkuntza-literaturez ez ezik, literatura unibertsalaz zein kultura zabalaz beronek duen jakinduria zabala. Ezaguera entziklopediko moduko osotasun horretatik literaturaren eta bereziki herri literaturaren barrutia hautatu zuen orain dela aspaldi bere baratz preziatu, eta hori landu du gehienik, baina beste inguru alderdiak ere ahantzi gabe.

Baina euskararen barrutira eta euskaraz sortu diren edergarrietara bere arreta eta indarrak zuzendu izana ez da berez datorren kontua. «Behin baino gehiagotan itaundu nion neure buruari ea bide egokia aukeratu nuen»

egiten du gogoeta. Euskararen mundu hau txikia da, bai, eta euskaldunok ere gizarte txikia osatzen dugu, eta batzuetan amorrarazten eta gogaitarazten gaituen mundutxo. Egia da, bai, baina Mikel Zarate idazteak Derioko Udako Ikastaroko ospakizun batean esan zuen bezala, «hauxe da geure mundu txikia». Esatea legez, ia geure esku ere ez dago berau maitatzea; bertakoak gara eta bereak gaitu.

Halaxe, Kaltzakorta gazteak ere, ia mutil berdingotan esango genuke, edo Unibertsitatera sartu orduan zer edo hura hautatu behar eta, letren bidetik jo zuen, eta euskal letren bidetik hala beharrik. Bide hau aspaldi hartu zuen eta behin hona ezker, ez dago atzera egiterik. Ez eta damurik ere; hala uste dut. Sendotasunez, zuhurtasunez eta ekimenez jokatu duela-ko harrezkeroko guztian, euskal letren ortu-baratzea ahaleginean jorratuz, denbora luzez eta gaurdaino. Gaztetan hain gogoko zien matematikei edo zientziei oratu balie, beste kukurruku bat entzungo zen, eta Hizkuntzaren Akademyan edo Letren Fakultate batean ezagutu ordez, gizarteko beste esparruren baten izango genuen, geure damu handiz.

Baina bizitzan hona edo hara beharrak ez dira berez izaten. Euren atzeak eta arrazoiak ohi dituzte, eta Kaltzakortak ere bide hau hartu bazuen, zerbaiten eraginez jazo zen hori: ingurune bat, etxe eta gizarte giro bat, baldintzakizun batzuk bere umetako eta gaztetasuneko joan-etorrietan. Hala uste dugu.

Euskararen, euskara onaren estimua, herri hizkeraren atxikimendua, ele ederren zaletasuna bere inguru hurbiletik zetozkion gure ikertzaileari. Hasteko, etxetik bertatik; aitatatik eta amatatik. Beronek behin eta berriro eta harrotasunez esaten duen bezala, Markinakoa eta kaletarra dugu Jabier, ez «abarkaduna», behinola baserritarrei esaten zitzairen haietarikoa. Maisu Juanen giro eta jatorritik hurbilagokoa, Peru Abarkaren Landetako paradisu girotik baino. Egia da, Juan Jose Mogelen *etxeoko eskolia* izan duela ikasbide eta euskara kontuan iturri emaritsua, bai edukiaren, baina batez ere zaletasunaren aldetik. Baina ez horraitio, hark 1816an dieon *Baserritar Eskolia*, kalekoa baino. Bai Juan Josek, bai Bizentak *osaba sazerdote* bat zuten bide-erakusle eta eskola-maisu; euskara gaietan ere. Eta datu autobiografiko hau aitortzen dute iloba bata eta besteak. Jabier Kaltzakortak ez du osaba abaderik izan bere euskara-eskolatze bidean; etxeakoak izan ditu, ama esango

nuke berariaz, bai irakasle, eta gerora euskara kontuan ikasbide eta informazio iturri emankorra.

Baserritar, nekezale edo *nekazariak* aipatzen dituzte gure euskal klasikoek euskara onaren iturri gisa. Halaxe Maisu Juan kaletarrak ere baserri giroan murgildurik euskara eta bertako mundua barrutik ezagutzen egon ondoren, agintzen dio Peruri: *Jangoikuak nai ba, emendi aurrera artuko dot ardurua andi bat, baserritar ta beste nekezale erderabagakuetati euserkia ondo baino obeto ikasteko.*

Nekazari mundua eta nekazarien hizkera eredu bai, baina Mogeldarrak eurak, gure Kaltzakorta bezala, kaletar puruak ditugu, beronen ama den bezala, eta kaleartean herriko euskara gehiago ikasi du larri-larri baserri munduan baino. Baserrietako laratz ondoetara ere jo du, eta asko, gerora, batean lo-kantak direla, bestean erretrauak, harako Mogelek edo Toribio Etxebarriak dakarren halako hitz edo esaera ezaguna duen jakin nahirik. Ibilira da Markinaldeko eta urrunagoko laratz ondoetan amama zaharren-gandik informazio eske. Baina Markinako uriko kalearteak, lagunarteak eta etxebarrua izan ditu informazio iturri oparoa, eta han aurkitu du sarritan, baserritarren artean idoro uste zukeena.

Gurasoen epelean ikasi zuen Markinako euskara ederrak berezko bidea hartu zuen eskolara zenean ere. Umetan hartu zuen eskola-jarduna, gehiena edo guztia, euskaraz zela diosku bera. Ez zuen, bada, txikitari ezagutu, eratzunaren zigorra, gure Mogelek garrantasun minez bere denborako ohi-tura latz hori salatzen zuena.

Zori bera ezagutu zuten Juan Antonio Mogelek loba umezurtz biak, Juan Josek eta Bizentak, osabaren ardurapean eskolatu izan zirenean. Jabierrek ez zuen mutikotan haiek bezala *osaba sazerdote txito jakin bat* eduki, *zeinek ezaguturik bere lobiaren entendimentu iratzarri eta ikasinaija, lagunduten eutsan asko liburuak ondo aitutera.* Baina karmeldarren komentu hurrekoan Zerutxu ikastola berria ireki zelarik, eliz giroko irakasle euskaldunak bai eta euskarazko eskola egun osoz. Hortik aurrera, bai Arretxinagako kaleko eskoletan, bai aurrerago Ondarroako institutuan, gaztelania izan zuen eskola-hizkuntza. Igarri barik, baina, artean euskararako zaletasuna indarrak hartzen zihuan Jabierrengan. Beronek aitoren digunez, Markinako gizarte

ezagunetik Ondarroako ikastetxean elkartzen zen gazteri gizarte zabalago eta aunitzagora jauzi egitean, nahiz ikasgaiak erdaraz ikasi, «orduan, garai hartan euskaltzaletu nintzen» diosku berak. Mutil berdingotan.

Irakurle handia zetorrela gazte-gaztetarik erakutsi zigun. Bere kabuz, inork agindu barik, irakurri zituen gure klasiko moderno gorengoan lanak: Orixeren *Euskaldunak*, Lizardiren *Bioz*-begietan, Mitxelenaren *Idazlan hau-tatuak*; poesia zaharra eta oraintsuagokoa, Onaindiaren *Milla euskal olerki eder* bilduman. Bizkaiko klasikoetan, Mogelen *Peru Abarka*, eta urrunago-koetan Axularren *Gero* eta ilara luzea.

Nik Deustuko Unibertsitatean egin nuen Jabier Kaltzakortaren ezagupide-
dea, ikasle izan bainuen, neu irakasle sartu berritan, Euskal Filologia adar-
rean, oker ez banabil, 1980-81 kurtsoan, orduko ikas egitarauko bigarre-
nean. Eta hurrengo hirugarrenean ere bai. Ikasle isila zen. Aurreko
mahaietan jesartzen zen.

Aldi hartan Euskal Filologia adarrak, gaurko Graduak baino arlo handia-
goa eskaintzen zien espezialitateko gaiei, bai hizkuntzaren, bai literaturaren
alderdiei. Euskara orduantxe ofizialdu berri, euskararen eskari handia sortu
zen urteotan eta talde ugariak ornitzen ziren gure fakultatean ere, bestetan
legetxe. Etxetik euskara ona zekartenak asko, zaletasun handikoak asko.
Badakit lehen urte euskararen morfologia ikasteko erreferentziazko liburue-
tarik bat Azkueren *Morfología Vasca* obra zela; gerra aurreko lana, berez,
baina puntu batzuetan atzeraturik gertatu arren, mami handiko lana, eta
arina eta atsegina ere bai, euskara gaiak atsegin zituenarentzat. Ez dakit
orduko ikasleentatik zenbatek irakurriko zuten *Morfología Vasca* hori, baina
Kaltzakortak, inork agindu barik, seguru naiz geldiro eta zehatz irakurri eta
ikasi zuela, eta tinko buruan josi zuela haren edukia, anekdotak barru. Au-
rreko mahaietan jesartzen zen, baina burua gutxi erakutsi eskoletan; isila
eta lotsorra zen, diskrezioa gurago zuen, burua erakutsi baino. Eta irakasle
ginenontzat ere ez zen erraz, gure ikasleak zenbateraino zekien eta artean
beretara zenbat irakurria zen. Euskal Filologiako ikasketak goitu ondoren
hasiko zen gure ikertzailearen benetako karrera, ikerketakoa.

Baina ikerketarena baino lehen, luzaroko urteetan bete duen eta orain-
dik ere diharduen irakaste lana aipatu nahi nuke. Zeren, gure hizkuntzaren

aldeko lanean dituen meritu garrantzitsuetarikoak da, ene ustez, hainbeste unibertsitari belaunaldi gazteri euskarazko ele ederrak, herri literatura, idazkuntza eta hizkuntza estiloa irakasten eta zuzentzen eman dituen eskolak eta hartu dituen lorrak ez direla sartu *zaku eten ta zulatuan*. Urtez urte bere eskoletatik igaro diren ikasleen *zaku etengo extirianetan* baino, Mogel idazlearen esamolde birekin adierazita.

Ondo gogoan daukat IVAP erakundeak Gasteizen sortu zuen Itzultzaile Eskolan 1987 urteaz geroztik euskal itzulpen kalitatezkoari eskaini zizkion zazpi ahaleginak. Euskal administrazioak orduan zuen hutsune bat bete nahirik eraiki zen Eskola hori, baina iraun zuen urte laburretan lan bikaina egin zuen. Ez dakit eskola horietan irakasten zuen itzulpen konparatuak akuilurik, baina orduko urteetan ondu eta atera zituen ipuin bertsiotagarri bi, bizkaiko euskara ederrean atonduak: *Pu Songlig-en eta Ekialdeko ipuin miresgarriak*, Txinako ipuin bilduma bana-banakoak euskara ederrean moldatuak (Labayru Ikastegia, Galburua, 1988). Itzulpenetan, are itzulpen literarioetan, nabari izaten da sorkuntzazko testu librean baino areago, noraino menderatzen duen batek hizkuntza bat; hizkera akatsak ere hor salatzaren dira errazen. Itzulpen literarioan frogatu zigun Kaltzakortak bere neurria. Esaldiz esaldi, orriz orri, hainbeste hitz eta esamolde ageri direnak. Lizardi edo Mitxelena baten idaztanka ederraren miresle den honek bere idatzietan erakutsi du maisuro euskarak dituen baliabide apartak kontararen harian maisuro mendatzen, itzulpena izanik ere.

Ez da harritzekoa ere ipuin generoa hautatu izana itzultze saio horretarako. Ipuina eta narrazio laburra baititu Jabier Kaltzakortak generorik estimatuenak literaturan. Literatura unibertsalak eman dituen kontu, ipuin edo narrazio labur idazleez beronek adina dakitenak eta irakurri izan dutenak gutxi izango dira, herri literatura barne. Grimm anaiak, Kipling, Borges edo gaur egungoak, herri tradizioko anonimoak zein autore ezagundunak.

Ezra Pound-en *Cathay* lanaren euskal moldaketa ere ordukoa du, 1988 urte ingurukoa.

Euskararen eremuan, ez da inorentzat sekretua, Kaltzakorta jaunak ikerketarako guren duen barrutia, herri-literaturarena dela. «Ahozko generoak izan ditut batez ere ikergai» diosku berak. Hizlaurkoak, hitz neurtuzkoak,

errezitatu erakoak eta osteangoak. Ipuinak, baladak, errefrauak, lo-kantak, dantza-koplak eta abar luze bat aipa daitezke genero txikion artean. Bat edo beste aipatuko ditut aringa.

Tradizioko euskal ipuinen arloan egin duen ikerketaren adibide aproposa dugu *Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma ezkutua* (1997) liburua. Agustín Etcheverri delako idazle-biltzaile xume batek bere kaier batean eskuizkribuz bilduriko ipuinak abiapuntutzat harturik mito-pertsonaion gainean jaso denaren ibilbide kritiko bat egiten digu eta pertsonaia horiei buruzko bertsioen ezagutza garbia eman. Ildo bereko beste lan bat aipatzeko: «Herri ipuinen hasiera eta amaierako formulak»¹.

Baladak, erromantzeak izan ditu atergabeko beste ikergaietariko bat. Argitaratu duen artikulu bakoitzean beti dakarkigu aldaera berri ezezagunen bat: Andre Emili, Brodatzen ari nintzen, Bereterretxen kantorea, Senarraren seinaleak, Neska ontziratua, Jaun Zuriano edo besteren bat dela. Balada bat ikertzen duelarik, aurretik horrezaz eginiko guztia jorratuko digu, begi zorrotzaz eta neurriko kritikaz. Eta beti ere publikatzen dituen bertsioen transkripzio fidagarria eskainirik.

Herri koplek aberatsari ere azterketa oparoa eskaini dio. Seinalagarriena, *Dantza-kopla zaharrak* (2007) monografia, non bildu, sailkatu eta ikertu dituen ondasun sakabanatu horren pitxi-lore mordoa, orain artean egin denik eta ugariena eta zehatzena. Nork ezagutzen ote ditu Kaltzakortak baino hobeto gure egunkari, aldizkari, liburu eta bildumetan erdi izkurtuan diren kopla mordoskak, luzeak edo laburrak?

Atsotitzen mundua ezin utzi aipatu gabe, nahiz beronek sarrera-hitzaldi honetan eman digun horretan duen ezaguera zabal eta hurbilaren eskolarik bikainena. Errefrauak, esaera bakarreko edo gehienez ere biko unitateak izanik, bildumetan jasorik datozenak asko izan arren, testuetan txertaturik edo egokiturik bana-banaka ageri dira sarritan, edo hiztegietakako hitz sarreretan sakabanaturik, Larramendiren edo Azkuerenetan bezala. Argitaratu gabe eskuizkribuetan gorderik dautza beste batzuk. Horien guztien bilatzen eta bil-

¹ *Tradiziozko ipuingintza*, Gauontza Sorta, 2. Bilbao: Labayru Ikastegia, 9-32 or.

tzen, eta modu fidagarri batez transkribatzen eta kontestura ekartzen hamai-ka ahalegin egin ditu gure ikertzaileak, guztiz emankorrak gertatu direnak.

Lo-kantak, sehaska kantak ditu beste batzuetan mintzagai. *Errodrigo Zarateko zaldi urdinaen ganean, / bosteun kaskabel urregorritzko / zaldia idune-rean*. Eresi zahar horren kopla eder honen oihartzuna berehala antzeman du gure ikertzaileak lo-kantetan. Eske eta erronda-koplez dituen ikerketak ere ahanzi gabe².

Literatura idatziaren eremuan, arlo bi bereizi dizkigu beste guztien gainetik. Narratiba laburra, kontalaritza, nolabait esateko, eta euskal klasikoen idatziak. Eleberria, teatroa, poesia eta beste genero batzuk ere ondo ezagun dituelarik, aipatu genero biok beretzakotu ditu gehien. Gure literatura klasikoaren gaineko zenbait azterlan gogoratzekoan, hurreko dituen Mogel osaba-ilobak dira adibide ona.

Gaur egungo narratiba laburraren arlo zabalean, gazterik irakurri zuen Bernardo Atxagaren *Obabakoak* izan du, besteak beste, kritika aldetik landu duenetarik bat, eta ondo baino hobeto igarri beraren atzean dauden iturriak ere. Genero horretan, Europan, Hego Amerikan eta beste lurralde batzuetan izan diren sorkuntza onetatik edan du gure irakurle handiak, eta horrek eman dio bidea iturrietan azterka ekiteko ere.

Literatura eremu honetan, horren ezagun edo estimatuak izan ez diren baina bere iritzian balio bereziren bat zuten idazleak ezagutarazten eta balioztatzen ere egin du lan. Hala, Mariano Izeta idazle baztandarraren kontuekin, bera oraindik bizi zela, eskaini zion bilduma, sarrera-ikerlan txukun batez lagundurik³.

Euskal lexikografia arloan darabilen lanaz ere zerbait esan beharrik nago.

Labayru Hiztegia egiten lankide izan zen urteak (1990-1994) eta harako eginiko lana, gehiena elkarlanaren anonimatoan izkututzen dena izanik ere,

² «Erronda kantak eta eske-bertsoak», *Euskera*, 2003-1, 48 znb.

³ «Mariano Izetaren lan-bildumaren berri laburra» in *Baztango kontuak*, Laratz-4. Bilbao: Labayru Ikastegia, 11-18 or.

berariaz aipatu nahi ditut, zeren begi zorrotza eta irizpide arteza izan ez balira, zehaztasunean ez zuen gordeko, agian, obra horrek duen maila.

Baina gerora ere ez du etsi, etxe eta kanpo, emakumeak lekuko harturik gehienetan, bitxi edo berezi begitantzen zaion guztia biltzen. Belarria erne eta zoli beti, entzuten denari adi. Buruz ikasi entzundakoa eta arin koadernoratu, buruan fresko den artean. Bildutako guztia esku zabalaz jakinarazi dizkigu, guri eta besteri, azken finean hiztegi corpus bizia etengabe biziberritzen laguntzen dutenak.

Herri-hizkeraren, berariaz lexikografiaren, biltze lanean buru-belarri dihardu gaur artean, Markinaldea gunen nagusi duela. Hemendik urrun barrik, Eibarko auzo-urrian eta auzo-euskaran Toribio Etxebarriak bildu zuen corpus ederraren ildotik gogotik ekin dio gure ikertzaileak, batez ere hurreko informatzaileez baliaturik. Toribiok, bera kaletarra izanik, emaztea, Arratetikoa, izan zuen informatzaile nagusia. Eta Eibarren barrik, Caracas-ko atzerrialdian garatu zuen biltze-lana; agian, euskalzaletasuna ere atzerriko urruntasuneko minak eraginda bizkortu zitzaion. Gure ikertzaileak, alagalako berri-emaileak inguratu ditu bertotik irten barrik: Markina, Iturreta, Milloi inguru horretakoak.

Hitzaren bitxiak edo bakantasunak erakartzen du gure ikertzailea: behin hitza, behin aldaera, behin adiera zuzena edo figuratiboa, behin hitz horrekin bilbaturiko esaldia, behin horrekin josiriko lokuzioa edo errefracua, edota horren inguruko ipuin, pasadizo, sineskera edo kontaera zabalagoa. Iker-tzaileak den-dena batzen du.

Ea, luzaro gabe, *De rebus euscarae memorabilibus* horren emaitza oparora, argitaraturik ikusteko zoria dugun.

Irakasle, ohargile eta laguntzaile

Kaltzakorta hurrean eduki dugun eta daukagunontzat, ikerkuntzaz ate, bada alderdi bat, giza alderdia eta jakintza transmititze alderdia, nabarian utzi nahi nituzkenak.

Deustuko Unibertsitatean, lehenik Euskal Irakaslegoan, eta 1994tik eta gaur arte Euskal Filologia adarrean garatu eta garatzen duen lana guztiz da

aintzat hartzekoa, ez bakarrik gela barruetan irakatsi duen guztiagatik, baizik eta berak horretan ipini duen plus gehigarri horrekin belaunaldi gazteak zinez euskarazaletu dituelako.

Santiago Segura eta Gotzon Garate gogoratzen ditu ereduak irakasleen artean. Eta berau ere haien idekoa ez ote den nago. Literatura, herri literatura, idazkuntza edo enparatuko gaiak direla, beti bilatuko ditu eskoletarako gairik atseginenak, ahal dela laburrak: Agirre Asteasukoaren konparantzen bat, Lizardiren poesiaren bat, herri baladaren bat, atsotitz esanguratsuren bat, hitz joko bitxiren bat, etimologia ederren bat, Mitxelearen aipua beti gogoan... Eskola barrukoaz landa, eskolaz kanpo agian gehiago irakatsi duela esango nuke, banan banango eta aurrez aurreko irakatsiak, eskolen gerriko estutik libre berez eta borondatez ematen diren argibide eta irakatsi estimagarriak. Unibertsitateko irakasle-lagunok asko zor diogu berari horretan; seguru naiz behinola Euskal Irakasleagoan zituen kide batzuk ere horretan beraren zordun direnak. Eta zer esanik ere ez Labayru Ikastegiaren Derioko egoitzan diren hainbat teknikari ere. Gutariko batzuk beragana jotzen dugu, idazle batez, gai jakin batez, artikuluko batez zerbait zehatzago jakin nahi dugunean. Alfonso Irigoien zena ere, nire akorduan, mesedetu zen Kaltzakorta jaunaren bibliografia argibideez. Izan ere, irakurle handia, saiaturia eta ohartua, ikastun osoa den batek, dena buruan gordetzen daki eta irabiaturik jendeari eskaintzen. Horretan ere maisu dugu Kaltzakorta irakaslea.

Euskaltzaindiarekiko harremana eta lotura aspaldikoa du Kaltzakortak. 1996ko maiatzaren 31n izendatu zen euskaltzain urgazle eta urte berean sartu zen Herri Literatura batzordeko kide izatera.

Batzorde horren bidez esparru horretan jardun duten hainbat ikertzaileekin izan du harremana. Zenduak dira batzuk: Juan Mari Lekuona, batzordeburu luzaz izen zena; Alfonso Irigoien, Deustuko Unibertsitatean irakasle-lagun urte luzez izan zena. Harreman estu-estua *Auspoa* bildumaren zuzendaria zen Antonio Zavalarekin. Bilduma hori izan du Kaltzakortak herri literaturaren harrobi kutunenatariko bat, eta zenbait artikulutarako gai izan ditu bertako ale eta edukiak, zuzentzen zuen ikertzaileari bezala. Bide batez esanda, gutxi izango dira, berak bezala, goitik behera irakurri eta

edukiz hobeto ezagutzen dutenak. Gaur egun, Joxe Mari Iriondo urgazleak zuzentzen duen Auspoa liburutegiaren batzordekidea dugu.

Herri Literatura batzorde burua dugu. Eraz datorkit abagadune hau, beroni gogorarazteko, Euskaltzaindiak, orain artean bezala, geroan ere herri literaturari bere balioa aitortu nahi diola eta euskal hizkuntzaren osagarri ezin baztertuzkoa duela etorkizunean ere, eta herri literaturaren bilketa eta ikerketaren emaitzak baliagarri izango dituela bere zeregin funtsezkoetan ere, dela hiztegia, dela gramatika, dela beste edozein-ere alderditan. Eta duen erantzukizun horretatik batzordearekin batera bultz egin dezan, Akademiak herri literaturarekin duen eginkizuna osoro kunpli dedin.

Euskara literarioak Bizkaian Markinako uri honetan jadesi zuen bere goitasuna, luzaroko nahi eta ezinen ondoren. Gipuzkoaren muga herri honetan eta mugakide bokazio horrekin. Juan Antonio, Juan Jose eta Bizenta Mogelek ere, Eibar, Deba eta Azkoitian osagileen orduko bizimodu ibiltarian lorratza itxi bazuten ere, hemen zimendua hartu zuten idazte lanean. Astarloatarrek ere hemengo arrastoa zuten. Frai Bartolome etxebarritarra ere hona ekandu zen eta zuk, Jabier, tentu handiz aztertu dituzun dantzakoplen eta euren soinuan gorputzari deragioten gazteen kontura hemendik urrun barik idatzi zuen: *Soloko koko saltokarijak laboria galduten daben legez, emakume dantzarijak arimaak galduten ditubeela. Dantziak Inpernuko pozutik urten dabela. Inpernuko labati kee atsitubak urteten daben legez, naasteko dantzetati luxurijaren subak urteten dabela.* Baina baita ere, hain maitero aztertu dituzun atsotitzen sorta eder bat hemen hurbil idatzi zuen Mogel zaharrak ere. Eta zu ere, Jabier, haiek bezala, «Goiko Portaleko iturria» eta berean zizelkaturik dauden lauakoak bezain markinarra zara. Eta Mugartegi Jauregi honetan, Wilhelm prusiarrak eta Juan Antoniok bat egin zuten asko esan gurako jauregi honetan, hartzen zaitu Euskaltzaindiak bere altzoan. Guztiz merezia zenuen ohore hori lehenagotik ere.

Ondo etorria, bada, lehendik ere zeure etxea duzun Akademiaren aterbe honetara, baina ardura gehiago eta sendoagoekin.